IÑIGO ARANBARRI

# Zapata-ren oihana

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1997 Iñigo Aranbarri
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1997ko apirila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

*«Marcos euskaldunon laguna da, Iñigo» ohartarazi ninduen Irati txikiari.*

# MUNDUKO HIRIRIK EDERRENA

## –1–

Luzetsita, buztinezko hautsontziarekin dabiltza jolasean Jordi-ren esku urduriak. Denbora da zerbitzariak badatorrela esan digula, baina botila hutsek salatzen dute haren berandutzea. Turistaz beteta daude mahai guztiak, europarrak gehienak, mexikarrak asko, iparralde beti aberatsagotik –Jalisco, Monterrey edo Durangotik– Oaxacara, munduko hiririk ederrenera etorriak.

– Nola dakik nongoak diren?

– Oaxacarrek ez ditek rantxerarik kantatzen.

*Por tu maldito amor, por tu maldito amor, por tu maldito amor* lehertu da mariatxi lanturua on-

doko mahaian, eta arkupe aurreak eskaintzen duen panorama ez duzu atzokoaren oso bestelakoa. Plater eta zerbeza botilaz beteriko mahaien berora etorritako musikariak, kaleko postuen gas-argiak, jendearen batera eta besterakoa... Liluratzen zaitu Zocaloko magnolioen ederrak, gauari itzala eman nahian bezala.

– Beste tamal bat eta bi Victoria –eskatu diot azkenean behintzat hurreratu zaigun zerbitzariari.

Garagardoak, mehea izanagatik, erasan ere erasan didala uste dut. Arratsalde osoa daramat bertan, ezer egiteko kemenik gabe, eta bertan aurkitu nau Jordik, nire beso eta aurpegiko azalkera argira hurbildua dudarik gabe.

– Espainola al haiz?

– Oraino ez. Euskalduna.

– Pozten nauk. Ni ere ez. Katalana –itzuli dit, erantzuna aurretik prestatua duenaren ziurtasunez.

Arratsaldea zen artean eta kafe kikara hartan nituen loaren atzaparretatik libratzeko esperantza apurrak. Gogorra etorri da eguna. Estatu osoko indigenen festa-egun legez aurkezten den

Guelaguetza astelehen honetan Oaxaca osotik ikuskizunera hurbildutakoek bete duten zeremonia baino ez duzu errepikatu, eta halarik ere, flakiak jota zeunden eguerdirako. Oinez eta berandu egin duzu El Cerro-rainokoa, karrika kolonialen artetik hasieran, aldats pikoetan gora gero, ateak zabalik zituzten etxe apalagoak maldan beherantz. Tartean-tartean, eta goraino, peso batengatik komuna eskaintzen zizuten bebarru argi bat baino gehiago.

– Auditorioa?

Estratan gora, jendea aurkitu eta haien urratsei jarraiki berriro ere zuzeneko bidean jarri zaren arte. Beherago, polizia antidisturbioak komisaldegia dirudienaren aurrean lerratzen ari dira. Azkenik, heldu naiz gora, jendeak, elkarri bultzaka gorantz baino ez baitu egiten, ordaindu gabeko sarrera duten ateetara. Garbi heltzen dira oholtza gainean hasia dagoen musikaren aireak. Eta dagoeneko ezagunak ere badituzu piezarik gehienak, ostiraletik gaur arte katedral aurrean behin eta berriro entzun dituzun berberak.

Mundua gaude doaneko ateen aurrean sartu ezinik.

– Goizago etorri behar hurrengoan, *güero*! Erosidak, hamabostean –bota dit plast lastozko kapeluak saltzen ari zen emakumeak.

Irribarrea atera zaizu. Jantzita daramazuna ez duzu txarra. Horma gainera igota, Mexiko hegoaldekoak baino gehiago Texas edota Arizonan eginiko filmeetakoak diruditen poliziek –bota altuak, hegal zabaleko kapeluak, bristada handiko plakak eta lunetak– alanbrezko hesiraino igotzea lortu dutenak jaitsarazten ari dira. Buztanak balira bezala dantzatzen dituzte orkatilerainoko latigoak ipurdi atzean.

– Jo egin behar al nauzu? –jazarri zaio denen buru dirudienari ondoan dudan emakumea. Puerto Escondido-koa da, Ozeano Bareko kostan.

Behean, mendiari jandako anfiteatroaren oinetan jasoa duten agertokian, Tehuantepec Istmoko neskek Anana Lorearen Dantza ematen dizute. Mugimenduak berak baino, musika duzu belarrian erraz geratzekoa. Ozengailuetatik Ernesto Zedillo Ponce de Leon, Mexikoko Errepublikako lehendakaria eta Oaxacako gobernadorea bertan direla jakinarazten da. Ez duzu olatua bezalako oihu marruma entzuten. Txilioak, orroak,

txaloak: etxean zaude. Hemen ere bada agintariak maite ez dituenik. Ateak kanpo aldera zabaldu dira eta, arrapastaka, barruan zara.

– Banan-banan! Banan-banan!

Sartu naiz. Sartu naiz, eta amenazuzko ahotsa atzean geratu den megafonoa da, mundu hura guztia polizia gizen baten aginduaren morrontzapean sartu ahal balitz bezala.

– Itxi! Itxi! Ez da inor gehiago sartuko!

Ordubetetik gora zeramaten itxita ateek, jendearen jendearekin leporaino dena. Kapelu itsasoa da mailadia zauden goi ederretik. Eguzki errea dago eta jendearen aurrera-atzerakoa etengabea da. Emakume bat, nobedadea egin-da, hankak luze aterako dute jendearen buru gainetik. Zenbat lagun dagoen? Hamar mila? Hamabost? Hogei? Nik dakita.

## –2–

Oaxacan egiten den festarik handiena duzu Guelaguetza. Agintaritza zibiletik estatuko indigenen bilkura legez aurkezten bada ere, nekez

entzungo duzu indigenen hizkuntzarik mikroetatik. Ez duzu idatzirik aurkituko. Kolorea baino ez da hizkuntzarena, indigenak benetakoak dituzulako bermea.

Bezperatik, mestizoz osaturiko epaimahaiak aukeratu du emakume indigenen artean bere komunitatea ondoen ezagutzeagatik jaietako buru izendatu den Centeotl Jainkosa. Bere herriko hizkuntzan egin behar izan du jainkosa izenda dezaten. Inork ez du ulertu. Ordea txalotu dute.

Mestizoena barne, hamasei dira Oaxacako etniak eta hamabost hirurogei dialektotan hedatutako hizkuntzak, gazteleraz gain estatuko herri eta hirietan usu hitz egiten direnak. 1990eko erroldako datuak dira asko ibilita azkenean nonbaiten –museoan– aurkituko dituzunak. Zapotekak, mistekak eta mezatekak dira ehun mila hiztunetik gora dabiltzan bakarrak. Txinantekak eta mixeak laurogeita hamar mila dira, eta txatinak salbu, hamahiru mila hiztun baino gutxiago dituzte gainontzeko guztiek Oaxaca estatuan, hots, trikiak, kuikatekak, hueveak, nahuak, zokeak, txontalak, amuzgoak eta txotxoak. Ixkate-

ken egoera ez da larrira heltzen: hamazortzi lagun ziren orain dela sei urte.

Chiapas, Tabasco eta Guerrero-rekin batera antropologoek *Mexiko sakona* eta bidaia agentziek *Mexiko magikoa* deitu gogo duten Oaxaca zaildu honetan, bi herenak dira ehuneko hogeita hamar baino gehiagoko biztanlego indigena duten herriak. Baina oro har, bertoko hizkuntzen erabilera beherantz doa etengabean: gazteek ez dute ikasten eta ur falta eta lurren kalitate eskasagatik hirietako kanpo-auzuneetara jotzen dutenak hamarretik bi dira. Han, ulermenaren izenean, betirako galduko da *hizkuntza frankoa* den gazteleraren mesedetan. Ikusi egiten den galera da. Euren jai egunetan, Guelaguetzan bertan, ez dituzu mihirik gabeko gonbidatu baino. Dantzari mutu alaiak zure begietara. Munduko kitschik tristeenak. Pinotepa Nacional-ekoak dituzu, Santa Maria Zacatepec-ekoak, Putla eta Copala-koak, Huajapuan de Leon-goak, Ixtepec-ekoak, Juchitlan-goak, San Pedro de Amuzgos-koak, Tonala-koak, San Sebastian Ixcapa-koak, Yosocutla-koak, Ixtlatepec-ekoak, Cacahuatepec-ekoak...

Orain «Pinotepa» abesten dute.

– Alvaro Carrillo-rena duzu jauna. Cacahuatepec-ekoa zenuen, Costa Chica-koa.

Eguerdia zen postu artetik beherako bidea hartu dudanean. Coca-Colak muntatua zuen *standean* gona motxez jantzitako hiru neska biserak oparitzen ari zenituen, Deep Purple-ren musika ezin gorago. Arbolapean, artesania, janaria, jokoak eta edari hotzak eskaintzen zituzten txiringitoetako saltzaileak belar gainean etzandako familiekin nahasten ziren. Artirin errearen, erromeria egunetako usaina. Eta polizia bat metro bakoitzeko.

– Lapurreta asko izaten da, badakizu jauna... –gaztigatu dit ura erosi diodan emazteak.

Bistan ez daramadala ezer ematen diot aditzera, nekez ebatsiko didatela ezer, baina aholku emateko gogoz dabil:

– Ur botilak tapoia prezintatu gabe saltzen dituztenak ere badira.

Iturriko ura sartzen dizutenak, alegia. Berandu da nirea nola zegoen ohartzeko. Botila ezpainetan dudala egin dut atzera eta Moctezumaren

Mendekua da burura datorkidan lehen izua. Baina baduzu beherakoa baino okerragorik.

– Hildakoak ere izaten dira gaurko egunez. Kontuz diruarekin, jauna.

Txanpona eskuan jarri didanean ohartu naiz atzetik heldu nauen eskuaz. Kolpe txikia izan da, abildade ikaragarriz tira egin dit norbaitek niki barrenetik. Han nuen.

Bortxarik gabe atzeman naute umearen begi beltxek. Eta haiek ulertu nahian nengoela jarri dit eskuan orria, paper zuri mehea, panfleto politikoa inondik ere ukitu batera.

Emakumeari bai, baina umeari ez dut uste eskerrak eman dizkiodanik. Saltzaileak ez du eroslea gaztigatzeko keinurik egin, ezta umeak nola erabil daitezkeen propaganda politikoa banatzeko ezesteko ere. Eta elkar hartuta ere ez ote dauden susmoarekin jotzen duzu behera, tortila postu eta polizia izerditsuen artean, panfletoa eskuan duzula. Marinbak «Llorona» jotzen zuen. Peso eta erdigatik hirigunera jaisten zaituzten autobuszaleen deiadarrei entzungor ekin diozu Zocaloko bideari, urrats presatuz hasieran, gero eta lasaiago etxe artean zaren heinean. Es-

kuetan irristatzen sentitzen duzun izerdiak ahul bihurtu du panfletoa eta poltsikoan sartzen duzu azkenean. Atzera begiratuta, gero eta txikiagoa zaizu mendian eskegita bezala agertzen zaizun jendetza izugarria. Mundua. Musika entzuten da oraindik, eta umea da multzo hartan guztian gogotik kendu ezin duzun pertsona bakarra, paper guztiak esku artetik ahitu ezinik.

## –3–

Jordiri aurrean jarri dion tamala hartu eta neure parean paratuta palmondo hostoa zabaltzeari ekiten diot. Ona du usaina, neurrian egosia orea.

– Nik asko estimatzen diat zuen herriko kantari bat.

Ilun dago eta aspaldikoa balitz bezala sentitzen duzu goizeko irudi zaparrada hura. Katedral aldera zabaltzen den plazatxoan ugaldu egin da jendea, batera eta bestera dabiltzan senaremazteak, ume saltzaileak, eskutik helduta dabiltzan maiteminduak.

– Zein, Laboa?

– Nola asmatu duk?

Umeak ikusita behatu dut neuk ere gora, arkupe sabaiko argitara. Fluoreszenteen bueltan, erlotsak biltzen ditu paseatzaileen begiak. Gozoen postuetatik argien berora etorria da erletza. Begiez erantzun diot, *zeinekin uste duk hagoela* esanez bezala, gehiegizko konfiantzarako bide izan daitekeen irribarrerik atera gabe.

– Ni egonda nagok Aberri Egun batean, Iruñean.

Mariatxiek *Demetrio Jauregui*-ren lehen notei eraso diete. Jordik gutxi du zapoteken isiltasunetik ordea, eta etengabeko aitorpenari lotzen zaio. Oso maite dituela euskaldunak eta lagunak ere badituela Donostia inguruan, ea ezagutzen dudan Iñako deitzen duten bat, ez dakiela abizena, baina gustura itzuliko litzatekeela eta deituko didala hala nahi badut, *Donostia ingurura, Bilbo oso erdalduna duk*.

– Ama diat Euskal Herrikoa.

Zaila egiten zaizu Jordiren jarioari ihes egiteko aukeratu dituzun bi hariei batera jarraitzea; Jaureguiren koplei batetik eta Olinpiaden karie-

tara ostatu barrutik kanpoko mahaietara aterata dauden telebistako igeriketa saioei bestetik.

*Decía Don Demetrio Jauregui*
*abrochándose un zapato:*
*– Aquí traigo hartos casquillos*
*pa' divertirnos un rato.*

Ez dakit zenbat denbora egin nuen horrela, tamala gutxika-gutxika zatitu eta garagardoa beste munduan ibiltzeko kantinplora bakarra hura banu bezala edaten, euskaldunoi buruzko erretolika nekagarria noiz ahituko zitzaion zain. Tartean, egon zen errekor olinpikoren bat –irribarre handiegia zuen harmailetara agur-agur egiten zuen neskak–, eta Demetrio Jaureguiren errebolber harroa ez izana deitoratu nuen.

– Chiapasera joango haiz hemendik, ala?

Azken hogei minutuetan lehenengoz behatu nion aurpegira. Luzeska zuen sudurra eta larriak begiak. Igerilariak piszinan bezala egin zuen irribarre.

– Ez diat uste.

Victoria tragoa jo eta Atlanta-ko igerilekuan murgildu nintzen berriro ere. Ez zitekeen ibilbide bera izatea, baina hala genuen, damurik.

– Nahi baduk, elkarrekin egingo diagu bidaia –jarraitu zuen–. Ni zapatisten jardunaldietara noak.

– Utziok, benetan. Jende gehiagorekin nauk. Eta kostara egingo diagu seguruenik.

Mariatxiak hurbildu zitzaizkigun berriro, ea aire berezirik entzun nahi genuen galdezka. Esne-mamitan ikusi gintuzten nonbait. Inondik ere, hura nuen unerik egokiena.

– Emaizkiok eskumuinak Marcosi.

Arraina bezala irristatu zitzaidan Jordiren eskua agurtu ginenean.

## –4–

Agudo gurutzatu nuen Zocaloa inguratzen zuen galtzada, eta ez nion urrats presatuari utzi magnolioen babesera heldu nintzen arte. Udaletxe arkupeetan bizturik segitzen zuten argiek. Guelaguetzaren aitzakian hirira astebete lehenago heldutako artisauak postuak jasotzen ari ziren. Zocaloa alderik alde zeharkatu beharra zegoen jenderik gehien zebilen zabalgunera heltzeko-

tan. Han zaila izango zen berriro elkar topatzea. Orduan ohartu nintzen panfletoaz, bi aldiz tolestua eta izerdiz bustia. Izenburuaz gain, irakurri gabe nuen oraindik:

*Cerro-ko Astelehenaren handinahiaz, Estatuko Gobernuak eta Gobernu Federalak gure herriaren errealitate indigena eta nekazaria ezkutatu asmoz, Oaxaca-ren alde ustela erakutsi nahi dizute. Baina beste bat da gure eguneroko aurpegia: umeak eta emakumeak zer janik ez dutelako, medikurik ez dutelako hiltzen dira; milaka eta milaka dira biderik eta argindarrik gabe bizi diren komunitateak; jendea lur larratz zati batengatik hiltzen da borrokan, eta bien bitartean, funtzionarioak etengabe ari dira aberasten.*

Alde bietara behatu nuen, nor ote so. Baina han ez zegoen begirik musikarako baino. Ilunduz gero ari zen kioskotik Udal Banda. Harantzago, Oaxacan Espainiako euskaldunak eta espainiarrak batu ohi diren kafetegi ertzean, sei laguneko marinbak etengabe jardungo zuen azken bezeroek atzen-atzena eskatu arte. Beste muturrean, *La Primavera* atarian mariatxiek egiten zieten aurre gauari eta halabeharrari.

*Zuk, gobernuak «Guelaguetza» deitzen duen festaz gozatzen duzun bitartean, eta itxura batera bertako eta jator diren jantzi eta dantzez maitemintzen zaren bitartean, Armada komunitate indigenetan sartzen ari da, herritarrak droga edo gerrilarien bila dabiltzan aitzakiaz izutuz; oposizioko militanteak hilik agertzen dira, eta dena hauteskunde demokratikoetan garbitasuna eskatzeagatik; milaka dira euren lurrak utzi eta inolako gizarte segurantzarik gabe langabe izatera bultzaturiko laborariak.*

Berandutzen ari zen eta hurrengo egunean egin beharreko gauzek asaldatu ninduten. Panfletoa UCDk (Laborarien Batasun Demokratikoak) sinatzen zuen eta hilaren 29an Oaxacatik Mexico DFra egin asmo zuten martxara deitzen zuen. Umeaz oroitu nintzen, poliziaren behakotik ihesi panfleto banatzen.

*1. Answers for all social demands.*

*2. Militar repressions stop.*

*3. Solutions for all political problems.*

*4. A piece of land for all.*

*We Are Demanding Justice Peace and Democracy* aldarrikatzen zuen ingelesezko testuak

gaztelerazkoaren eskuinean. Bakarra duzu hizkuntza politikoa mundu guztian. Baina gaztelerazkoaren eta ingelesez baino egon ez izanak zerbait esan nahi zuen. Turistentzat zen airera zabaldutako paperezko bandera hura. Ixkatekez oroitu nintzen. Hamazortzi lagun izateak ez zien eskubiderik ematen salaketa euren hizkuntzan jasotzeko.

Hodei zarratua osatzen zuten zeru azpian magnolioen adarrek. Panfletoa tolestu eta poltsikoan gorde nuen. Haizea kontra, platano frijitu berriaren usaina zetorkidan propano kriseiluek ipurtargiak bezala hedatzen ziren gauaren ataletik. Harantzago, eta desioa gogoan gorde ostean, katedraleko hormaren kontra hausten zituzten turistek buñuelo ontziak. Zapoteken usadio zaharra duzu buztinontzia mila zatitan lehertaraztea. Eta are debozio handiagoaz errepikatzen zuten bisitariek, gurariak mami bihurtuko direlako esperantzan.

Mila zati. Oaxaca bezain hautsi.

Hotel Francia-rako bidea hartu nuen. Zocaloa turistentzat *gune aske* legez gordetzen zuen poliziaren aurretik pasatzerakoan, gordean bezala

irakurri nuen berriro Mexikon naizenetik ikusi dudan lehen pintada politikoa: *FAC-FLN, Presente.*

Oaxacan zaude.

*Hausten ari zen bihotz bat bezalakoa zen hitza, erauntsiaren erdian itotako kanpaien dunduna, basamorturen batean hilurren den egarritu baten azken silabak.*

Munduko hiririk ederrena.

## Agustin de Iturbide

Baztandik Peraltara, eta handik Michoacanera etorria zuen aita. Euskaldunen alaba zen ama, emazte duen Ana Maria Huarte den bezalaxe.

*Dragon de Fierro* deitzen dute, eta harro dago: ondo irabazia du izena. Fernando VII.a Espainiako erregek Mexiko oraindik manumitugabean duen zerbitzaririk onena izateak burdinazkoa eta dardararik gabea eskatzen dio eskua. Urteak eman ditu zaldi gainean, legoak eta legoak koloniaren burujabetasunaren alde borrokatzen diren kreoleen atzetik. Eta harrapatu orduko fusilarazten ditu.

1821ean, Mexikok independentzia aldarrikatzen duelarik, inork gutxik ulertzen du zer gertatu den. Paredoiak balaz jantzi dituena da enperadore izendatuko dutena. Horregatik ez dute *Askatzaile* edo *Aberriaren Aita* deituko.

# CHIAPASERA BIDE BAT

## –1–

Mexikon, berdin ipar zein hegoaldean, nekez aurkituko duzu konformidadean autobusa baino garraiobide erosoagorik.

– Trenak badituzu, baina ohoinak ere bai –gaztigatuko dizute burdinbideagatik galdetzen duzun aldiko.

Eta egon badago. Barruti Federaletik hegora hartzen duzula, Puebla-ko ordekatan, belaze berde eta hilerri txikien artean lasterka ikusiko duzu aldian-aldian. Haatik, merkantzia garraioan gehienetan, Pancho Villak maldan behera dinamitaz beteta bidali ohi zituen muturbeltz haien oso bestelakoa egingo zaizu begietara. Orain iraultza ez datorkizu trenez.

– Auto onak ere badituzu, baina poliziak ere bai.

Mexiko mundu guztian ezagun egin duen *mordida*-k ez dio atzerritarrei ere barkatzen. Horregatik eta beste mila arrazoiengatik ikusiko dituzu autoak hiri handietan bakarrik. Gasolina zure iritzirako merke isurtzen den arren, kotxe gutxi da hegoaldeko errepideetan. Autobusez egingo du jendeak batetik besterakoa. Eta horregatik, ikasi ere egin duzu, ez zara harritzen Oaxacako bus geltokian zinpeko zaintzaileak detektoretik pasarazterakoan soinean daramazun lehergailuak alarma saltarazi duenean.

– Gerrikoa izango duzu –diost.

Ohituta zaude. Nekez igoko zara ibilbide luzeko autobus batera metalezko ezer duzula aldean. Berdintsu izan da Mexiko DFtik irtetean. Berdintsu izango da San Cristobaldik iparraldea jotzeko.

– Atrakoak asko ugaritu dira azken aldian, *güero* –ez duzu kirol nazionala, baina berrogei bat urteko gizona da orain Mexikoko arriskuez ohartarazten nauena. Mestizoa gehiago indio-indioa baino. Trajeak salatzen du.

– Irakurri dut kartela.

– Ez alferrik, egokitzen bazaizu. Lapurrak bidaiari moduan igo, autobusa erdi bidean asaltatu eta bidaiari guztiak zuritzen dituzte.

Gogorra da esanez bezala okertu ditut masail eta ezpain mintzak, baina ez bion arteko solasaldiaren amaiera adierazteko beste. Pozten naiz poltsan daramadan labana ikusi ez didalako.

– Ez dakit zer gertatu behar duen hemen. Geltokira etorri aurretik entzun dut telebistan hogeita hamahiru lagun garbitu dituztela aste bitan Michoacan-en.

Neuk ere entzun dut, baina ez diot ezer esan. Nahikoa lan dut poltsak autobusaren sabelean sartu, resguardo muturra jaso eta gerrikoa lehen nuen moduan janzten.

– San Cristobalera?

– Bai. Zenbateko bidea dugu?

Galdetu beharra nuen. Atzo, biletea hartu behar genuelarik Oaxacatik San Cristobalerakoa egiteko hamaika ordu behar genituela esan baitzigun konpainiako neskak. Gehiegi bostehun kilometro egiteko.

– Zazpietan helduko gara.

Arratsaldeko zortziak dira. Hamabi ken bat, hamaika, ebazten dut. Beherapenik ez beraz.

– Ez.

Euskal Herrian ez duzu honelako autobusik primeran. Bidaia luzeetako denak bezalatsu, kafe-makina eta komunak ditu atzean. Bidaiarietan, europarrak dituzu gehiengo, frantsesak eta italiarrak nagusi. Izan ere, Chiapas beti izan da bidaiarien helmuga. Lehen, Palenque-ko aztarnategi arkeologikoarengatik, Aguazul edo Montebello-ko ur jauzi eta aintzirengatik edo, besterik gabe, mendi aldeko herriengatik. Orain zapatismoaren xarma bera da amu.

Atzera behatu eta eskua altxatuz agurtu nau lehengo gizonak, *Michoacanen hogeita hamahiru!* gogoraraziz bezala.

Oraindik ilundu gabe, jolas polita bihur daiteke atrakatzailea nor izan daitekeen asmatzea. Ez dakit ohitzen ari naizen hemengo prentsa irakurtzera, ez dakit noraino diren fidagarri, baina albisteak aintzakotzat ez hartuta asmatzen duzula ebatzi duzu. Nekez mugituko zinen bestela DFko hoteleko gelako aterpe babestutik, hiri gainean

*smog* txapela eta hildakoak estatistika beldurgarri bihurtuta orduroko informatiboetan.

## –2–

Alaska eta Txile-ko orpoa lotzen dituen Errepide Panamerikarra hartuko du autobusak. Gogoz sakatuko dio txoferrak. Saka dakioke, errepide arteza da eta auto-argi gutxi dator aurrez. Tule, Teotitlan, Tlacolula... herenegun *mescaleria*-ra bisitara joandakoan baino arinago jaten ditu orain autobusak Oaxacatik irteerako lehen kilometroak. Gauak kolore arre politak ezartzen dizkio Zacariasen etxeari, eta buruz ekiten diozu hark meskalaz esandako guztiak gogorarazteari.

Itzultzen naizenean, neuk ere aurkituko dut Zacariasek eman didan *agavea* non sartu, Euskal Herri guztia korrituko dut orain Mexiko hegoalde hau bezala lur egokia aurkitzeko poltsan ondo bildua daramadan landarearentzat. Zortzi, bederatzi urte ondo hazi arte, zuztarrak *akote* ezean haritz egurrez berotutako labean egosi, dolarean jo eta neuk ere zeuk bezalaxe edukiko ditut zu-

rezko barrika zaharrak, Zacarias. Lau egunez oreak ondo irakin dezan destilatzen ekin baino lehen.

– Harrik nahi?

– Harrak?

– Bai, harrak. Ez al dakik zer diren harrak?

Zacariasen emaztea, Maria, aitaren batean dut ondoan, platertxoa luze, baina nire ausardia ez duzu berehala agertzen den horietakoa.

– Hango *magüey*-ek izango dituzte bada harrak!

– Baina... han ez dugu ia kaktusik.

– *Magüey*-a ez duk kaktusa, *güero*!

Mariak gatzetan lehortu eta frijituta ekarri izanak asko errazten du gero gustura mamurtzeko lana. Botila ipurdietan ikusita bai, lehen aldia da ordea nazkagarrikeria hauek jaten ditudala, Zacarias. Baina niri ez didazu beste horiei bezala barrerik egingo. Ez bat, bi, hiru. Bost, zazpi hartuko dizkizut, eta ez harrokeriagatik, probatzen hasita txarrak ere ez daudelako azkenean hirugarren meskaletik aurrera.

– Meskala naturalagoa da tekila zahar hori baino! Honen ke zapore hau!

Eta sinesten dizut. Zapotekok destilatzen ez zenekitela eta espainolek egin zintuztela zale esan didazuenean bezala. Mexiko estatuan umeari bularra emateko emakumeek *pulque*-a edaten dutela bota duzunean bezalaxe. Alkohola eta bizitza, istorio txiki asko. Larregi gogoan gordetzeko. Utziozu. Ba al dakizu zenbatetik eman didazun dastatzeko? Bai Zacarias, nik ere egin ditut meritoak zapoteka izateko. Benito Juarez bera baino zapotekagoa nauzu honezkero!

## –3–

Ez dakit zenbat lo egin dudan, ez dakit zenbat iraun duen etengabeko jaitsierak, behin eta berriro errepikatzen ziren bihurguneak, galga hotsak, aldats beltzak, bertan geratutakoen omenezko gurutze zuriak eta sastraka zantarrak errepideari ertzak jartzen.

– Erori egin zaizkizu.

Kresal usaina. Autobusak astiro ekiten dio orain, burdina trentzatuzko zubian aurrera. Ozeano Barea dago eskuinean, kilometro ba-

tzuetara oraindik. Potin txikiak errio hegian amarratuta.

– Non gaude?

– Tehuantepec-en –erantzun dit loeroan nengoela erori zaizkidan egunkariak jaso dizkidanak. Frantsesa, doinuarengatik.

Elurra dago bideoan. Amaituta behar du gidariak Mitla-ra heldu orduko jarri digun filmeak. Trumoirik gabe, ostargiak kristalean irristatzen dira. Atzera behatzen dut. Autobus erdia itzarria dago korridoreko argi motelen eztian. Errepidea lauagoa da orain eta Tehuantepec izen ozen bat baino zerbait gehiago nire belarrietan. Hau duzu inoiz estatubatuarrek Panamako ubidearen gaineko eskubideak galtzen badituzte ozeanoen arteko pasabide berria egingo duten estugunea. Berrehun kilometro eskas daude Atlantikotik Barera.

Buru gainean dudan argi txikia biztu eta autobusera igo aurretik erosi ditudan egunkariak gainbegiratzen gurutzatuko dut lautada:

«*Kazetariek arazoak dituzte zapatisten Aguascalientes-etara heltzeko*».

Frantsesak dira. *Arte*, *Planeta* eta *Canal Plus*-koak dira Armada mexikarrak zapatisten «Gizateriaren alde eta neoliberalismoaren kontrako topaketetara» zihoazela atzeman eta atzera bota dituenak. Arazoen hasiera baino ez da. Izango da gehiago ondorengo egunetan. *La Jornada* izango duzu gobernutik ezarri oztopoen salatzaile ia bakar. Horretan datza hain zuzen zapatisten trabesa. Ikusten da. Ondo neurtutako jokaldia dute atzerriko prentsa gonbidatua ozengailu legez erabiltzearena.

Baduzu kontrako albisterik ere ordea. EZLNk *Le Monde*-k igorri duen kazetariari betoa ezarri diola-eta adierazpen-askatasunaren aldeko agiria dakar gutunen orrialdeetan, beste medioetako jendeak sinatua.

Osterantzean, karriketan eta errepideetan sumatzen duzun aire horren baieztapena da *La Jornada*-ren lehen orrialde betea. Barruti Federalean, FAC-MLNk martxa burutu du egunotan Guerrero eta Huastecas-ko desmilitarizazioaren alde. Hogei hizlari izan da azkenburuko ekitaldian. Barruko orrialdeetan, erabatekoa da Espainia eta Mexikoren arteko estradizio itun berria-

ren aurkako jarrera. Hemerotekak Guelaguetzaren karietara Oaxacako ezkerreko taldeek argitaratzen dituzten buletinetako baten galdera jaso du:

«*Zer egin du gobernuak 75 mila turistek utzi dituzten 45 milioi pesorekin?*».

Autorik ez, kamioiak, kamioi erraldoi amerikarrak baino ez errepidean. Bidea gorantz kiribiltzen da suak argitu digunean bihurgunerainokoa. Kamioi bat da, irauli eta gurpil gora geratu dena. Zamaren edo gidariaren arrastorik ere ez galipot gainean. Gau guztian izango da su gehiago, karburozkoak iruditzen zaizkizunak ikusi batera. Ez dituzu istripuak seinalatzeko, kontrol militarrak adierazteko baizik. Pankartak letra gorriz: *Alto Total*. Ozta-ozta ikusiko dituzu, soldaduen itzalak jeep baten ondoan, Volkswagen bat gerarazia bide ertzean. Chiapasen behar dugu honezkero.

75 mila turista! Zenbat esan nizun, hogeita bost? Hogeita hamar? Berrogei? Ezin txarragoa naiz kontuak ateratzen, Zacarias. Har gehiago jan beharrean naiz burua argi izan nahi badut.

Begiak biltzen zaizkit. Zikin sentitzen dut neure burua, izerdiak erretzen nauela. Lo egin. Begiak bildu eta ez zabaldu txoferrak San Cristobal esan arte. Lo egin eta gau guztia iraun duen amets luzetik deskantsatuta irten. Ordea urduriegi nago eta ez dut asmorik Michoacango hogeita hamahiruek lo nagoela harrapa nazaten.

## –4–

Goizeko bostak dira autobusa Tuxtla Gutierrezko geltoki nasan geratu denean. Orduan ohartu naiz: txofer bakarrarekin egin dugu gau guztia. Alkandora urdina eta gorbata Oaxacan igo denean bezain txukun ditu geltokiko argitara. Asko dira jaisten direnak; nekatu itxuran gehienak, besoak luzaka, mangutasuna kentzen asko. Michoacango asasinoa tartean.

– Zer, aurrera segitzen al duzu?

– Bai. San Cristobaleraino.

– Ondo segi orduan. Pozten nau zu ezagutu izanak.

Poztu! Michoacango hogeita hamahiruak bere atzetik jaitsi dira, itzal huts denak, nire moduko beste norbaiten bila seguruenik, izua nola sartuko. Arindu ederra hartu du autobusak, kafea hartzeko aukera ona da eta igo diren bakarrek ez dute asaltatzaile itxurarik.

Tuxtla Gutierrez beti zabala atzean utzi eta Chiapa de Corzo-ra heldu orduko hasi du eguna zabaltzen. Estutu egiten da bidea berriro ere gora egiten dugun heinean. Eskuinera, eta zabalgune batean, erdi jausitako seinale batek Cañon del Sumidero-ko bidea erakusten du. Hauek dituzu lurrak. Lurrotan zapuztu zituen Luis Marin-ek harridurak eta izuak estututako tzotzilak eta tzeltalak 1524an. Lurrotan gorde ziren haien ondorengoak Diego Mazariegos-en atzaparretatik zortzi urte beranduago.

Egun, indigenak barik turistek hartzen dute arroilerako bidea. Kolore biziko txalekoak soinean, motore indartsuko txalupa alokatuetan egiten dute presarainokoa Grijalba ibaian behera. Branka azkarren pean hautsiko dira ur mintzean sustraiak zabaltzen dituzten igelbelarrak; pelikanoak, kurriloak, koartzak eta ubarroiak be-

tirako bezala pausatuko dira urtegiak irentsi gabe utzi dituen arrametan. Bideko leku ikusgarri orotan mantsotuko du txalupak berez dakarren oldarra. Krokodiloa ikusiko dute ibai hegiko basan. Eta hotzikaraz sartuko da untzitxoa Isiltasunaren Kobara, saguzarrak so dituela harrizko sabaitik. Norbaitek Zilar-Haria seinalatuko du atzamarrez hura ikusi orduko. Gehiago gustatuko zaie ordea denei Gabon-Arbola. Izan ere, ederrak dira mendi-negarrak ibaitik. Txalupak motorea amatatu du.

– Mila metro daude han gora.

Gidari gazteak, Chicago Bulls-en bisera gorribeltza atzerantz bota eta begiez seinalatzen du labarrean hazitako txarara. Mila metroko desnibela ibaitik pareta egiten duen tontorreraino. Ez du ezer gehiago gehituko, turistak ondo hartuko du argazkia. Ez alferrik da Chiapasko armarrian agertzen den bera: Hiru Hormak. Hortik aurrera, samurragoa bihurtuko da bidea Chicoasen-go presaraino. Buruan, eta beti harro, presako langileen omenez eraikitako monumentu ikaragarria –errealismo sozialista Mexiko neoliberalean– eta Chiapastik haratago, Errepublika guztira

elektrizitatea hedatuko duen indarretxe modernoa.

Gogaitua nago. Gogaitu egin naiz hildakoak imajinatzen. Gogaitua milaka indigenen mila metroko amildegian beherakoa ikusten Mazariegosen zaldien apatx gorrietatik ihesi. Salto egitea erabaki baitzuten hil eta herio heldutako konkistatzaileen gatibu izan baino lehen. Irudi gaiztoa duzu autobusean zoazela gogoratzeko: hildakoak euritan turisten txalupa gainera erortzen. Hemen gaude. Lehenago eman ibaiari gure gorputzak espainolari baino. Ulertzen? Hil-euria ari dizu. Heldu orduko harrapatuko zaitu lur hauetan zaren bitartean utziko ez zaituen euri xehe, zirin, akigarri, errukigaitz honek. Eta horrelaxe, euria bezain ezti, usadio zahar bat balitz bezala agertuko zaizkizu errepide bazterretan Chiapasko Gainetara heldu orduko, egur fardel handiak soin-soinean, uhalaz kopetara betirako loturiko egurketan.

Hildako biziak. Autobusaren kristalari itsasten zaion lainoa. Eta aski da.

# Bi iraultza azken baterako

1712a da Maria Candelaria izeneko neska batek Ama Birjina ikusi duela dionean. Mendi zarratuetarik, milaka lagun datoz oldean bidezidor malkarretan behera, eta umeak *hemen da* dio. Elizarentzat ez da agerpenik. Lurrarekin berdinduko du Cancuc-en harriz jasotako aldarea. Iraultzak hor hartuko du indarra. Mendietan behera, sei mila dira espainolen kontra harrotu diren tzeltal ezergabeak.

1868an, Chamulan, beste neskato bat da harriak seinalatzen dituena. Harri gorri haiek dira Jainkoaren boza dakarkiotenak. Ondorengo asteetan, harrion inguruan antolatuko da gosea. Mexiko hiriburuko gizon bat da, Igancio Fernandez Galindo, matxinatuen buru jarrita *Lurra!* eskatzen duena harrietan sinesten duen herriarentzat. Bietan, hartu orduko itzaltzen da sua. Chamulan, gurutzean josiko ditu Mexiko berriak zerua urrutiegi ikusten zuten buruzagi indigena haiek.

# IZENGABEA

## –1–

– Pasaportea mesedez.

Eguzkitako antiparra ilunekin, ile beltza gominaz atzeratua, telesail merke batetik ateratako itxura du polizia gazteak.

– Eta bisa?

Altzoan daramadan liburutik atera eta ematen diot eskura migrazioko paper urdina. Ez du behatu ere egiten. Pasaporte barruan sartu, eta besteen multzoari erantsita jaitsi da autobusetik.

Altamirano-ko etxeak abegikor ageri dira aurrean. Kilometro batera gaude, *migra* postu batean, eta luze joango da pasaporteen egiaztatzea.

– Nongoa zara?

– Euskalduna.

– Euskalduna! –harritzen da korridorean auzoko dudan mexikarra–. Espainola ez orduan oraindik.

Zerbait badaki. Raul deitzen da, eta mediku homeopata da Veracruz-en. Bosgarren aldia da zapatisten eremura datorrela. Ez dakit, baina ezagun du patxadan.

– Beti duk berdin. Guri berdin zaiguk, ondo ezagutzen gaitiztek, baina zuena duk pena, ez duzue erraza izango berriro Mexikon sartzen.

– Irabaziko ote duzue ordurako!

Oso zabaldua duzun legenda beltza da lurralde zapatistara hurbiltzen diren euskal herritarrena. Filmatu egiten dira, ahotsak grabatu, komisaldegiratu. Batzuei ez zaie bost egunerako bisatua baizik emango. Fitxaturik zeuden heltzerako, eta horregatik, Guatemalara joan beharrean ziren berriro sartu nahi bazuten. Iaz harrapatu zituztenak zorte okerragoa izan zuten: hegazkinean bortxaz sartuta egotzi zituzten Mexikotik. Guk, antolatzaileek esan bezala, mugalari profesionalen perfekzioz ditugu gordean kredentzialak, prest gaude galdeketarako –«turismoa egiten ari gara»–, baina poliziak ez dizu ezer galdetuko. Jakinaren gainean daude. Harrapakin errazegia gara.

– NBEko autobusa ematen dik honek!

Eta hala da. Zapatistek neoliberalismoaren aurka antolatu jardunaldietara egun eta erdiko atzerapenez doan autobus txikiak zail du kamuflatuta pasatzen. Badituzu mexikarrak, kolonbiarrak, frantsesak, italiarrak, ipar irlandarrak... eta veracruztarrak atzeko furgoneta txikian –agudo ikasten duzu *combia* esaten–, musika jotzeari utzi gabe. Alferrik da. Horrelakoak dituzu Chuchumbe taldekoak.

– Barazki erostera gatoz –azalduko diote poliziari combitik jaitsi orduko.

Poliziak ez die erantzuten. Ofizialki, zapatistak baino langile ilegalak, paperik gabeko guatemalarrak eta salvadortarrak atzemateko dituzu kontrol postuak. Ez dituzu higikorrak, lurrari erantsiak daude kabinok zapatisten kontrolpeko lurraldeen mugetan. Pentsatu baino errazago pasatuko gara. Multzoan, EZLN eta Gobernuaren arteko akordioaren berme gara.

– Dena ondo dago. Ondo ibili.

Izan dute nahikoa asti zenbakiak hartzeko. Galdeiguk guri nora goazen, egiten diot oihu poliziari. Begira ondo, turistak gaituk! Baina nire baitan nonbait. Ordu laurden inguru eman dugu

bide ertzeko postu ondoan geratuta, eta bakoitzak bere pasaportean arakatzen du, bisan zerbait idatzi ote duten, Mexiko utzi arte aldean eramango duzun paper urdina han dagoen araka.

– Nahi baduk gal ezak pasaportea, dirua, baina bisa sekula ere ez –diost Laurak Raulen aldameneko aulkitik–. Bisarik gabe, galduta hago.

## –2–

Cuauhtemoc Cardenas-en PRD ezkertiarreko alkatea duen herria duzu Altamirano, eta ezagun du. Esku azkar batek *Viva Zapata* idatzi du polizia retenaren ondoko horman. Lur-zakuen bestaldean, karta-jokoan ari dira hauek. Kasko eta soin-antibala urdinak dituzte eta autobusari irribarre burlosoz behatzeko baino ez dute eteten jokoa. 1994ko Urteberritan, Armada ez, Polizia izan zen Altamiranoko Udal Jauregia defenditu zuena. Ez alferrik. Zapatistek, gehiago eta trebatuagoak haien aldean, ordu gutxi behar izan zuten udaletxea eta polizia mendean hartzeko.

– Hemendik aurrera zapatisten lurretan gaituk.

Irakurtzen bezala behatzen diozu basoari, non zer ageriko. Zohizko azken etxeen ondoren, lurrezko pistan barrena sartu da autobus txikia. Paisaia, errepidearen erritmoan ordura arte, nagusi eta harro bihurtzen zaizu begi urdurien aurrean.

– Hauxe duk.

Irribarre zuria egiten dizu, Euskal Herrian ez duzue hainbeste pinu esaten bezala. Ez dakik ondo Raul. Pinuak bai, zapatistak ditiagu bestelakoak. Euria, zirin eta lardats ordura arte, egoskortzen ari duzu. Sendo ari du orain.

– Zapatisten lurraldea!

Azkenik, zubi txiki baten gainetik pasatuta, mendeak, historia bera banatzen duen paraleloa zeharkatzen du autobus txikiak. Iragana eta etorkizuna. Gatibutza eremuak eta lurralde liberatuak. Hala da, ezin gainetik ken *beste nonbaiten* egote hori. Atzean utzi dituzu azkenean ikasi dituzun bizitza legeak, koordenada ezagunak. Oaxaca ez da oroimen lausoa baino. Hemendik aurrera alferrik dituzu Michoacango hogeita ha-

mahiruek oraindik ebatsi ez dizkizuten pesoak, azken dolarrak. Alferrik Espainia eta Mexikoren arteko akordioak. Hemen beste batzuk dituzu legeak 94ko Urteberri egunetik. Eta harrotu egiten zara: pozten zaitu kontsulaturik ez izana.

– Munduko legedirik zintzoena ditek.

Zintzoena, ez dit onena esan Raulek, eta ulertu diot, hori esan nahi zidan arren. Munduko lur legerik onenak Zapatak 1917an izenpetu lege iraultzaileetan ditu sustraiak eta EZLNren menpeko herri guztietan dago indarrean. Sinplea da, atalka emana, eta lanari, industriari, merkataritzari eta gizarte segurantzari dagozkienak bi orrialdetan sartzen dira: *Lehena. Abandonatutako umeak gertuen diren auzoek babestu eta elikatuko dituzte –EZLNren kontura beti ere– agintaritza zibilen esku utzi arte. Hauek zainduko dituzte 13 urte bete arte. Bigarrena. Familiarik gabeko adinekoak babestuko dira. Lehentasuna izango dute logelak eta doako janari kupoiak jasotzeko unean. Hirugarrena. Gerra eriek...*

– Gerra legeak dituk baina –botatzen diot, zerbait esan behar eta.

– Eta zer dela uste duk hau?

Euriak zar-zar jarraitzen du autobusaren txaplata metalikoaren gainean. Ohartzerako, zelai zingiratuei uzten die tokia basoak. Lehen animaliak, behorrak, berriki ipurditik ateratako zuhaitzen sustraien kontra irurka. Argiak hartzen gaitu. Palmondo bihurtu dira pinuak orain.

– Paraje zigortua duk hau.

Laura eta biak zapatisten babesle elkarrekin egon ziren aurreneko aldia dakarte gogora. Orain zuk lehenbiziko zurezko etxaguntzak ikusten dituzun soilgunean Armada mexikarraren blindatuak zeuden orain ez hainbeste. Milaka pertsona Mexiko guztitik hurbilduak Armadak komunitate zapatistak zaputz ez zitzan. Orduan, sei mila lagunentzat antolatu zuen EZLNk Guadalupe Tepeyac-eko lehen Aguascalientes hura. Aulki luzeak maldan gora, bapore itxura zuela diotsu Laurak, Lacandona erdian hondoa egindako untzi handi bat. Ilusioa. Ametsa. Fitzcarraldo, deitzen zion Marcosek. Han ibiliak dituzu Laura eta Raul.

– Heldu gaituk.

# –3–

Laino eta palmondo artean agertu da Morelia. Umeak diosal eginez datoz bidera. Gogotik segitzen du zaparradak etxeetako lastozko teilatuen gainean. Geratu gabe, herria pasatuta, aldero, beste kilometro bat inguru egiten du autobusak aurrera, lokatz artean beti, abiada gero eta mantsoagoan. Ezkerretara, ustekabean zabaltzen da bidea. Ohol ebakiberriz eraiki txabola batean Emiliano Zapataren irudia ageri da Aguascalientes IV-ra ongi-etorria ematen dizun pintadaren azpian. *Lurra eta Askatasuna*. Hesolaz eta txarrantxaz ixten zaizun pista.

Kontuak ateratzen dituzu. Bi ordu eta erdiko bidea San Cristobaldik irten dugunetik. Ordu erdi bat azken polizia retenetik, baina orain seguru zaude. Bidera noiz irtengo dizuten egon zara Altamirano atzean geratu denetik. Kapusai eta armarik gabe, porrarena egiten duen besaulki hanka bana gerrian, lepoan zapi gorriak *–paliakateak–* dituztela arrimatu dira autobusera. Zapatistak dira. Oinez pasatu behar da kontrola.

– Izena duk polita –diotsot Rauli.

– Izena?

– Bai, Aguascalientes.

– Badakik zergatik den, ez?

Neu erori naiz neure amarruan. Mexikoko Iraultza garaiko apunteak eskaneatzen ditut nire gogoan. Zapata, Villa eta Carranzak elkar topatu zuten hiria ote den errezeloak aterako nau ataka honetatik zerbaitek ateratzekotan.

– Topaketaren sinbolo legez? –botatzen dut azkenean.

Ez nabil gaizki oraindik. Poltsak hartu eta ilaran paratzen gara txabolak erdi-erdian duen ate bakarraren parean. Atertu du.

– Eta Euskal Herrian, nola deituko zenukete?

– Zer gero?

– Hau, Aguascalientes, topaketa lekua.

Ez dakik ondo Raul, zer galdetu didaan. Eta zer erantzun behar diat orain gezurrik esan gabe. Carranzak bai, larregi aukeran, baina guk ez diagu Zapata eta Villa bezalako buruzagi bi Aguascalientes batean biltzeko. Elkar topatzen ez den jendea duk gurea. Zer erantzun behar diat, Maule, Iruñea Aberri Egunez? Maroño? Gaiztoago, gero hemengo beste euskaldunen

bat haserretu hakian? Ajuria Enea? Ez al diguk betizu traza hartzen, elkarren ihesi bizi garen jendea ez gaituk barren.

– Nola esan duk Iñigo?

Lokatzak har ez ditzan, zurezko kontrol-mahaitxoaren gainean zabaltzen duzu poltsa. Ozta-ozta hitz egiten dizute *castilla*-z eta agur esaten baino ez duzu ikasi tzeltalez. Alkohola eta labanak dira sartu ezin dituzunak. Horiengatik galdetuko dizute behin eta berriz. Alkoholaren debekua ez duzu baina oraingoa. Morelosko zelaietan, Emiliano Zapataren ofizial eta aholkularien artean baduzu zaldizko gizonen buru den emakume bat. Bakarra da eta Rosa Bobadilla koronela deitzen da. Harena duzu zurruta galaraztea. Zapatista izatea ez duzu jolasa eta bart gauean San Cristobalgo pentsioan Oaxacatik arrasta zenekarren azken botila meskalari eman behar izan diozun erremateak hartzen dizu orain gogoa.

– Labanarik?

Ia paso ematera zihoala atera zaizu kolaboratzaile bihotza. Inoizko katxeorik ederrenaren biktima izan zara. Transgresioaren eta kolaborazio-

aren artean egiten duzu zalantza. Polita behar du munduko poliziarik onenari ziria sartzea. Eskua izerdiak erretako arropa artean barneratu eta gaztak-eta ebakitzeko erabili ohi dudan labanatxoa ateratzen ikusi nau azkenik. Hitzik gabe, mahaian baztertu du. Ez naiz lehena. Bilduma ederra dute.

– Izena? –galdetzen dut neuk haren imintzioaren aurrean.

Ona duzu antolaketa. Lepotik zintzilik daramadan txartel urdinetik egonarriz kopiatu dute nire izena kontrol-koadernoan, eta labanari lotu: *Illego Aranboirri*. Letra hobetzeko promesa egiten dut. Irteeran itzuliko didate labana.

– Ez, zuentzat.

Ez didate ulertzen. Gozoago egiten ahalegintzen naiz, baina alferrik, antza.

– Zuentzat. Nik ez dut behar.

Raulek eskuak gora dituela behatzen dit. Ni baino zorrotzago miatuko dute medikua. Alde ederreko poltsa dakar nirearen ondoan.

Ilara handia dago kanpoan oraindik eta euria hasi du berriro ere. Hankak ezin kendurik nabil lurrari. Lokatza orkatiletaraino, barrakoi artetik

labainka igotzen den bide erdian pilatzen gaituzte. Sukaldetik ateratzen den kea mendian behera pinu artetik datorren behelainoarekin nahasten da. Arazoak izango ditugu hemen geratzeko, ez baitago nahikoa lekurik. Asko dabil antolaketa lanetan, paliakatea sama bueltan bai, baina aurpegia garbi gehienak. Neskarik ez, sasoiko mutilak dituzu denak.

– Komunitatean lo egin behar duzue –dio denen buru dirudienak.

Erraz hitz egiten du gazteleraz eta errukiz bezala behatzen dio euripean tximu egiten ari den taldeari.

– Morelian?

– Bai, han seguru egongo zarete.

Ez da harropuzkeriarik haren hitzetan. Hurrengo egunean, antolaketatik Altamiranora premiazko gauzak erostera joandako kamioi txikia asaltatuko du Armadak fusil muturrak leihoetatik sartuta. Serioa da segurtasunarena, haien gonbidatu zara orain, eta esan gabe, zeure kasa ibiltzea ezinezkoa duzula ematen dizute ulertzera. Ez hesitik kanpora bederen. Kamioian eta eskoltatuta egingo duzu beti herrirainokoa.

# –4–

Oholez egindako etxez osatua duzu Morelia txikia. Bonbila isiotzen dutenean ikusiko dituzu ohol artetik etxe barruak: altzairurik ez, oherik ez, habeetatik zintzilikaturiko hamakak eta freskagarri kaxak armairu bakartzat. Lokatzezko pistan beti, ezkerretara hartuko du kamioiak bidegurutzera heldu orduko, NBE guztia zutik atzeko kaxan, zelaiak bezain bustita euripean. Jendea dabil ezkaratzetan, elastikoz jantzitako gizonak, ahoa eskuaz estaltzen duten emakumeak agur-agur egiten. Belartza erdian porlanez egindako basket zelaiak adierazten dizu zein den plaza. Asto bat dago saskiaren posteari lotua. Kantina edo denda dirudien lokalaren atarian euriaren emanari behatzen diote kapeluz jantzitako zaharrek. Mendiak sutan bezalaxe daude, lainoa harrotzen.

Etxe berak, jende bera, basket zelai eta asto bera behar dute izan Leyva jeneralaren soldaduek 1993ko maiatzean Morelia eta San Miguel

artean, Corralchen mendilerroan barneratzerakoan ikusi zituzten irudi gozo bakarrak. Zazpi hilabete falta ziren artean altxamendu zapatistarako. Hilaren 22 eta 23an helikopteroen eta tankeen laguntza zuten mila bat soldaduk Las Calabazas hartu zuten, EZLNk paraje haietan zuen kanpamendurik handiena. Hildakoak eta atxilotuak egon ziren. Baina hala komenita, gobernuak beste era batera jantziko du informazioa: legez kanpoko ekintzetan zebiltzan gizon-emakumeak ziren haiek, ez EZLNko miliziarrak. EEBBek eta Europak horrenbeste goratzen zuten Salinas de Gortari lehendakariak arrazoi sendoak zituen gertatua ezkutatzeko: ez zituen Chiapaserako inbertsioak uxatu nahi.

– Hartu behar duk ederra horrela!

Cali-ko *cartel*-ekoen irria dute kolonbiarrek. Gauza ederra behar du txintxorroa jartzen ez dakienaren kontura barre egitea herriko eskolara eraman gaituzten zapatista isilak ere konplize dituzula. Ez da erraza ordea teilatu azpiko habepetik soka pasatu eta altuera ondo neurtzea argia urri denean.

– Guk hortzak irteterako ikasten diagu –diost Eduardok, bibotepean eder hortz zuriak.

Horregatik lehenago neureak hautsi hiri eskatu baino, Edu. Eta Bermeoko tostartekoen kofradia guztiak ez askatzeko moduan estutzen ditut nirearen txikotak. Arbelean, teokrazia zer den azaldu die maistrak haurrei opor aurreko azken egunean. Esku polita izanagatik ez dut irudikatzen ahal.

Hesian bestaldean, argiak biztu ditu kamioiak.

– Zikloiak harrapatzen hauenean horrela duk, hiru egunetarako zaparrada etengabea –gaztigatu dit Raulek.

Herri ipuin tzotziletan, Vaxakmen duzu jario eta isurkin guztien iturburu. Iluntasunaren munduan batetik bestera zihoala, txiza egiten zuen lekuan sortu ziren aintziretako urak, urmaelak, errekak eta iturriak. Mundua zen oihuka mintzo zena.

Olatuak balira bezala mugitzen dira hamaka eskegi berriak. Zapia aho-sudurrak estaltzen, kristalik gabeko leihotik duzu beha labana kendu dizun miliziarra. Kamioiak begiak bizten ditu.

Mugitu beharra dago. Aguascalientesera igo behar gaituzte afaltzera. Horretan, itxurazkoa iruditu zaizu Morelian emango dituzuen egunetan zaindari izango duzuna izenez deitzea aizuka jardun baino.

– *Chiltak,* barkatu. Nola duzu izena?

– Zer?

Ez zidan ulertu. Tzotzilez hala izanagatik ere, ez nuen asmatu compañero esaten. Tzeltala duzu zaindaria, eta litekeena da oso bestela izatea.

– Izena. Nola duzun izena zuk.

Bozina jo zuen txoferrak. Begietara behatu gabe erantzungo zidan. Jakin behar nuen.

– Hemen inork ez dugu izenik.

## Jean Elizalde «Zerbitzari»

Oldean datozkio Mexikorat egin berri duen bidaiaren irudiak. «Cuba» untzian heldu zen Veracruz zikinera. Handik egin zuen DFra. Munduan ez diteke bide eder eta zoragarriagorik. Eta jendeak du estonatzen paisaiak beste. *Hura begitartea! Nihun ez dute segurki lehen garhait saririk irabaziko beren edertasunarentzat!*. Horren dira liferentak Euskal Herrian utzi dituen adiskideen aldean! *Ez*

*da Indianoak* –indioak– *baino mozkor handiagorik.* Irudi beldurgarriek lotzen dute. Ez da aurrejuzkuz ari, ikusi duena baino ez dakarkio «Gure Herria»ren irakurleari. *Ez, Indianoeri batere ez diotet nahi. Egia da ez nukeela lehen kausituari ezpainetan musurik emanen, bainan hauk hemen eman ditut, choilki eta choilki, egia direlakotz.*

# HILDAKOAK ETA BIZIAK

## –1–

Mexikarrentzat Emiliano Zapata ez da inoiz hil. 1919ko apirilaren hamar hartan Jesus Guajardo koronelaren etxera bazkaltzera gonbidatu zutenean uzkurra zuen behakoa. Bazuen zerbaiten susmoa, hala adierazi zien etxalde atariraino lagundu zuten beste jeneralei. Eta pentsatu bezala izan zen. Patio ederrean sartu orduko, teilatu eta arkupe gaineko bala zaparradak eraitsi zuen zaldi gainetik.

Handik aurrera, nork esan zer gertatu zen. Arratsalde hartan bertan, Cuatla-ko plazan, Zapatarena zela zioten gorpu bat erakutsi zuen Pablo Gonzalez-ek, Carranzak zapatistak estutzeko bidalitako jeneralak. Mexikoko Iraultzaz argazki artxiborik onena osatuko duen Agustin Victor Casasolak gizon heldua dela erakusten du,

aurpegi bete eta mustatxa beltzekoa. Biziek ongi ikus dezaten apur bat altxatuta dagoen hilkutxaren barruan dago eta jende asko bildu da inguruan.

Baina erakusten duten gorpua ez da sasira egin zuen Cleofas Salazar-en semea. Hala dio Cuatlara hurbildu den orok.

– Argalagoa zenuen hura –diote batzuek.

– Esku tankerako orbaina zuen paparrean –besteek.

– Zapatak atxikarra falta zizun, eta osorik du honek –harantzagokoek.

Egun hartarik aurrera, Zapata ez zen gehiago Morelos-ko azukre-kaina alorretan barrena ibiliko. Handik gertuko kobazulo batean bizi duzu askoren esanetan. Kapelu handia buru gainean, antosinak-eta saltzen dabilkizu herriz herri, beste askorenean. Baina bada urrunago, atzerri liluragarrian ikusi duenik ere. Pueblatik barrena, zaldi zuri eder zuen «Bateko Urrea»ren gainean Hungariara ihes egin zuela eta han ere ijitoek asko nahi diotela, eta hala ikusi dutela esango dizute Mexikoko txokorik galduenean. Eta horrela da.

Bada logika bat irabazleen mundutik haratago.

## –2–

Urte batzuk beranduago, iparralderago, Hidalgo del Parralen, Chihuahuan, Doroteo Arango jenerala kontu batzuk konpontzera joana da Canutillo-ra itzuli aurretik. Bere emaztetako bat erditzekotan da eta presa du. Txikitan, euskaraz egiten zuen. Aranburu zuen ama. Baina Pancho Villa deitzen dute bere benetako izenez baino gehiago. Pancho Villa bere lagunik minena zuen. Hura hildakoan jabetu zen lagunaren izenaz, eta hala da ezagun Mexiko guztian.

1923ko uztailaren 20a da. Goizeko zortziak irian. Jeneralak Dodge handi bat gidatzen du. Bost gizon doaz barruan. Juarez etorbidean litxarkeri-saltzaile zahar bat baino ez dago. Autoa pasatzen ikusi orduko, honek aurrez hala hitz egindako keinua egiten du. Tiro erauntziak betebetean harrapatuko du Dodgea. Noraezean, bide ertzeko zuhaitza joko du autoak. Barruan zihoa-

zen guztiak hilko dira. Hala jasoko du hemen ere Casasolak, Iparreko Zentauroaren idazkari den Trillo koronela txoferraren ondoko ate gainean etzanda, gorputz erdia kanporantz duela. Villa ez duzu agertzen, baina han behar du, txoferraren aldeko leihatilatik beha azaltzen diren buru ikusbera haien begiradapean.

Hiru urte pasa dira. Atzerritar batzuek (bada iparramerikar bat tartean) Villaren hilobia harrotu eta jeneralaren burua ebasten dute. Polizia mexikarrak gertaeretan esku hartutako bat atzematen du, kartzelan ere sartuko dute, baina epaiketa eguna helduta, libre geratuko da froga faltan. Gaur arte, inork ez du jeneralaren buruaren berririk.

Zer gertatu zen Villaren buruarekin? Susmoak baino ez, gogo arruntak, idorki mintzo zaizun jendea. Hainbat eta hainbat susmo, behako goxo, baieztapen biribil. Soledad Seanez, Villak izan zuen emazteetako batek, ez du uste inoiz atzerritar batzuk heldu zirenik eta, hilobiko lurra harrotuta Zentauroaren gorpuari lepoa moztu eta ebatsi ziotenik. Hala izatera, Mexiko DFn izango zenuke egun ere burua, gorputz guztiare-

kin batera Iraultzari eskainitako Monumentuan, Mexikotik bertatik eta atzerrietarik hurbildutako bisitarien gogoangarri.

Izan liteke. Baina ostutako buruaren auzi honek isurbide franko izango du ondorengo urteetan, eta nork daki. Denen artean, bada bertsio estonagarririk. Ben F. Williams-ek *Let the Tail Go with Hide* izeneko liburuan azalduko duenez, mertzenario iparramerikar bat izan zen, Emil Honmdalh, hargin-beltzen elkarte batek 25.000 dolar eskura eman eta Villaren gorpua burugabetu zuena. Kartzelan ere egon omen zen denboralditxo batez. Zergatik egin zuen, zein indar politiko zegoen ekintza ilunaren atzean eta zein izan zen buruaren azken atsedena, jakinkizun geratzen da Williamsen liburuan.

Bigarren bertsioa Texas Western Collage-ko irakasle den Haldeen Braddy-rena duzu. *Western Folklore* aldizkarian agertu zen, 1960. urtearen inguruan. Itxura batera Williams-ena baino azterketa serioagoa dirudi eta askozaz bide aberatsagoak zabaltzen dizkizu literatura aldetik.

Hipotesi honen arabera, hilobia Villa jeneralaren arerioek zabaldu zuten, haren burezurrak

Sierra Madre-ko mapa baten tatuaia zuelako esperantzan. Karta horretan zehatz-mehatz agertuko litzateke Villak urte batzuk lehenago urre karga handia gorde zuen ezkutalekua.

Bertsio biek artikulu sail ederra ekarri dute orpotik, El Paso inguruko prentsan-eta batez ere. Horietan guztietan agian Mark Singer-ena da politena. *The New Yorker*-en argitara emandako lan batean, eta Williams eta Braddy-ren ekarriak ondo ikertu eta gero, Pablo Bush Romero deitu agure baten arrastoan jartzen gaitu. El Pasoko ikerlari hau Asteazkenetako Taldeko partaidea da, mugako herri honetako intelektual, politiko eta lagun arteko kofradia izentsu bat. Bush Romeroren asmoa zein den ez dago argitu beharrik: Villaren burua non dagoen aurkitzea.

Bush Romerok bere ahaleginean egin bidea luzea da oso. Gutun bat baino gehiago idatzi dio orain dendetan eta ezein kale-kantoitan itsatsi afixeetan *chupacabras*, Mexikoko herri xehearen banpiro odol zurrupatzaile legez agertzen zaizun Salinas de Gortariri hau lehendakari zen garaian. Luze eta zabal hitz egin du Villaren alargunekin, eta harreman ona du haren seme batekin, Hipo-

lito-rekin. Halaber, Mexiko eta EEBBek 1970ean sinaturiko «Convention on Cultural Property Implementation Act» ituna azterrarazi du, Yale-ko Unibertsitatea eta bertako lehendakaria den Benno Schmidt salatzeko asmoz.

Afera argitzen hasia da. Zentauroaren burua New Haven-en, Connecticut-en dagoela uste du Pablo Bush Romerok. Arrazoiak Chihuahuako lurrak bezain sendoa dirudi. Erakunde honek harrotzeko moduko bilduma du: «Skull and Bones Society», EEBBetako hezur eta kaskezurren kolekziorik aberatsena.

Bada mundu bat irabazleen logikatik haratago.

## Atxikarraren indarra

Jose Francisco Telleria Uribe du izena, baina Petrikilo deitzen da, hori du familiari Zerainen eman ohi zaion ezizena. Artzaintzan eman zituen lehen urratsak, eta ardien hausturetan erreparatuta ikasi zuen orain dakiena.

Frantsesen kontrako gerran, batailoi foralei laguntzen irabazten du ogia. Batzuek Fernando VII.aren Madrilera ere joan izan zela diote. Besteek, jendearen irudimenean baino ez dute ikusten *algebrista*rako han egin zioten azterketa hura. Benazkoa nahiz asmatua, ahotik ahora dabil

gertaera. Doktore titulua lortu behar-eta, hezur multzoa uzten diote mahai gainean, gorpua ondo osa dezan. Petrikilok ezetz dio, ezinezkoa dela. Nola osatu gizona hezur bat, atxikarra falta badu.

Atxikar bat irabazleen logikaren kontra.

## Prescott Bush

Mark Singer-ek badaki non dagoen Villaren burua. Zigarroa bizten duen bitartean, *New Haven, Connecticut*, dio. Lankideek sorbaldan jota zoriontzen dute. Baina berak badaki ezin izango duela aurrera jarraitu. Egunkari atarian gas hodiak sartzeko itxi duten kalea bezain trabatua du ikerketa bidea.

Izen bat emango du: Prescott Bush. Yaleko Unibertsitatea eta New Havengo hezur bilduma zikintzen dituen afera ilun batean nahastua egon zen urte asko lehenago. 1918an, Geronimo, apatxeen buruzagi suharraren bahiketan esku hartu zuen Bushek. Geronimo hilik zegoen eta honetan ere, burua izan zen lautadako mitoari ostu zioten gorputz atal bakarra. Orduan baino ez die galdetuko lankideei ea ez duten Prescott Bush ezagutzen. *George Bush lehendakariaren aita da*, esango du.

# MAZARIEGOSEN SEME-ALABAK

## –1–

– Neoliberala ala salda zapatista?

Ohartu orduko bete dit urez zaparradak esku hormatuan daramadan platertxo hutsa. Erauntsia gainean dugu oraindino. Asko dakit ordea atzo aldean: zikloia Cesar deitzen da eta ekaitz muturraren ukitua baino ez da Moreliako Aguascalientes hau Auschwitz eta Herri Urrats-en arteko eremu bilakatu duena.

– Salda zapatista! –diotsot, egunero besterik almortzatu ez banu bezala sukaldeko emakumeari.

Lokatzetan irristaka, ozta-ozta heltzen naiz jangela bihurtu den barrakoira. Honela duzu abantzu egunero, barazki pisto moduko orea edo txokolate edo koloreetako corn-flakesak, nahi beste artopil eta kafea. Bazkaltzen, afaltzen,

bertakoek inoiz ahoratzen ez dutena duzu egunotan menuan, atzerritarren erosotasunerako eta ironiaren antologiarako.

– Gosari neoliberala?

– Bertoko produktuak, compañero.

Paketeetako arto xigortuak egin bidea gogorarazten dit Raulek bere katiluan artaesneari eragiten dion bitartean: Mexikotik EEBBetara (eta ez han ez dagoelako, Mexikokoa askozaz merkeagoa delako baizik), han tratatu, paketeetan sartu eta bertora ehun bider garestiago itzultzeko.

– Anai-arreba azkarrak ditiagu hor goian, Iñigo.

Makaleko hezurrak haiek. Hesoletatik sobratutako alanbrez eginak diruditen zakurrek ez dute zaunkarik ere egiten laino arte zarratuan. Lokatz eta ke arteko fantasmak dira, egundo ikusi dituzun zakurrik argalenak inorako ez bidean. Itzal luze dituzu euripean gosaltzeko ilara osatzen dutenen hankapean.

– Ehun dolar eta gosari hau!

Zakurrenak ez, bestelako zaunkak dira heltzen zaizkizunak. Jatetxe karua corn-flakesen

hau. Astebeterako bidaia eta mantenuaren truke San Cristobalen antolakuntzari eman ehun dolarrak garesti iruditu zaizkio toldopean blai eginda sartu berri denari. Poltsikoan min zapatismoak. Eskerrak frantsesez bota duen. Hasieratik Moreliako NBEko logeletan gurekin zintzilikatzen den Moniquek Asterixen ezpatak, sugeak eta burezurrak ditu begietan. Kazetaria da eta *free-lance* moduan etorri da. Herritarrak begiak irakurri dizkiola dirudi. Berehala aldegingo du aldamenetik.

– Normala da. Ez sinestekoa da Chiapasek Frantzian duen indarra –argitzen dizu–. Moderno guztien artean ez duzu beste gairik entzungo. Iraultza atsegina duzu.

Raulek interes handiz segitzen ditu batez ere emakumeez idazten izan ohi duen Moniqueren hitzak.

– Bahe txarrak jarri ditugu orduan.

– Danielle Mitterrand hemen ibiltzea ez da kasualitatea. Eta kontu, ez da txarra propaganda aldetik. Badakizu, Frantziako sozialistek beti izan dute, nola esango nuke...

– Fuga bat –osatu du Laurak Moniqueren esaldi amaigabea.

– Fuga bat Chiapasen –errepikatu du honek.

– Bai, baina ez Kaledonian edo Martinikan.

– Hori da hain zuzen ere *gauche-caviar* eta *gauche-cachemir*-ekoen artea. Artistak dituzu iraultzagintzan. Eta Chiapas, oraindik orain –esango didazu– Frantzia da.

Orain ohartu naiz. Moniquek guk ez bestelako txartela darama paparrean. *Prentsa independientea* dio harenak.

– Zapatista den bitartean.

Chiapas frantsesa. Ez da burutapen txarra basa honi guztiari xarma apur bat emateko. Raul azalzuria bada ere, Veracruzkoa ere bada, eta Karibeko umore tantek ondo bustia jaioa.

– Azken batean, *Club Mediterranée*-n bada lekurik oraino.

Eta Martinika, Guadalupe edo Kaledonia Berriko umeek bezala ikasiko dute Moreliako eskolan guk aldegin orduko Frantziako Historia orbaingabea kanpamenduan bueltaka dabiltzan ume beltzaranek: «Gure arbasoak, galiarrak, ile horiak eta begi urdinak ziren...».

# –2–

Cesar-ek etengabe darrai gure gainean eta badirudi zertxobait atzeratuko dela gaurko bilera ordua. Eduk abildade ikaragarriz berdindu du beti aldean daraman pipa eta astiro eta pisu ateratzen dira hodei biribilak haren ahotik. Kolonbiarkeriak.

– Compañeros!

Mahai tolesgarriak elkartuz osatu berriko burutik ari da Mauro, poeta eta artista mexikarra. Barruti Federalekoa da, Roma auzunekoa. Eta ezagun du. Lotsagabekeria urbanoan edo, ez dakit. Dudarik gabe, kultura mahai honetako txinparta eta ahots asaldagarriena:

– Entzun!

Eduren piparen ke hodeiak zutik jarri den jendearen kontra tarratatu dira.

– Entzun!

Esertzeko keinuak egiten ditu eskuekin, esertzeko.

– Hasi baino lehen, salaketa baten berri eman nahi dut.

Orain ez da bart arratseko saioan aldarri batean eta komandanteen aurrean «*sexu bustizko erreketan / ito gura nuke zure gorputza*» eta antzerako jario olioztatuekin jendea gorritu eta lotsarazi zuen poeta betegarria.

– Chiapas iparraldean, Tila-n, egunotan Armada mexikarra burutzen ari den genozidioaren berri eman nahi dugu.

Jendea bat-batean isildu da. Norbaiti kafez betetako edontzia erori zaio mahai gainean.

– Pasa den astean, ikuskatzaile euskaldun eta mexikarrak egiaztatu ahal izan genuen populazio zibilaren kontrako sarraskia. Jendea aterperik, janaririk gabe dabil ihesi mendian. Ehundaka pertsona mendi gorrian, atzetik Armada dutela, compañeros.

Ez dakit terminologia bera den, hainbeste *compañero*, baina sentipen gordinak dituzun ustea da. 95etik lekora zabiltza, Irunen defentsan UHPko miliziarrekin, Bilboko erretiradan; edo honantzago, Allenderen Txilen, Nikaragua sandinistan, nik dakita non.

Pantelho-tik iparraldera, Petalcingo-tik barrena duzu Tila, Chiapasek Tabascorekin duen

muga-mugan. Handik ateratzen du Pemex-ek bertarako ez den beste edonorako petrolioa. Agua Azul-go ur jauzien eta Palenqueko aztarnategien mendebaldean. Chiapasko ezein turismo bulegotan eskainiko dizkizuten guneak biak ala biak.

Eta bertatik bertara sarraskia. Egunkari eta astekari jakin batzuetan ezean, nekez duzu baina inon armadak han-hemenka burutzen dituen ekintzen berri izango. Isiltasun informatiboa erabatekoa da, eta ikuskatzaile eta babes lana betetzen duen atzerritarrari zaion izua, handia gobernu aldetik.

– Hilabetean hogeita hamar hildako egon da.

– Blokeo informatiboa haustea eskatzen dizuegu, ikusten duzuena salatzea –saltatu du alemaniarra dirudien emakume batek. Masail gorriak ditu eta bustita kalpar horiak.

## –3–

Hotz naiz eta kafe ontzia txikiegia dut eskuak bertara osoki biltzeko. Atzoko puntuei helduko

zaie kulturako Aguascalientes hau banandu den hiru mahaietan. C Mahaian, sortzaileenean, egunotan hitz egina egituratu eta zehaztu beharra dago oraindik. Proposamenak, halako *zera* sundatsu batek salatzen ditu, ezin europarragoak dituzu.

Komunikabideei dagokienez, gune alternatiboak (irrati libreak, autonomoak) sortzea aldarrikatuko da, mahai haietan hitz egina lau haizetara hedatzea, hamar minutuko spot bat burutzea.

Sarea antolatu nahi dutenen proposamenek, aldiz, Interneta izango dute oinarri. Gazte elkarteen sarea sortu, arte ekoizpenen amarauna antolatu, komunitate zapatisten produktuei irtenbidea eman, hezkuntza sarea, elkartrukeak... Partehartzaile guztiekin direktorioa osatu nahi da Interneten.

– Zer arraio egiten dugu hemen.

Raulek begiak biltzen ditu. Ohartu da nire egonezinaz. Eta ezin hobea da piperminak beratzen. Ahaztu ere egiten zait batzuetan, lanbidea du lagun.

– Marcosek Internetari esker hausten dik Armadaren blokeoa.

Hala behar du izan. Hori da Mexiko hegoekialdeko mendietan dabilen legenda. Oihan barreneko martxa luzeetan urik ez eta gernua txandaka edaten duten haiek Internetaren bitartez lotzen direla munduko ertzik galduenarekin. Horrela lortutako laguntzaileei esker ari direla irabazten. Irabazten ari badira behintzat.

– Ez haiz benetan ari.

Baina bai. Ez zapatistena, baina neuk berenbereki eskatu gabe lortu dit zapatismoari buruzko direktorioa.

– Hor zagok dena.

*http:/www.peak.org/-justin/ezln* apuntatzen dut nire koadernoan. Bada gogotik estimatuko didanik.

– Begiratuko diat –diotsot, sarenauta ahotsez.

Artista plastikoen proposamenak errazago eta atsegin handiagoz entzuten dituzu orain. Europako mugimendu autogestionarioetan oinarriturik, plazak hartzea, bilguneak antolatzea, kulturguneak eraikitzea proposatzen da. Peruko ordezkari bakarra den Walter Barrientos-ek bestelako freskura dakar:

– Arte modernoko museoa antolatu behar dugu zapatisten lurraldean.

Jendeak txaloka babestuko dizu proposamena. Mutil lerdena da indiar ketxua hau. Federacion Campesina-ko ordezkari da, eta infernuko txikitotzat dute bere komunitatean arte modernora makurtu denetik. Baina hemen, besapean daraman karpetako margoek harrera ezin hobea dute ikustera hurbiltzen zaizkionen artean. Eta fierra bezain eztia izan mutila, Maurok baino arreta handiagoa bereganatzen du.

Asko dira museoaren proposamenak berarekin dakartzan galderak. Non egin, zer gairi eskaini, nork erakutsi, nori zuzendu, nola mantendu...

– Ideia gaiztoa eta naifa da aldi berean. Honela, Armada ez da ausartuko Barcelo-ren margo bat, esate baterako, zan...

Itxura batera oso behean dabilen hegazkin baten burrunbak eten du Barrientosek solasa.

– Zanpatzen –osatu du isiltasuna itzuli denean.

– Babes lanak egingo dituen museoa, alegia.

– Hori ere bai.

Museoaren aipamenak argitaletxean armada eta migraren kontroletarako prestatu didaten salbokonduktoa dakarkit gogora. *Euskaldunak Mexikon: pintura eta literatura*. Horrela dio nire aurkezpen gutunak. Hori duzu bidaiaren zioa. Eta hasita nago ez ote diodan gutunekoari benetan heldu beharko hegazkina bigarrenez pasatu denean. Honetan, antolaketako bat sartu da gaztigatzera:

– Hegazkin militarra da, baina lasai. Anbientazioa baino ez da gu hemen garen bitartean.

Ez da hirugarrenez pasatuko, eta toldoaren gainean pausatuko da berriro isiltasuna.

## –4–

«Sustrai bila» izena daraman taldeak indigenen ahozko kultura batu eta lan literarioak argitaratzea proposatzen du. DFko unibertsitateko irakasleak, alegia, UNAMeko jendea da xedeari boza ezarri diona.

– Beharrezkoa da gure zaharrekin egon eta gure sustraiak berreskuratzea. Bestalde, hizkun-

tza indigenetan emandako literatura bultzatu eta argitaratzearen beharra ere ikusten da. Arrazaren pizkundea deitu diogu honi.

Mexikarrak dituzu proposamen egileak. Baduzu Guerreron gerrilan ibilitakorik. Jende azaldua.

– Arraza? Bada historiatik ikasteko garaia. Hitlerrek arrazaren izenean milioika lagun hil zituen –oihu egin du Espainiako gazteleraz batek.

– Ez dugu hori esan nahi.

– Bada nik kentzea proposatzen dut!

Espainola dirudienak urregorrizkoa du ahotsa ordea, eta asko dira buruaz baiezka dituenak aldamenean. Mexikarrak, azken ahalegin batean *raza universal* edota *raza cósmica* sartzea proposatzen dute *raza* hutsaren ordez, baina Hitlerren suntsiketa-eremuetan zailduak ez du Riverari hainbeste lagundu zion Jose Vasconcelos ezagutzen. Hari eta haren *Ulises Criollo*-ri eginiko keinuak alferrikakoak suertatuko dira. Espainola dirudiena ez dago literaturarako.

– Munduko diktadura guztiak oinarritu izan dira antzerako terminologian! –errematatu du, ezin eta ahalka.

Badarik ere, bizitza guztian eskertuko diete Peru, Bolivia, Guerrero, Michoacan eta Tabasco-ko lagunek europarrei diktadurak zelan eraikitzen diren erakutsi izana.

– Compañero.

Esku herabe bat da atzetik lotu nauena. Ni ez naiz horietarik! egiten dut oihu. Nire baitan ordea. Begiak pizten zaizkit. Izengabea da.

– Compañero, barkatu, baina hamakak mugitu behar dituzue.

– Zer?

– Zu komunitatean zaude, ezta?

– Bai, eskola txikian.

– Hamakak. Ezin duzue elkarrekin lo egin. Gizonak alde batean eta emakumeak bestean.

Ozta-ozta ulertu diot, baina badakit zertan ari zaidan. Hala da Aguascalientesko barrakoietan daudenekin, hala da eskolako beste etxeetara gure ondoren etorri direnekin, baina gau bakarra baino ez zaigu geratzen Morelian.

– Compañero, ezkonduak banandu?

Raul gozo sartu da. Badakit zertan ari den. Egin nahi dio pekatu txiki bat antolaketa zapatistari.

– Ezkonduta?

– Bai.

– Den-denok?

– Hala da.

Katiuskak ahoraino lokatzez zipriztinduta dituela ikusi dut urruntzen Izengabea. Kontsulta egitera joana da.

– Borondate onez ari dira, baina apaizak baino okerragoak dituzu –bota dit atzean, Raul eta Izengabearen arteko elkarrizketa entzun-eta norbaitek, Espainiako erdaran honek ere.

– Hoa txoritara, *compañero*.

Ez dit ondo hartu. Ate ondoan zegoen talde batera egin du, kontuak ematera hau ere. Komisario espainolen bat, dudarik gabe.

– Zer duk, Iñigo?

Raul da, *buztanikararekin* izan dudan hikamikaz ohartuta, nondik lagunduko etorria.

– Ezer ez. Nazioarteko liskar txiki bat.

– Espainolekin, noski.

– Ohe kontuan gu baino gehiago dituk. Eta badakik, ezin eraman.

Ulertu dit. Irribarrean igarri diot, zuen euskara hau ez da ulertzen horren zaila esateko okertuta ezpainak.

– Compañero, dena ondo dago.

Izengabea da, katamarruak bezain isilean hurbildua gugana sarrera kontroletik. Dirdiratsu ditu begiak.

– Lasai gera zaitezkete zuen emazteekin.

– Benetan esan dik –diost Raulek Izengabea urrundu orduko. Euriak zarra-zarra janzten du behelainoa. Toldopean, eztabaidak berea eman eta amatatu egin dela dirudi. Esan bezala sinetsi zioat, zer uste duk, ez nauk horren uzkurra, Raul.

– Oraindik ez didak esan nola esango hukeen Aguascalientes euskaraz.

– Ez zaik gustatuko.

– Zergatik gero?

Hesola eta txarrantxa hesitik harantz, autobus txiki bat bete da San Cristobaleraino jaitsi beharra dutenekin, prentsakoak tarteko. Bertaraino doa. Hiru orduko bidea dute oraindik.

– Urberuaga.

– Nola?

– Urberuaga.

– Gazteleraz bezain luzea duk.

– Bai, baina gurea bainuetxe abandonatua duk. Ez duk gune politikoa. Horregatik duk erraza itzultzen.

Ulertzen didak orain, Raul? Gezurretan ari natzaik! Ez nauk euskal idazle eta margolarien atzetik etorri honaino!

– Nik ezagutzen diat Urberuaga bat Veracruzen.

## Raza

Barruti Federaleko metroan sartu orduko ohartu zara letra asko duzula ikasteko. Irudi bat eman zaio geltoki bakoitzari, irakurtzen ez dakitenak gal ez daitezen. Baina lehen eguna duzu, eta La Raza dioen karteltxoan erreparatuta jaisten zara autobus geltokitik bueltan.

La Raza. Asko ibili beharko duzu, nekatu arteko kaleak zapaldu. *Euskalduna?* galdetu dizu. Urteak dira Euskal Herritik heldu zela. Oinetako garbitzea du lanbide, eta jakinaren gainean jarri nahi zaitu. «*Raza*ren inbasioa diagu azken aldian!». Ez dizu ironiaz esan. Hiri arriskutsua da DF. Hiriaren berora hurbildutako miseria esan nahi du. Indigenez ari da, eskaleez, *marihuanoez...* Giza kondarrak dituzu *raza* Mexikon.

# Y ESTO YA COMENZO

## –1–

*Barkamena eskatu, baina zergatik? Gosez ez hiltzeagatik? Gure miserian ez isiltzeagatik? Mesprezu eta utzikeriazko zama alimalezkoa burumakur ez onartzeagatik? Beste bide guztiak itxita direla armak eskuan ditugula matxinatzeagatik? Chiapasko kode penala aintzat ez hartzeagatik, jendearen gogoan den absurdurik eta errepresoreena berau? Mundu guztiari giza duintasuna bizirik dela oraino eta beraren biztanlerik pobreenen baitan dela gogorarazteagatik? Artez eta gogoz prestatzeagatik? Arkuak eta geziak eraman beharrean fusilak eramateagatik? Borrokan hasi aurretik borrokarako prestatzeagatik? Denok mexikarrak izateagatik? Gehienok batez ere indigenak izateagatik? Mexikoko herriari berea denaren defentsan borrokara deitzeaga-*

*tik? Askatasuna, demokrazia eta justiziaren alde borrokan egiteagatik? Aurreko gerrilen ereduei ez jarraitzeagatik? Ez errenditzeagatik, ez saltzeagatik, ez salatzeagatik? Nork eskatu behar du barkamena ordea, eta nork barkatu behar du? Urteak joan eta urteak etorri mahai betean eseri eta ok egin arte jan zutenak gurekin herio esertzen zen bitartean, hain eguneroko, hain gure, beldurra galdu genion arte?*

– Ez al diek igartzen halako zera bat?

Begiekin batera biltzen duzu liburua. Txori ahotsa duen neskak eta gitarrarekin lagun duen mutilak amaitu berri dute sorta guztia eta entzuleek hala eskatuta ekin diote berriro lehengoak errepikatzeari. *Castilla*z denak, sei baino ez dituzte. Sei abesti sotil, xalo, xare, jendeak gozoan harrapatu eta eskuak lehertu arte txalotuko dituenak. Eta leloa ez du zaila, badakite, erraz sartzekoa da «La Cucaracha»ren doinuaz.

«*Todas las mujeres, todas las mujeres*
*nos queremos liberar...*»

– Baditek bai, ondo hezien kutsu bat...

– Lepoa egingo nikek igandeko mezetako taldetik irten dutela... –diost Raulek. Umoreko dago gaur.

Esku geldiezinak soineko atzetik elkar heldu-ta, irribarre lotsatia keinuka, hamaseira helduko ez den neskaren ahotsak auditorioa bereganatu du. Denetan etxe-ordekorik handiena, apainena duzu hau, agertoki lanak egiten dituen oholtza handia duela buruan. Jendea bildu da Moreliako abeslaririk onena entzuteko. Eta eskertzekoa da, ez duzu aukera handirik izango tzeltalak kantuan aditzeko, gazteleraz bada ere.

Atertze gaitza du gaurkoak.

– Ez al hidan esan hiru egun irauten zuela zikloi-hondarrak hemen? Laugarrenean gaudek!

– Veracruzen hala duk.

Sarrerako ate ondoan arbel handia jarri dute azken aste bitan Armada mexikarrak Altamirano-Morelian egin ekintza militarrekin. Data, baliabideak, ekintza eta orduaren ondoan soldaduek erakutsi jarrera agertuko zaizu. Beha-beha ohartzen da bat ez direla lau egun baino gehiago pasa nolabaiteko agerpenik gabe. Begiratu batera, helikopteroek konboi militarrei eman

diete lekua. Hilaren 23koan letra zainduko esku batek *Konboi militarra. «Zainketa eskaera». 8,15. Jarrera erasokorra* idatzi du. Ez dago inor asaldatzeko egina. Handik hiru egunerako inkurtsioan *jarrera: aihergabea* zirriborratu du esku berak. Azken egunetako partean (atzerritarrak Morelian gauden egunetik hain zuzen) konboi militarrak desagertu eta hegazkinak baino ez dira pasatu, oso behetik gehienetan.

– Eta hala ere lurralde liberatuak dituk!

Hala duzu. Armada nahi beste bider sartuta ere, lurralde zapatistak ondo marraztuak dituzu ezein mapatan. Armadaren erasoak, miliziar zapatistak mendi basoetan dituzula, legedi zapatistarekin bizi den populazio zibilaren kontra bihurtu dira.

*«De las mentiras, de la opresión...»*

## –2–

1994ko ekainaren lauan hiru neskato tzeltal bortxatu zituzten Altamiranoko reten militarrean. Hirurak ahizpak ziren eta azokara zihoa-

zen Moreliatik. Ondo kostata, Giza Eskubideen Batzorde Nazionalera heldu zen azkenean salaketa. Bien bitartean, haien aitorpena prentsan agertu zen. Armadak berehala ekin zion ahizpak aurkitzeari. Bazekiten nor ziren, egunero hartzen baitzizkieten datuak kontroletatik pasatzerakoan. Honetan zirela, Giza Eskubideen Batzordeak –gobernu erakundea da– gogor egin zuen aitorpena alda zezaten. Neskak, izututa, ihesian ibili ziren, hain zen ikaragarria alde bietatik jasatzen zuten presioa. Soldaduena gutxi zela komunitateak berak bultzatuko ditu ihesira. Jendea beldur zen haiek bertan ziren bitartean Armadak bakean utziko ez zituen. Azkenean, beste komunitate zapatista batean aurkitu behar izan zuten babesa. Neskak terapia beharrean izan ziren. Epaiketan, soldaduek ez zuten baleko aitorpenik egin. Baina tramite eta anparoen artean 1995eko otsaila heldu zen, Armada federala lurralde zapatistetan sartu zen unea. Neskak oihan barrenean gordetzen dira. Marta Figueroa abokatuak aurkitzen dituenerako beste izen batzuk, beste bizimodu bat dute. Dagoeneko ez dute deus jakin nahi prozesuaz.

– Honelako historia asko zaudek.

Mexiko modernoaren aurka galdutako salaketak. Chiapasko beste gerrak dituzu, gordinagoak hagitzez, eta badakizu, egoera ulertzen arrunt laguntzen dizutenak. Liburua gordetzen duzu. Nahiago duzu Raulek kontatzeko dizuna entzun.

– Epaiketan arazo itzelak egon zituan hizkuntzarekin. Neskek ez zekitean *castilla*rik.

Sinesten diat esateko astintzen dut burua.

– Hizkuntzarena egundokoa duk. Ezin izan zitzaiean terapiarik ere eman. Gaztelera alferrikakoa huen haien mundu afektiboan.

Jendeak beste bat eskatzen du, azken-azkena ekitaldiaren aurretik. Laster Aguascalientesen kantarik entzunena bihurtuko den kantaren lehen notek bizitasun pixkat emango diote Raul eta bion arteko solasari.

*«Y esto ya comenzó*

*Y nadie lo va a parar...»*

Euri geldiaren boza arto-sailarenarekin nahasten da. Ez duzu berdina, baina antza ukaezina da. Milpatik gora kare-haitza hasten da, eta pinu beltza maldarekin batera. Argiak larrean: norbaitek zorro bete ipurtargi jausten utzi balu bezala. Lainoaren egoskortasunarengatik ez balitz, Euskal Herrian zaudela esan zenezake. Argi harietan zintzilikaturiko bonbila ahulek bide dardartia erakusten dute komunetaraino. Hau duzu obrarik eskertzekoena hemen: lurpean egindako hamarhamabi zulo, oholez estaliak eta gau eta egun ezin hobeto zainduak. Beti duzu norbait karea botatzen zulo beltzetan. Hainbeste lagunekin, higienea asko zaintzen den arloa duzu hemen.

Talde guztietako datuak bildu eta proposamenak entzuteko oholtza gaineko mahai luzean eseri diren hamar komandanteak prest dituzu argazkietarako. Gizon zein emazte, arroparik dotoreenekin etorri zaizkizu, koloretako xingolak dituzten kapeluekin kapusai gainetik batzuk, oihal biziekin egin soinekoekin besteak, uniforme militarrak bazter utzita zein bere herriko jantziekin

denak. Orain ulertzen duzu Marcos «ni komandanteordea naiz, komandanteak herria dira» dioenean. Ikusi duzu mahai bakoitzaren buruan entzule izan ditugunean. Aurrean duzu Morelia-Altamiranoko EZLNko komandantzia. Badituzu begiratu batera hirurogei urtetik gorakoak diruditenak. Gure mahaian izan dugun Emelina komandantea bera. Baina zail da jakiten. Eta are zailagoa hemen: baldintza hauetan nekez helduko zaizu inor adin horretara. Oihanean, berrogei eta berrogeita hamar urteren bueltan dago emakumeen bizi-itxaropena. Hamar urte gehiago gizonezkoentzat. Bizi baldintza eskasetan, infekzioek eramaten dituzte gehienak.

Mikroa eskuan, Cebedeo komandantea da hitza duena. Jario onean ari duzu, eta nola herriko hala kanpoko, arretaz duzu jende guztia aulki luzeetan eseria. Mezua atzerritarrentzat dela ulertzen duzu. Gazteleraz ari da. Herrikoak diziplinaz, kanpotarrak abegiz agurtzera etorriak dituzu.

– Euria, lokatza, janari gutxi... erosotasunik gabeko egunak eta gauak izan dira zuentzat.

Orain badakizue zelan bizi garen. Guk, indigenok, bostehun urte daramagu honela.

Serioak bai, baina noiznahi dituzu antzerako ironia keinu ederrak Cebedeo komandantearen mintzo pausatuan.

– A zer zortea. Lokatzarik ez espainolak heldu arte!

Irribarre txikia lapurtu dit Raulek. Ni bezalaxe, gatibu dagoela uste dut Cebedeo komandantearen mintzoan. Cebedeo, Marcos, David, Moises... Bibliatik atereak dirudite komandante askoren gerra izenek.

– Ea Marcos San Marcos Ebanjelistarengatik den? Jainkoak libra nazala, ez, ez. Egon nintzen azken elizkizuna lehen jaunartzean izan zen. Zortzi urte nituen... –azaldu ohi du Marcos komandanteordeak (*Sup* deitzen diote adiskideek) honezaz galdetu zaionean.

Kanpoko kilkerrak eta ume negarrak baino ez dituzu entzuten haren dardararik gabeko ahotsaren atzean. Tarteka, bonbilek indarra galdu eta amatatzera balihoaz bezala egiten dute.

– Gure borroka honek luze joko du. Baina badakigu. Guk, artoaren seme-alabok gure hizkuntzetan ez dugu hitzik *rendición* esateko.

Ona da marketin moduan. Haatik, marketin hutsa baino gehiago duzu. Hala da, hizkuntza maietan «borrokatzeari utzi» esaten da, baina ez «etsi». Ez duzu hitzik horretarako. Ezinbestean, Laurarekin atzo eskola atarian izan elkarrizketa datorkizu gogora. Hizkuntzarena arazo larria da zapatismoa mundura ateratzeko modukoa bihurtzerakoan.

– Zaila zaie justizia, eskubidea eta antzerako hitzen esanahia ulertzea.

Emakume zapatistekin lan egin izan du Laurak azken urteotan, haien eskaerei lege jantzia ematen-eta.

– Hitza ez dagoenez, kontzeptua da ulertzen ez dutena. Esate baterako, etxebizitzarako eskubidea. Ez dute eskubide moduan ulertzen. Etxea, edo baduzu edo ez duzu. Eta kito. Neurri batean, gaztelerara pasatzerakoan aldatu egiten dugu haien ikusmoldea.

Bertsio erraztu bat alegia. Azpituluen gezurra. Halatsu ohartarazi gintuen Emelina koman-

danteak lan-sesioa eten eta museoaren egokitasunaz iritzia eskatu zitzaionean:

– Guk ez dakigu zuek bezala hitz egiten. Nekez jarrai ditzakegu zuen berbak eta maiz ezin uler dezakegu zer diozuen.

Eta hala eta guztiz ere, Askatasuna, Justizia, Demokrazia hitzekin amaitu ohi dira EZLNren komunikatu guztiak. Hori duzu zurientzako euskarria. Horregatik, sarri aurkituko duzu kontzeptu hauen inguruko gogoetarik Marcosen testuetan. Baina Marcos ez duzu tzeltala, ez duzu tzotzila edo tojolabala. Janariaz hitz egiten dizula, DF du gogoan. Coyoacan-go izozkiak ditu ments, Division del Norte-ko takitoak, Insurgentes etorbidea Viaducto-rekin elkartzen deneko La Otra Carneko artzain-takoak...

– Ezin ladinoagoa duk!

Cebedeoren hitzaldia politikoa bada ere, urrun dago gure mitinetatik. Ez dizu jendea berotzeko propio sartutako esaldi ezin egokiago hori bi, hiru bider errepikatuko. Ez dizu ahotsa goratuko une gorena lortze aldera. Dominiko eta maristen artean ikasiak badira ere, baztertuta dituzte erretorikaren teknika gaiztoak, eta dis-

kurtsoa garbia da, zuzena, zintzo itxurakoa. Honela du indarrean irabazten. Honetan, zor handiagoa diote Cortes beso zabalik hartu zuen Moctezumari Mexiko osoko pulpitu guztiei baino.

– Gure ahotsean besteena doa, deus ez dutenena, isiltasuna eta ezjakintasunera kondenatutako ororena, beren lurretatik eta historiatik egotziena, bakardadez hildako zahar eta umeena...

Diskurtsoa txaloka inoiz etengo ez dutenen artean emakumeak dira nagusi.

– Dena denontzat!

Hiru, lau umerekin bakoitza, badira hamarhamabi dituztenak ere. Txikienak, gogaituta, lurrean etzanarazten dituzte, *rebozoaz* estalita, loak han har ditzan. Negarrik ezak arranguratuko zaitu. Emakumeek ahoa estalita behatuko dizute beti ere. Lotsorrak dira. Ez zaizu erraza egingo hitzen bat gurutzatzea. Eta zuk badakizu barregarri ere gertatzen zatzaizkiela, hain ahul.

– Salduta gaudek.

Morelia ingurura etorri den bakoitzean duen susmoa da Raulena. Hain zaude saldua eguraldia, lokatza eta mendiaren mende. Eta berriro egunotan joan-etorrian dabilen sentipen bera,

kolektiboaren indarra, historiaren pisua, eta hildako-bizien begirada hau, hogeigarren mendeko azken iraultzarik handienaren bihotzean.

– Goazen hadi afaltzera agudo.

Cebedeo komandantearen hitzekin amaitu da arratsa, eta ordubete duzu afaldu eta dantzara etorri aurretik. Laster berrehun lagun izango dira lokatzetan ilaran jarriko direnak, aterian lehenengoz hemen zarenetik, sukalde ketsuari buruz denok, eta profitatu beharra dago italiarrak «Bella Ciao» abesten hasi direla ihesari emateko.

– Ez al dakite besterik?

Raulek ere igarri die, eta aulkietan geratu diren emakumeetara doakizu gogoa, irribarrearen eta begirunearen preso, ezin esan hizkuntza ulergaitz hartan hain bero ari direnei apaltzeko, nora doazen hain sutsu, ea ondo doakien iraultza han urrun hartan.

## –4–

– Compañero.

Ez haut egun osoan ikusi Izengabea, ez hintzen auditoriumean Cebedeok hitz egin duenean, diot neure baitan, baina ez dit entzungo.

– Zure labana.

Txori hila dirudi labana itxiak Izengabearen esku txikian. Orain ohartzen naiz hasieran pentsatu baino gazteagoa dela. Ez ditu hamasei urtetik gora izango.

– Ez diat nahi. Zuentzat duk.

– Zure labana, jauna.

Komunitatean, eskolak zaintzen egongo zela pentsatzen dut.

– Opari bat duk.

Esku txikia labanaren gainean bildu da. Garazin erosia zenuen, turistentzako dendatxo *basque* batean, auskalo non egina den baina.

– Benetan. Zuentzat –diotsot eskuaz besoa ukituz.

Berandu da, iraindu egin duzu. Guachupino kabroia.

Auditoriumean, eta Altamiranoko reten militarra entzule balute bezala ekin diote italiarrek «Internazionala»ri orain.

Ohartzerako, gau berria zapaltzen galdu da ilunpetan. Ilaran, txanda gordea dit Raulek. UNAMeko irakasle batekin dago. Ezagutzen duzu. Arrazaren kontuan espainola zirudienari jazartu zaiona da.

– Iñigo, Manuel. Manuel, Iñigo.

Sendoegi eusten dizuten esku horietakoa.

– Espainola?

– Ez, euskalduna –aurkeztu naute.

Egunen batean horretarako parada badugu, Raulentzat izango da Veracruzko gure kontsulatua.

– Euskalduna! Yucatan-goak bezalakoxeak! Zuek bai!

Chiapas bezalaxe maia duzun Yucatan zenbait hilabetez independientea izana zenuelako diotsu. Auditoriumean ordubete falta da Banda Rebelde lehen piezak jotzen hasteko. Akorde sinpleak dituzte, ska eta berbenaren arteko nahasketa ikusgarria.

– Chanchaca deitzen zioagu hemen.

Txan-txa-ka, txan-txa-ka, hiru akorde beti. Kolonbiako erritmo beroetatik urruti, euskaldunentzako moduko musika duzu Banda Rebelde-

rena. Han izango da Izengabea, eta han eskatuko diot barkamena. Egun handia dela ezagun da nesken soinekoetan. Hala duzu gaurkoa eta ordu bata joko digu kamioiak eskoletara jaisterako. Orain non, eta ez Kaukason edo Kabilian, Yucatanen dugu sendia!

– Zuek bai!

Zuzen zabiltza Manuel. Bai. Gu bai.

## Diego de Landa

Yucatanera heldu denetik mundu ulergaitz bati bezala behatzen dio apezpikuak lurrari. Eta urduri ematen ditu egunak, urduri gauak, eskuineko eskuak hausten duena ezkerrak nola berregingo pentsatzen.

Izamal-en, Popochac euriaren jainkoari eskainitako tenplua suntsiarazi du, iraganaren harri zaharren gainean eraikitzeko frantziskotarren komentua. Mani-n, euren burua kristau aitortu arren sinesmen maiekin jarraitzen zuten indigenak eta hauen irudiak errearazi ditu aurrena, kodizeak botatzeko ondoren garretara. Horregatik, egin sarraskien ordain legez hartzen du latin alfabetoa karaktere maietara aldaraztea. Hala aginduko du. Ezinezkoa dela esango diote. Hizkika beharrean, silabaka osatzen zuten hizkuntza surtara egotzi dituen haiek.

# LA REALIDAD

## –1–

Lacandona ez duzu oihan samurra. Lurrezko pistek nekez egiten dute mendi maldetan barrena, eta oro zaizu den baino itxiagoa. Atzean geratu da zubia. Lur jabeek, kanpotik euren lurrak kentzera atzerritarrak zetozela esanda, pista ibilgarri egiten duen zubitxoa eraitsarazi diete maizterrei. Beso, enbor eta denbora asko behar izan da berriro eraikitzeko. Baina malda beherak ordokia esan nahi du, komunitate bat zeharkatzen duen erreka, fruituen pisuz makurtzen diren landareak, behorrak belaunetarainoko uretan. Umeak eta helduak bide ertzera irtenda kamioiak agurtzen. Eta inoiz amaitzen ez den bidea aurrean, *chicozapote* gero eta gailegoen artean. Eta kafe landareak hauen itzalean. Ez alferrik, Chimalapas eta El Ocote-koekin batera, Ipar hemisferioan geratzen den azken oihan tropikala

duzu behiala La Soledad-eko Basamortua deitu izan zen hau.

1993ko udazkenean, eta Las Margaritas inguruko mendarte guztiak militarrek hartuta zeudela inauguratu zen ospitalea. Handik hilabete batzuetara, EZLNren eskuetara igaroko zen. Izena ere aldatu zioten: Che Guevara. Denbora gutxirako ordea. 1995eko otsailean, herria, eta honekin batera ospitalea okupatu zituen Armada federalak. Harrezkero, sasiak jandako herria duzu Guadalupe Tepeyac. Herri guztia duzu ihesian: bi mila lagun.

Horregatik, orain zapatisten oihan den honetan ere, bada orain arteko agurrak destaina bihurtzen diren lekurik. Moreliatik bederatzi ordura (baina 24 ordu pasa La Garrocha edo Roberto Barrios-tik, bidea eta kamioia lagun), ospitalearen aurrean utzi behar dira autobus handiak. Erizainek iseka barrez hitz egiten dute matrikulak hartu eta jendea filmatzen duten gizonekin. Kaleko arropak dituzte, baina militarrak dituzu. Ospitale berriak zuri-gorri-berdez erakusten dizu izena: *Solidaridad*. Hizkuntzaren krudeltasu-

nak ez dizu zalantzarik uzten. Guadalupe Tepeyacen zaude.

Atzean, oihanaren argigune batean geratu da lehen Aguascalientesa, 94ko udan EZLNk zibilez osatutako Biltzar Nazional Demokratikoaren (CND) eskuetan utzi zuen bilgunea.

– Eromena izan huen.

Eta Raulek badaki zer dioen: haietarik zen. Zapatistek 6.000 lagun ekarri zituzten konflikto gunera. Jaten eman zieten, lozakuak zabaltzeko teilatua, babesa.

– Eta pertsona bihurtu gintuen leporainoko lokatza.

Antolaketa aldetik inoiz neurri honetako armada matxinatu batek antolatu ahal izan duen konbentziorik zailena izan zenuen lehenbiziko Aguascalientes hura. Hilabete behar izan zen oihana garbitzeko, seiehun gizon-emazte lanean, hamalau ordu egunean. Hogei teilatupe antolatu zituzten, sei mila lagunentzako enbor aulkituak, hamalau sukalde, ehun autorentzako aparkalekua, liburutegi bat eta «atentatuentzako gunea».

– Orain ez dago ezer.

Orain mundu guztian ezagun egin den oihana dago. Orain beste ordu erdiko bidea dago, kamioi txikietan baino ezin egin daitekeen bidea La Realidad zapatistaraino. Orain Armada dago bide ertzean, heliodromoak, palmera hostoz kamuflatutako kasernak. Erizain ile-hori bat musukatzen ari den soldadu gazte bat dago. Eta beste kaserna bat aurrerago, eta soldadu bat zaintzan, inork ikusten ez duela eskua altxatzen dizuna, agur egiten.

– Mexikon Armada ez duk inoiz golpista izan. Bazegok zapatismoari sinpatia dion soldadurik.

Bai, baina ez didak dena esango, Raul. Armada mexikarrak ez dik itzal onik 68ko Olinpiadetan Diaz Orgaz-en gobernuaren kontra Tlatelolco plazan protesta egiten zuten ikasleen kontra tiro egin eta hirurehun lagun hil zituenetik.

## –2–

Zazpigarren aldia da ume bera datorkidala, egiten duen beroarekin drauka batean edango banu ere beste nonbaiten egonez gero. Baina

ezinezkoa dut bigarren pekatu bat egitea iraultza zapatistari.

– Ez, ez diat Coca-Colarik nahi.

Antolaketatik ohartu dira, eta luze gabe goizetik hasi dira gaztigatzen ez erosteko edaririk umeei, norbaitek zerbait eman nahi izanez gero oholtzapean uzteko, komunitateak berak banatuko dituela-eta dauden beharren arabera.

Ume asko dituzu saltzaile. Morelian ez bezala, komunitateko umeak Coca-Cola zein palmorri beroan eskainiko dizuten tamalera, jan edo edan daitekeen edozer saltzera hurbiltzen zaizkio kanpotarrari. Eta saltzaileak asko badira eskale bakar bat ez dabil Moreliakoaren aldean *hiri* duzun Aguascalientes honetan. Duintasun zapatista deitzen zaio horri hemen.

– Coca-Cola?

Jende asko falta da. Errekan behar dute izan, komunitateak gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat –elkarrengandik bananduta– prestatu dituen eremuetan. Beroa handiegia zaio jendeari jantzi beharreko gutxieneko arropei buruzko oharrak ulertzeko.

Bazkari ordua ere gertu da eta jende asko da Guadalupe Tepeyaceko emakumeek prestatu duten jantokietako mahaietan eta janaria hartzeko ilaratan.

Tacho komandanteak mikrofonoa hartu du:

– Hurbildu zaitezte, hurbildu. Toki asko dago hemen eta.

Bi bandera mexikar ikaragarrik zaintzen duten oholtzaren aurrean egurrezko aulki tolesgarri asko paratu dute, bakoitzarentzat bat, argituko dizute antolaketatik. Baina bero da, 38-40 graduren bueltan dabil, eta jendeak nahiago du aulkiek osatzen duten plazaren arkupe diren teilatupeen itzala. Hamaketatik, arbolapeetatik, behin eta berriro errepikatzen den erregua da Tacho komandantearena.

– Mesedez eskatzen dizuegu guztioi, itzaletan zaudeten guztioi, ez dadila inor teilatupean gera, har dezala bakoitzak eserleku bat plaza honetan...

Urduritzen hasita, garaiz joan eta leku onenetan daudenek lagunduko diote. Imintzioz hasieran, oihuka geroxeago:

– Ez gara turistak, zapatistak gara!

Hutsune handiak daude, baina Tacho komandanteak ez du hitz bat bestea baino ozenago egingo:

– Anaiok, arrebok, mesedez eskatzen dizuegu, ahalik eta era gozoenean, ahalik eta era samurrenean, esaiezue zuen lagunei, esan zuen hizkuntzatan hurbil daitezela. Denok dugu toki bana. Hurbil zaitezte. Denok dugu toki bana hemen.

Jendea hasia duzu hurreratzen. Polizia Zapatista logela funtzioa betetzen duten teilatupe denetatik pasatuko da, han ezin egon daitekeela adieraziz. Beste batzuek errekara joko dute, han leudekenak ekartzera. Hizkuntza guztietako itzultzaileez betetzen dira mikroak. Hizkuntza batetik bestera emango dira oharrak. Ez duzu zalantzarik, segurtasun neurri legez ulertu nahi duzu hau guztia. Beroak beste erretzen du denborak. Ez da inor ikusten teilatupeetan. Inor ere ez jantokiko mahaietan. Bakoitza dagokigun aulkian gaude eta bero da.

Tacho agertokitik jaitsi eta erdiko pasalekura abiatu da. Jendeak ukitu egin nahi du, esku asko estutzen du. Komandantzia Indigenako maitee-

na duzu, samurrena. Gitarra bizkarrean duela hurbildu izan ohi da, gero gauean kanturen bat edo beste emateko. Bere begiek irribarre noiz egiten duen ondo erakusten dizute.

Berriro oholtzara igota, oraindik ez gaude denok geure lekuetan, esango du.

– Badira beren lekuetan ez dauden anai-arrebak oraindik.

Ez da gutxi anai-arreba deitzea. C*ompañero/a*-ra heltzen ez bada ere, *compadre* eta *comadre*-tik gora dago.

– Segurtasunagatik da, uler ezazue –aitortuko du azkenean.

Eguzkipean daudenen artean gero eta handiagoa da haserrea, egonaldia luzeegia ari da gertatzen. Erreka aldetik datozen PZek keinua egingo diote sarreratik.

– Azkartxo hasi dituk poliziarekin –esan du norbaitek zure atzean.

Hasieratik oholtza gainean zeuden mahaietako ordezkariak ere jaitsiaraziko ditu, aurrez aurre geratzen den teilatupean sartuko gaixoak, medikuekin.

– Orain uste dut denok geure lekuetan gaudela –eta ahotsa hasieran bezain apala irudituko da–. Denok dugu leku bat munduan. Denok dugu leku bat hemen. Ikusten duzue zer kostatzen den. Hori da, ez besterik, guk Mexikoko gobernuari esaten dioguna.

Gogoz bezala lehertzen dira txaloak eskuetatik. Bi ordu pasako lana behar izan du Marcosek hitz-joko maite izango duen La Realidadera heldu diren guztiak bertan biltzeko. Hau duzu errealitate zapatista. Askorentzat ikuskizunaren sarrera baino ez da izan. Gehiago dago, eta denak ziur daude Tachok agertokia uzten duenean *bestearen* bila joateko izan dela.

## –3–

Prentsa salbu, ez da inor aulkietatik kanpo. Eta denbora pasa, astia duzu mendi zarratuekin jolasteko. Guatemalako muga ikustera egiten duzu haien atzean. Eskuadra eta kartaboiz marrazturiko muga ezin artezagoaren atzean jendez beteriko paisaia dago. Han dira zapatisten

anai-arreba maiak: kitxeak, ixilak, kaktxinkelak, tzutuhilak, pokomtxiak...

Oihu batzuk eta jendea urduriegi hauei erantzuteko. Argazkilarien kamerak adieraziko dizute sarrera. Urrunera jotzen dute, eta batzuk hasiak dira esertzeko dioten oihu artean zutitzen, lagunei erakusteko argazkiaren bila edo besterik gabe, kapusaidunak hobeto ikusteko asmoz. Badatoz. Badator. Zaldi eta zaldunen sarrera ez duzu prestatu gabea.

– Dakarten iraultza bezalakoa, pauso lasai baino segurukoa –diost Raulek presakako apunte batean.

«Luzera begirako iraultza», deitzen dute hemen EZLNrena. Sustrai indigenetatik baino ezin uler daitekeen «Aginduak betez agindu» adierazgarria.

Pauso ikusgarriagoa zaldunena baina. Eta kapusai guztien artean jendeak ondokoari bakarra erakusteko luzatzen du eskua. Luzea da besteen artean, eta pipa ketsuak egiten du nabarmen. Paldo luzea darama ezkerreko eskuan, xingola gorri beltzak dituen estandartea.

Aurrean duzun mexikarrak *Gora Marcos!* errepikatuko du oihu batean, baina jendea gehiago dago ikusteko beste ezertarako baino. XX. mendeko azken mitoaren aurrean zaude. Che-ren aurrean, Zapataren aurrean egoterik izan ez zutenen azken aukera da.

– Gora Marcos!

Oholtzaren atzealdea estaltzen duten pankartetako baten gainean jarriko du estandartea. Handia duzu, segaila. Burua ateratzen die Tachori eta apurka-apurka ezagunagoak egin diren Moises eta Triniri. Jantzietatik hasita da desberdin, zapia bera, bisera izartsua, kolorea orobat. Tachok Marcosek hitz egingo duela iragarri du.

– Iñigo, fija hadi, beti behatzen ziok jendeari.

«Zein irribarre polita duen kapusaipean! Esku finak ditu, pianistarenak» diotsue neska batzuek atzean, lilura hori ere sortzen baitu. Eta ahotsa bezain tenplatuak –otuko zaizu– hitz egiten hasi orduko.

– Barkatu berandutu izana. Baina oztopo handiak topatu ditugu bidean. Tachok zioen helikopteroak zirela; Moisesek erraldoiak, baina egia esango dizuet, multinazionalak izan dira.

Keinu literario ulerterraz batez hasteak ez du Raul harritzen. Jakina da Marcosek oihanera ekarri zituen hamabi liburuen artean Cervantesen *On Kixote* izan duela maitea, hala aitortu izan du behin baino gehiagotan. Liburu berau oparituko dio ezkerreko politiko italiar bati. Fitzcarraldorekin bezalaxe, egoki datorkio erroten pasartea zapatismoa eta eromen ederraren arteko hari mehea azaltzeko. Tachok eta Moisesek ez diote sorik egingo. Ohituta behar dute Sup-aren ateraldietara.

Komandanteordeak ez du luze hitz egingo, ongi-etorria emateko baino ez du hartuko hitza. Tachok La Realidad, Oventic, Ricardo Barrios, La Garrocha eta Moreliako mahaietako ordezkariei deituko die, beren lekua har dezaten, agertokian oraingoan. Morelian kulturaz bezalaxe politikaz, gizarteaz, ekonomiaz eta indigenismoaz hitz egin da haietan. Argazkirako gertu legez, mahaietakoak alde bietan, erdi-erdian paratuko dira Komandantzia Indigenakoak, eserita Trini, Moises eta Tacho, metrailetak mantalean, zutik atzean Sup-a estandartea eskuan. Estetikaz ere irabazten dira etsaiak. Eta egia da... ikusleetako

bakoitzarekin egotera egiten dute Marcosen begiek.

Ez dira bost minutu pasa mahaietakoak hauetan hartutako erabakiak azaltzen hasi direnetik eskailerak zaintzen dituen soldaduak paper muturra ematen dion arte. Marcosek esku banatan dituen erloju biei behatu eta zaldi gainera igoko da, Tacho, Moises eta Trini han utzita.

Jendea zain dago, etorri den leku beretik joango den. Ez da handik pasatuko. Oihanean desagertuko da, oholtza atzeko bidezidorrean behera.

– Coca-Colarik?

– Ekartzazu bat –diotsat azkenean umeari hiru pesoak eskuan.

Arratsalde luzea izango da gaurkoa, sorbaldak estali beharko ditut erre ez nadin, eta pentsatu ere pentsatu beharko dut itxaroten gaur ikasi dudan edo lehendik nekien. Itxaroten! Komeni da. Iraultza honekin ez daukazu jakiterik.

# Francisco Javier Mina

Napoleon-en kontra aritu izan zen su berarekin dabil Espainiako Fernando VII.aren aitzi. Cadiz-en 1812an onartzen den konstituzio liberala koloniena ere bada, hala aldarrikatzen du Mina nafarrak lau haizetara. Ingalaterrako Galveston-en batuko ditu armak eta gizonak, eta 1817ko apirilaren bosta da Soto la Marina jotzen duenerako, Fray Servando Teresa de Mier duela lagun.

Potosi-rekin batera Ameriketaren aberastasuna batzen duen Guanajuato aldera egingo du. Han ibili da Hidalgo, han dabil Morelos. Baina independentziaren aldeko matxinatuek ez dute konstituzioarena beren gerra.

Zuhaitz beltzenen itzalean fusilatuko dute erregetiarrek Minaren irribarre goibela.

# DURITO-REN MINTZOA

– Hamar dolar karrete bat!

Kexu da Pepe, Kubako gazte aldizkari bateko argazkilaria. Dakarren presupostu eskasarekin, eskean lortu behar izan ditu hamabiko karrete bat eta osoko bilkuran irakurriko diren azken agirien fotokopiak. Itzela da kazetarien merkatu beltzean dabilen harat-honakoa.

– Gaur ere berandu agertuko duk.

Jendea itxaroten edukitzearen fama du Marcosek. Hala eduki omen zuen Cardenas lehendakariaren seme eta PRD ezkertiarreko buru den Cuauhtemoc Cardenas bera ere, Urteberriko matxinada ostean biek izan zuten lehen elkarrizketan. Hala du gaur nazioarteko prentsa eta hauen atzean, segurtasun lerroaren atzean aulki tolesgarrietan erruz pilatzen hasia den jendea ere.

Oholtza gaina eta ingurua zainduko dituzten zapatistak zortziak arra-arrarako bazeuden zabalduak, zortzi eta erdiak dira kasik Marcos eta

Moises, zaldi gainean biak, atzoko leku bertatik sartu direnerako. Segurtasun neurriak askoz apalagoak dituzu atzo aldean. Txalo herabe batzuek emango diete ongi-etorria. Goiz duzu eta iratzarri gabe jarraitzen du zapatista sutsuak.

– Lehenengoz eta behin, barkamenak eskatu nahi ditut atzo izan genuen jarrerarengatik. Ez gaude ohituak bi mila lagun izaten etxean, eta gure segurtasun neurriak zorrotzegiak izan ziren. Bada eguzkitan denbora gehiegi egoteagatik gaixotu zenik ere. Barkatu ote diguzue.

Ahazturik nuen. Askorentzat ez da Marcos Marcosen ahotik eztiki hitz egiten ari dena, Durito baizik. Hala egin dio diosal-oihua entzule batek nire atzetik. Sup-aren testuetan Marcosekin eztabaidan aritzen den labezamorroa duzu Durito, amarru literario bat, Marcosen barne mintzoa.

– Zelan doa EZLN FZLN bihurtzeko prozesua? Noiz irtengo duzue menditik eta zein izango da Marcosen etorkizuna?

Galdera Julia Preston-ek egina duzu, *The New York Times*-ek Lacandona-ra bidali duen kazetariak.

– Armada Zapatista Fronte Zapatista bihurtzeak bide bi ditu. Alde batetik frontearen antolaketa, hau da, zapatista zibilekin osatu alternatiba dagoeneko Mexikoko Errepublikako 32 estatuetatik 31n dagoen egitura nazionala da. Armada Zapatista bezala, argi dago ez dagoela botereagatik borroka egiterik, ezin dugu kargu publikoak lortzera jo. Beste bat izan behar du estrategiak. Prozesu honetan hazi egin gara, batez ere ekainean San Cristobalen burutu zen foroaz geroztik. Beste bidea San Andres-ko Elkarrizketak dira, eta EZLNk bide politikoa har dezan beharbeharrezkoak diren baldintzen menpe dago. Hor gobernuaren diskurtso bikoitza dugu aurrean. Publikoki guneak zabaldu behar direla dio, negoziatu egin behar dela. Baina benetan, gerrarako prestatzen ari dira. Gobernuak azkar jokatu nahi du, eta EZLN burugabetu, ahal badu, horrela, gorputzarekin minimoak negoziatzeko.

Marcosek ez du baikor itxura ematen. Hau ez duzu entrega bat.

– Legez kanpoko gobernadorea dugu Chiapasen, Gobernuak eta lurjabe handiek ordaindutako guardia zuriek gero eta ekintza gehiago egi-

ten dituzte. Negoziazioak zelan doazen ikusita, gu indar politiko bihurtze hori hutsean geratuko dela ematen digute aditzera. Garbi dugu gobernuak ez duela bakea sinatu nahi, larrutik ordainarazi nahi digute 1994ko urtarrileko desafioa, eta Merkataritza Librearen Ituna-ren porrota nabarmenarazia EEBBek. Oihanetik noiz irtengo dugun? Hemendik gutxira, eta 95eko martxoaren 11ko elkarrizketetan erabakiak babestuta irtengo dute komandantziako batzuek Mexiko guztira FZLN hedatze asmoz. Marcosi buruz berriz, Topaketak amaitu bezain laster lotara bidali behar dugu, nahikoa ergelkeria esan du-eta dagoeneko. Bere etorkizuna komunitate indigenei loturik dago. Haientzat irtenbide ona bada, hala izango da Marcosentzat ere. Haientzat txarra bada, Marcosena txarra izango da. Besteari dagokionez berriz, uste dut, tamalez, mendia, puska baterako badugula.

Gizonezko ahotsa duzu orain galdera egile, Ginni Mina italiarra da, zakur zaharra Hego Ameriketako auzietan.

– Zein dira elkarrizketetatik zerbait ateratzeko gutxieneko baldintzak?

– Nik hiru direla esango nuke. Bat: gobernu ordezkariak aldatzea, errespetoa nahi dugu gure ordezkarientzat. Oraingo delegazioa hauen sentimenduak eta duintasuna mintzera baino ez da etorri bildu direnetan, zapalketak iraun dituen 500 urteak gogorarazten baino ez dira ibili. Bi, ingurua desmilitarizatu eta laguntza sozialeko egitarauak egiazko izan daitezela. Eta hiru, agiriko politikara aterako diren zapatisten bizitza eta askatasuna ziurtatuko duten bermea eta konpromezu argia. Azken batean, mexikarrok dugun arazoa hori bera baita, oinarrizko eskubideak falta ditugula. Hori da zapatisten borroka arrazoia, herriaren demokratizazioa. Eta ez Mexikoko mexikarren alde bakarrik, bestaldeko Mexikokoen alde ere bai: Kalifornia, Arizona, Mexiko Berria eta Texas-ko mexikarrena.

Harro-patsa da, ongi daki Sup-ak. Goizeko zazpietarako Frantziako ordezkaritzarekin bilera izan duen Superbarrio Gomez-ek ere agindua du azaroan EEBBetan izango diren lehendakarirako hauteskundeetan parte hartuko duela. Hango mexikarren interesak defenditzeko, esan du.

*Aberriaren zera hau*
*zaila da azaltzen.*
*Baina are zailagoa da*
*aberria maitatze hori.*
*Esate baterako,*
*aberria maitatzea*
*bandera agurtzea zela*
*erakutsi ziguten,*
*zutitzea Himno Nazionala entzun orduko.*
*Futbol selekzioak galtzen duenean*
*neurririk gabe mozkortzea.*
*Eta neurririk gabe mozkortzea*
*futbol selekzioak irabazten duenean.*
*Sei urtetik sei urtera*
*ezer gutxi aldatu diren esate baterako*
*batzuk.*

Historiako klaseetan irakasten ez den gaia da sentimenduena. Mexikarrentzat Mexiko ez da Rio Bravo-n (Rio Grande EEBBetako mapetan) amaitzen. San Diego-Tijuanatik Brownsville-Matamorosen artean dauden hiru mila kilometro ez dira muga, zubi dira. Beti aurkituko duzu *izan zirenaren* lurralde zabal hura gogoan duenik.

– Zein da baina zuen asmoa?

– Neoliberalismoa zanpatzeko ez da nahikoa herri baten, edo talde sozial baten edo jendearen gogoaren jazarpena. Zerbait berria eraiki beharra dago munduan. Anaitasunean, ahizpatasunean oinarriturikoa izango dena. Milioika eta milioika pertsonak mundu guztiak konpartitzen dugun amesgaiztoari akabua ematea. Iturburua herrialde industrializatuetan dago, eta badakigu. Badakigun bezalaxe herrialde hauetan ere miseriak erasotutako eta eskubide politikorik gabeko sektore handiak daudela. Horregatik da borroka nazioartekoa.

– Baina hor duzue herrialde sozialisten porrota.

Ez Miamiko Radio Marti-tik, Kubako *Juventud Rebelde* aldizkaritik dator galdera.

– Hori Hirugarren Mundu Gerraren eragina izan zen, Gerra Hotzarena. Maila guztietan eman zen erasoa izan zen, bai politikan eta bai gizartean, eraso militarrak zein diplomatikoak. Gerra guztietan dago galtzaile bat. Hemen Sobiet Batasuna izan zen. Honek bazuen eredu bat, baina huts egin zuen. Herria ez zen eredu hori defendi-

tzeko gai izan. 80ko hamarkadaren bigarren partea domino-efektuarena izan zen. Gu 83an igo ginen mendira, eta ez ginen 94ra arte jaitsi. Atzean utzi genuen munduak ez zuen zerikusirik jaitsi ginenean aurkitu genuenarekin: FSLN, FMLN, Guatemala, Kuba... ez genekien zer zen gertatzen ari zena. Cardenismoa, salinismoa... Ez genuen 1988ko Gezur Handiaren berri. Gurea komunitate indigenen mundua zen, politikoki ere, XVI. mendean geunden. Eta hor, utzi genuen mundua baino mundu hobeago bat aurkitu genuen. Ikastea egokitu zitzaigun. Politika La Realidad-eko basatza hau da. Urrats bakoitza zaindu behar da.

Orain arte isilik egon den kazetari iparrameri-kar bat da mintzo dena, Monique bezalaxe *prentsa independientea* txarteltxoa daramana:

– Esango zenituzke hitz batzuk Abu Jamal-en alde, orain dela hamahiru urte heriotzera kondenatua Estatu Batuetan?

– Azken agirian emango dugu gure iritzia munduko preso guztiei buruz. Baina gauza bat esan nahi nuke honezaz. Botereak kartzela edo heriotza baino ez digu eskaintzen. Berari eta

munduko preso politiko guztiei, gure agurrik beroena bidali nahi diegu.

Agudo isilarazten dute baina. Badira ozenago egiten duten ahots gaiztoagoak.

– Zergatik dago Marcos dagoen lekuan?

– Gertatzen dena da Marcos talde honen buru jartzen dutela, baina ez dago besteengandik desberdin egiten duen ezer... beno, gauza bat salbu.

– Zer da?

– Sudur hau!

Galdera nagusiaren erantzuna berea zuela uste zuenean egin dio ihes izokinak presan gora kazetariari. Zail izango du berriro ere hain gertu edukitzen, eta oholtzan beherako bidea hartu du arrantzaleak. Pepek egin didan keinua eguzkia bezainbeste ikusi dela pentsatzen dut.

*Eta esate baterako,*
*ez ziguten erakutsi aberria maitatzea*
*bazoazelako planta egin eta txistua*
*jotzea dela,*
*baina,*
*muino haren atzean ere aberria dago,*
*eta inork ez gaitu ikusten,*

*eta elkarrekin gurutzatzen gara*
*(beti gurutzatzen baikara*
*inork ikusten ez gaituenean)*
*eta esate baterako*
*zenbat gorroto dugun esaten diogu*
*(aberriari)*
*eta zenbat maite dugun*
*eta hori beti hobe da esatea,*
*esate baterako*
*tiroka eta irribarrez.*
*Eta esate baterako,*
*aberria maitatzea*
*charro kapelua janztea izan daitekeela*
*esan ziguten, esate baterako,*
*Haur Heroien izenak jakitea,*
*«Viva-arriba Mexico» deiadar egitea,*
*Mexiko behean eta hilik egon arren.*
*Sei urtetik sei urtera*
*gutxi aldatzen diren esate baterakoak.*

– Preso diren zapatistekin jarrera gogortuko dute. Bahiturik dituzte. Honekin eta komunitate indigenen gaineko zainketarekin abantaila lortu nahi dutela uste dut San Andres-ko Elkarrizketetan. 95eko otsaila oso garai txarra izan zen gure-

tzat, amesgaizto bat. Baina gobernuak ere badu berea: zapatistak ez dira amatatzen. Salinas de Gortarik ondo esan zuen: Chiapasko lau udalerritako kontua baino ez da. Lau udalerri eta 43 herrialde? Salinasek arazo larriak ditu geografian! Europan zapatismoak interesa sortzea garrantzitsua da guretzat, Mexikoko gobernuak interes asko duelako han. Baina hau duzue gobernu honen proiektua. Ongi saltzeko, indioak ezkutatu egin behar dira, pobreak eta itsusiak (barkatu, hor ditugu Salinas edo Zedillo bera) bezalaxe. Eta badirudi Kanada eta EEBBekin sinatu akordioa ez dela nahi bezain egoki ateratzen ari. Ezin da harreman komertzial bat krimenaren gainean eraiki. Europarrek konturatu beharko lukete. Hemen ari zarete ikusten. Horregatik ekarri zaituztegu hona. La Realidad Lacandona oihaneko Zona Rosa duzue...

Ironia galderaren neurrian hasia dago lagatzen Marcos. Baina badaki jendea kontentatzen ere.

– Che aurkituko bazenu, zer esango zenioke?

– Jar hadi hi, ni banoak eta.

– Eta zergatik da etsaia neoliberalismoa?

– Eskuina ez da inoiz etorkizuna izango kontinente honetan. Denda asko dituen azalera handi horietako bat (ingelesez egiten dizu, jolasean) egitea da: hemen umeak saltzen ditugu, han emakumeak... Eta honetan ezkerrak asmatu behar du orain arte existitu ere egiten ez ziren errealitateak jasotzen (hemen orain bezala). Uste dugu aberastasun hau dela irtenbidea. Gu horrekin identifikatzen gara. Higatze handia izan dugu, eta orain borrokatzen ditugun arazo asko geuk sortuak dira. Ezkerraren etsairik handiena ezkerra bera da.

– Uste duzu badela turismo iraultzaile bat?

– Kontinentearteko Topaketa hauengatik ari bazara uste dut ikustea besterik ez daukazula zein baldintzatan gauden: euria, polizia, lokatza... ez dut uste hori denik kontua. Zapatismoak zerbait ukitu du. Hona ez da turistarik etortzen. Hona soldaduak edo lagunak heltzen dira. 1994ra arte ez ginen mexikarrak. Ahanzturaren, heriotzaren herritarrak ginen. Indigenek merezi zuten hau. Galaxiartekoa izango da hurrena. Etor daitezela martiztarrak eta proba dezatela hemengo lokatza.

– Zer bota behar da mende honetatik zakarretara?

– Asko da bota behar dena eta poltsiko batean sartzen da gordetzea merezi duena. Mende krudela izan da hau, pertsona kanpoan utzi duen mendea izan da hau. Eta gorde... musika gordeko nuke, literatura, poesia, arte plastikoak... pertsonari bere burua ezagutzeko baliagarri zaizkion giza adierazpen horiek...

Horrelakoekin, EZLNren estrategiari dagozkion galderen erantzunekin baino era honetakoekin harrapatzen du jendea, eta ezagun du. Supa hazi egin da, lasaiago dago. Pepe etengabe ari da atera eta atera. Ez dakit nondik inguratu duen beste karrete bat, baina berri batekin ari dela esango nuke.

– Eta horrela konponduko al da indigenen arazoa?

– Indigenen arazoa ez da hemen konpontzen. Gure etorkizuna munduaren etorkizunari dago lotua, kurduen etorkizunari, australiarrenari, japoniarrenari... Ispilua bezalakoa da. Ispilu bat jarri dugu tranpa moduan eta ezingo dute irten. Zapatismoa orina da, eta orin asko behar ditugu.

– Eta topaketa hauetako onena?

– Prentsa zer ondo portatu den. *Ándale, mañoso!*

– Bada harremanik EEBBetako komunitate beltzekin?

– Gutxi, oso gutxi. EEBBetako komunitate beltzekin ez dugu ia harremanik. Hobetu behar dugun puntua da hau. Afrikan berriz, ikusten duzu. Oso zaila da jendearekin harremanetan sartzea. Uste dut etorri direnek (Mauritania, Hegoafrika) zerbait egingo dutela, baina ez da erraza.

– Marcos harrapatzen badute, Salinas-ekin berdinduko al dute?

– Asko maite dut nire burua. Ez ote dute hori egingo!

– Eta armak, noiz entregatu behar dituzue?

– Begira, gauza bat Frente Zapatista bihurtzea da eta beste bat armak etsaiari ematea. Eman begiratu bat Latinoamerikako historia gertuari. Eman begiratu bat Nikaraguako FSLNri. Hauteskundeena ez nintzateke ausartuko porrota izan zela esatera, eta gainera ez dut Fronte Sandinista barrutik ezagutzen. Utz diezaiogun

historiari bere bidea egin dezan. Azken batean, ez da arma arazoa, bide arazoa baizik. Beste talde batzuk ere ari dira sortzen Guerreron, Veracruzen, Pueblan, Oaxacan... Konpondu beharko dute.

– Eta zergatik ez egin bat Ertamerikako maia guztiekin?

Monique-ren ahotsa izan da, atzo autobusean izaniko elkarrizketa gogoan-edo hemen nabilenetik buruan darabildan galdera egin duena.

– Chiapasko indigenak Mexikon du begiratua, ez Ertamerikan, berezko familia hor duen arren. Antolatuek horrela ikusten dute. Interes handiagoa dute Mexikon gertatzen denarekin bestearekin baino. Guatemalako bake elkarrizketak izan zirenean ohartu nintzen horretaz. Euren afera da, esaten zuten indigenek. Horrela da eurentzat.

– Bertan dugu 1997a, zer izango da?

– Ez EZLNk eta ez FZLNk ez dute parte hartuko hauteskundeetan. Data gainean dugula ikusiko da, baina ez dut uste. Mexikok arazo handia du hauteskunde erreformaren auzi honekin. Galdua du sinesgarritasun osoa eta prozesua kora-

pilatsua da. Eta honek arazoak baino ez ditu ekartzen. Egoera honekin, 95ean Chiapasen bezala, hauteskundeak tranpa handi bat dira. Talde armatu berriak sortuko dira, narkotrafikoa, delinkuentzia, ustelkeria...

Zer esaten diegun egin genuena erridikuloa izan zela diotenei? Gora demokrazia!

– Zer iritzi duzue Guerreron agertu den EPR taldeaz?

– Deigarria izan da. Baina konponbidea ez dago Guerreron edo Chiapasen. Errepresio horrek orain ez du erantzuna protesta edo kexua. Beste era batera ari da antolatzen. EPRri berari dagokionez, oraindik ikusteko dago talde honen legitimitatea. Erantzuten batere samurra ez den galdera da hau. Guri hogeita hamahiru hilabeteko asedioa kostatu zaigu. Ikusi egin beharko dugu zertan datozen bat EZLNrekin, baina momentuz EZLNk ez du inolako harremanik beste inolako talde armaturekin.

*Eta esate baterako,*
*ez ziguten erakutsi*
*aberria maitatzea*
*hiltzen ari den hura bezala isiltzea*

*izan daitekeela, esate baterako,*
*ez ordea,*
*lur honen azpian ere bada aberririk*
*eta inork ez gaitu entzuten*
*eta gurutzatu egiten gara*
*(beti gurutzatzen baikara*
*inork entzuten ez gaituenean)*
*eta pixkanaka-pixkanaka berau*
*maitatzeko*
*hil zirenen bizitza txiki eta latza*
*kontatzen diogu*
*(aberriari)*
*eta orain ez daudela hemen zuzen*
*nabilela esateko,*
*baina ez egonda esaten didate haiek,*
*aberria, esate baterako*
*tiroka eta irribarrez maitatzen dela*
*erakutsi ziguten haiek.*

(«Arazoak». Marcos komandanteorde matxinatua, 1987)

Marcosek amaitu duela ematen du aditzera. Badoala, uzten badiote behintzat, bart gaua ere luze joan dela, eta lo egingo lukeela gustura. Baina kazetaria ez dago bakerako.

– Eta emakumeen borroka?

– Mugimendu zapatista ez da EZLN bakarrik. Badira hiru antolaketa maila euren barruan: laguntza baseak, borrokalariak eta buruzagiak. Logikak desberdinak dira hiru nibelotan, eta hala ikusi behar da. Borrokalariek lortu dutena baseetako emakumeek lortu dutena baino gehiago da. Oraindik luzea da bidea zer izan nahi dugun eta zer garenaren artean.

– Eta zer diozu Tilan-eta gertatzen ari denaz?

– Chiapas iparraldean guardia zurien arazoa larria da. EZLNk gauza bakarra eskatzen du: errespeta daitezela San Andresko Elkarrizketak. Gobernuaren erantzuna beste bat da ordea: indigenak indigenen kontra jartzea. Azken batean aitzakia baino ez da Armada sartu eta alde bietakoak hiltzeko.

– Zergatik neoliberalismoaren kontrako topaketa hauek?

– Neoliberalismoaren kontrako iniziatiba ez da baina zapatismotik sortu, gu guztiz ados gauden arren. Azken batean balaren teoriaren ondorioa baino ez da. Begira, jarrai diezaiogun hiltzen gaituen balari. Fusilaren begia dugu, fusila, sol-

dadua, Armada, Gobernua, Bankuak... Banku handiek, alderdi honetatik, bat egiten gaituzte denok. Gu hiltzen gaituzten balek beste pertsona asko hiltzen dutela ohartu ginen.

Nekatuta nago. Utz nazazue, mesedez.

– Azkena. Zertan da El Barzon-ekin lortu akordioa?

– EZLN eta El Barzon, bion interesak defenditzen dituen itun bat dago. 1997an egongo da proposamen zehatzagorik Gobernuaren politika ekonomikoaren kontra, baina ez da ahaztu behar bakoitzak bere borroka duela.

– Noiz jasoko da alkoholaren gaineko debekua?

– Komunitateen eskaera izan zen. Euren esku dago. Nik neuk zer irizten diodan? Uste duzu ni neu izango banintz hemen egongo nintzatekeela? Zuek hona ekarri zaituzteten autobus horietako batean joango nintzen! Eta banoa, ez autobusean baina.

Kazetari ez direnak eskaileretara hurbildu diren arren, nekez dute foto onik aterako. Atzo bezalaxe, agertoki gibeleko bidezidorrean behera egingo dute zaldi eta zaldunek polizia zapatis-

taren barrera atzean. Pepe ez dela ahalegindu ere egin ikusten dut.

– Iñigo, trago bero batera gonbidatu behar nauk.

Asmatu duk, neu ere nekatua nagok eta, nolanahi ere, beti izan diat kubatar egarbera bat atxurtuta egon gabe gonbidatzeko irrika. Emango ote digute edatera!

– Eta hire apunteak?

– Ondo uste diat. Zuek baino amerikarragoak gaituk.

– Kostatuko zaizue. Eta Kubatik esportatutako Che hau? Zer iritzi diok?

– Ironikoegia agian. Baina eskertzen duk –diotsat.

– Konfiantzan. Irabaziko ote ditek. Zein gringok erakutsi ote ziek kafea egiten!

## Iraultzaren erroak

AK fusilak nondik atera dituzten galdetzen dute zapatismoa gorroto duten kazetariek. Ez die inork erantzungo. Eta hala behar du. Berlingo Harresia ekialdera erori zen osteko lehena da, eta mundua horrela harrapatu behar da, ezustean, urduri. Iraultza honek sendoak ditu sus-

traiak baina. Arrazoietarik batzuk Mazariegos eta Alvaradoren garaitik datoz. Beste batzuk hurbilagokoak dira. Kafearen salneurriak nabarmen egin du behera. Bizitza maila oso jaitsi da. Chiapasen, nekazari jaiotzea hila jaiotzea da. Eta konstituzioaren 27. artikuluak ez ditu latifundioak iragan bihurtuko.

Chiapasen, auzo-lurren kulturatik iraularazi nahi da historia: *zergatik ez diguzue galdetzen nondik atera ditugun lanerako erabiltzen ditugun matxeteak?*

# TELETIPOEK BADAKITE MARCOS NOR DEN

## –1–

Zapatak atxikarra falta zizun. Villaren buruak munduko zuhurtzia guztia zuen barnean. Horregatik ebatsi zuten... 1910eko Iraultzari buruzko istorio hauek guztiak ez zenituzke liburu polit baterako apunte baino Ernesto Zedilloren gobernua ez balitz horren baldres eta esku-bereko sartu izan egungo buruzagi iraultzaileen galeria argitzera.

1994ko abenduaren 8an, eta PRIk Chiapasko hauteskundeetara aurkeztu eta hauek era ustelean irabazi zituen Eduardo Robledo gobernadore izendatzearekin batera, menia hautsia zegoela aldarrikatu zuen EZLNk. Ondorengo egunetan, zapatistek hogeita hamazortzi udalerri hartzen dituzte. Komunitate berri batzuk arrabataiatzeko

aprobetxatzen da. «Libertad de los Pueblos Mayas», Ocosingon; «Tierra y Libertad», Las Margaritasen; «Ernesto Che Guevara», Ocosingon; «Trabajo», Palenquen; «Francisco Villa», Salto de Aguan... Armadaren erasoa berehala helduko da. Gerra hotsa da aire zabalean, baina zapatistak mendian gordeko dira eta azkenean ez da enfrentamendu armaturik egongo. Aste gutxitan, pesoak ehuneko ehun galduko du daukan balioa. Ez aberats ez pobre direnek igarriko diote gehien. Pitinka-pitinka, desagertzen ari duzu gizartearen erdiko apala.

Urte berriarekin, urtarrilak 15 dituela, Esteban Moctezuma, Gobernazio idazkaria –Mexikoko Barne ministroa–, Marcosekin elkartzen da Lacandona oihanean. Otsailaren 5ean, DFtik iparraldera, Queretaro-n, Mexikoko alderdi eta erakunde gehienak biltzen dira, Calles-en garaitik boterean laurogeita sei urte dirauen PRIkoak barne. Abuztuko hauteskundeen geroztik Mexikoko lehendakari berria den Zedillok diskurtso baikorra agertzen du Chiapasko gatazkarekiko.

Handik lau egunera Marcosen argazkia ematen du prentsan, kapusairik gabe eta bizar zarra-

tuarekin ageri da. Harrapatu dute. Ez dute gerrilaria bera, pipa erretzen duen komandanteorde egolatra atzeman, baina dagoeneko Marcos ez da mito bat. Iragan bat du. Ahulagoa da beraz.

Rafael Guillen Vicente deitzen dela dio, eta Tampico-n jaioa dela, Tamaulipas-en. Hogeita hamazortzi urte ditu. Teletipoek ok egin arte aletzen dute XX. mendeko azken mito gerrilariaren biografia. Gurasoek, Alfonso Guillen eta Socorro Vicente, altzari denda zuten han. Eurekin bizi izan zen Marcos DFra, UNAMera joan zen arte. Han, unibertsitatean, estrukturalistak zituen maiteen, Althusser eta Foucault batez ere. Han ezagutu zituen garai hartan ezaguna egin zen FLNko beste burukideak, eta haietako batzuekin hartu zuen Nikaraguako bidea, sandinista orduan. Nikaraguan non eta norekin ibili zen azalduko da, sandinistetako zein komandanterekin zuen harreman zuzena eta noren etxean egin ohi zituen otorduak. Han entrenatuta ekin zion Chiapasko gerrila antolatzeari.

– EZLNren burua ladinoa da, ez da indio bat –dio azkenik Zedillok.

Marcosekin batera German, Gabriela, Elisa, Vicente eta Jacobo-ren identitateak emango ziren ezagutzera. Atxilotu asko izango da ondorengo egunetan EZLNko buruzagien artean. Marcosi, hala esaten da, ozta-ozta ez diote eskurik erantsiko.

Baina irabazleen logika eta mundutik haratago badago beste mundu eta logika bat.

## –2–

Hiriburuan, DF beldurgarrian («ostiral gaua da. Ez irten beharrezkoa ez baduzu» gaztigatuko dizute TV Azteca eta Emilio Azcarraga-ren Televisa-ko saio *horietatik*) milaka eta milaka lagun bilduko dira Marcos eta EZLNren aldeko manifestazioan.

– Denok gara Marcos!

Oihu bakarra da. Zedillo erratua dago eta Zinezkotasun Miresgarria ez dago Aeromexico-ko foiletoetan, prezio onean eskainiko dizuten Ibilbide Maiako bazter galduetan. Chiapastik ehundaka kilometrora zapatisten matxinada kalean de-

fenditzera ateratzen diren haiengan dago. Gau hartan, nahiezta bezala botako dio galdera bere buruari Errepublikako lehendakariak: zer behar du DFko biztanleak jesuita eta sandinistekin ikasitako kapusaidun bat hain bere egiteko, haren txanope berean sartu eta harako Guillen harekin urtzeko?

Ez da gaur goizeko kontua. PRIko buruak aspalditik zetozen ohartarazten: «Matxinatutako asko indio elebakarrak dituzu». Iraultza osteko lehen egunetako tonua zenuen hori: «bertoko eta arrotzen nahasketa dira zapatistak. Ertameriketako beste herrialde lagun askotako antolaketa era biolentoekin dute zerikusia. Behartuta erabiltzen ari dira indigenak hauen buruzagiak». Manipulatuaz gain, irakurtzen ez zekiten haiek ez zutela iraultza egiteko ahalmenik esaten ari ziren. Ohartuta zeuden, fusilak zituzten, ez matxeteak.

Lehendakariak ezezik, arrazakeriaren buztan beretik heldu zion Chiapasko aferari apiril hartan Jaime Labastida, Barruti Federaleko hoteletan errazen aurkituko duzun *Excelsior* egunkariko erredaktoreak ere: «Chiapasko altxamenduak ez

du aurrekorik. Koloniaren mendeko hiru mendeetan eta independentzian daramatzagun 170 urteetan ez da antzeko ezer gertatu. Chiapasko indioak mexikarren kontra matxinatu dira armak eskuetan. Espainiarren kontra egin ez zutena gure kontra egin dute orain».

Nahita estaltzen du hipotesi arrazistak gertaeren izana. Gezurretan ari da, Labastidak badaki egon zela iraultza tzeltal bat 1712an, egon zela iraultza bat Chamulan 1869an. Espainiako erregeordearen kontra aurrena. Mexiko porfiristaren aitzi gero. Ez da Chiapasen gertatzen den lehen iraultza.

«*Marcosik ez da*», idatzi zion honek 94ko abenduan, iraultza urtebete egitera zihoala Zedillo lehendakariari igorritako gutun publiko batean. «*Hila jaio zen Urteberri egunean».*

– Denok gara Marcos!

Denak dira ez dena. Eta Guillenen izena zabaldu orduko, estetika oso bat da DF mozkortzen duena. Otsaila da. Insurgentes-tik El Angel inguruan fotoa atera eta Paseo de la Reforma-n aurrera egingo du manifestazioak. Zocaloan mundua ikusiko duzu paliakate gorria lepoan eta

Emiliano Zapata, Cuatlan Jesus Guajardo koronelaren etxaldean zaldi gainetik erortzen ikusi zuten haren afixeek katedraleko burdinazko hesia betetzen dute. Hau bada Cleofas Salazarren semea, sable giderra ezkerrean eta karabina eskuinean, bularraldea alderik alde zeharkatzen dion bala sorta eta begirazuna «hemen naukazue» esaten bezala.

– Denok gara Marcos!

Zedillo trakets ibili da. Herren eman du urratsa. Hiriko zapatistentzat, kapusaiena ez da marketin kanpaina hutsa. Mundu oso baten ikurra da, identitate pertsonalen urtzea. Baina ez da ulertzen.

– 504 urte ulertu gabeko zaparradan!

Izengabeaz oroitzen naiz, labana txori eri bat bezala esku zabalean.

Zocalorantz, mundua dator oldean, Zapata eta Marcosen afixeak nahasian. Bellas Arteserako bidean, Madero karrikan barrena, egunkari bat zabal-zabalik dutela, neska lotsagabe bi hurbildu zaizkio gizon heldu bati:

– Antzik aurkitzen al diozu?

Rafael Guillenen fotoa da, aurreko egunean mundu guztiko telebistetara teletipoek hedatu duten bera.

– Egia esan, ez du antz handirik –dio gizonak ahoa bilduz.

– Nahiko luke Rafael Guillenek Marcosen begiak ukan!

Emiliano Zapataren atxikarraren teoria da, Mexiko zientifikotasunez bustitzen ahalegintzen den positibismoaren kontra altxatua. Zedillo berandu ohartu da: Marcos identifikatuta, iruditeria oso bat da loerotik iratzarri dena. Orduan baino ez da oroitu laino duen Kubrick-en *Espartako*-ren eszena haiezaz. Bentzutu guztien artean Espartako nor den galdetzen diete gatibuei erromatarrek. Espartako bera zutitu eta «ni naiz» dio. Benetakoak aitortu orduko, eta banan-banan, denak altxatuko dira «ni naiz»ka. Hurrengo egunean, gurutzean josiko dituzte espartako guztiak Erromako ateetan.

Elena Poniatowska, Carlos Monsivais, Antonio Garcia de Leon... andana dira eromenaren logikan murgildu diren idazleak, inplikazio pertsonal

handiekin agertzen direnak medioetan EZLNren alde.

– Eta Octavio Paz?

– Ez haiz benetan ari.

Igarri diot. Gaztetako Paz maite du Raulek, ez neoliberalismoaren apostolu nagusi bihurtu den Octavio Paz hau. Halarik ere, Octavio Pazena da Zapataz Oaxacako Katedral aurrean PRDko postuan erosi nuenetik neurekin arrastaka daramadan biografia. Aitarena baina, Paz Solorzanorena. Zapatarekin ibilia zenuen Morelosko partidetan.

– Zuk izango duzu zer kontatua.

Raul izan da elkarrizketaren berora gure teilatupera heldu berri den Superbarrio Gomez-i bota diona. Ondo agertzen da otsaileko manifen kariaz eginiko bideoetan-eta, «Ni ere Marcos naiz» kartela aldean duela. Eta han bezalaxe, berdin jantzia duzu orain ere, borroka-libreko maskara eta uniforme gorri-horia eta kapa luzea lepotik, trikotean egin galtzontzilo urrezkoak malla gorrien gainetik eta SB handia paparrean.

– Zer esango dut bada nik. Guerreron ere, Lucio Cabañas ez zutela hil esaten dute.

70eko gerrila ezagunena izan zen Partido de los Pobres-en fundatzailea duzu Lucio Cabañas. Eta Zedillo bezain ezaguna Superbarrio Mexiko DFn, Lurrikara Handiaren aurretik «neskameen senargaien idolo» zen El Enmascarado de Plata bezalaxe. Kapitalaren kontrako borrokalaria, ikustekoa duzu auzune txiroetako umeek dioten debozioa haren kontrako antzezpen-borroketan. Arena Coliseo-ko borrokalariak, Maestro Solar, Cicloncito Rodriguez..., nahi duzuna hautatu, ez dituzu Superbarrio bezain maiteak. Maila sozial-politikoan, kartier osoak hipotekaturik dituen bankuak prezintatzen-eta, antzeko ekintzetan harrapatuko duzu zorte apur batekin. Mexiko duzu hau, eta Zinezkotasun Miresgarria ez da idazleen asmakizuna. Zapata ez da hil. Chiapas-ko Hungarian bizi duzu orain.

Heldu denetik maskara kentzeke, egosten sumatzen duzu latex gorriko maskararen azpian. Ihesi doakio izerdi beltza lepoan behera.

– Denok gara Marcos.

Eta haurtzarora itzultzea da, umearen begi beteak erromatarren gatibu oro «Espartako ni naiz» aldarrika.

Mexikarrentzat, eta Zedillo lehendakariak badaki, Marcos ez duzu Rafael Guillen delako hori.

## PRI

*Partido* deitzen da, alderdi baita azken batean. *Revolucionario,* iraultzan ditu-eta sustraiak. Eta *Institucional*, iraultzak ere forma behar duelako. PNR deitu zuen Calles-ek, PRI deitzen du Lazaro Cardenas jeneralak. *Lehendakaria eta Alderdia* formularekin nazionalizatuko ditu petrolio putzuak. Lurrak banatuko dira. Industria haziko da. Gizartea zibilduko. Burokrazia sendotuko. Hazkundea eta justizia soziala, definituko dute analistek.

Denborarekin, bitan zatituko du Mexiko modernoa Alderdiaren makina indartsuak. Lehendakariak asasino bihurtuko dira, eta Alderdia gobernu iraupenaren ikur: 1929tik darama agintean. Honetan, nola den posible zerbait aldi berean *iraultzailea* eta *instituzionala* izatea galdetzen dizu ahopeka norbaitek.

# RAMONAREN BEGIAK

## –1–

Urrats bizkorrez egin dute oinutsik hamaken ondotik, lokatzetan halakoturiko bidezidorrean barrena oholtzara. Hiru, bost dira; sei uharre artetik zurezko eskaileretan gora sumatzen dituzunerako. Emakumeak denak, 22-ko karabinez eta *ahuntzadarrez* armaturik batzuk, esku gorririk besteak. Hotz naiz eta gaua beltz dago oraindik. Erlojuari behatzen diot: goizeko hirurak.

– Prentsaurrekoa hastera doa.

Ozengailuek egunez bezain ozen arrankatu dute. Azken oharra da prentsarentzat: aukera hau baino ez dute izango kazetariek emakume zapatistak elkarrizketatzeko.

Euriak ez du atertu hamaketan sartu orduko itoginak hasi direnetik. Lo egon naizen bitartean, jende asko mugitu da inguruetatik babes hobea-

go baten bila. Mikroak ez dabiltza baina, emakumeen ahotsa oso baxu heltzen zaizu.

– Asko hitz eginda egunotan homosexual eta lesbianen eskubideez. Emakume zapatista legez, nola ikusten duzue lesbianismoa hemen?

Tximista bat lehertu da agertoki atzeko mendian. Erauntsiak horrela jarraitzen badu jaiki beharrean izango zara teilatupetik, babesa beste nonbaiten aurkitzeko. Atergabe ari da bustitzen euria lehortzera jarritako arropa.

– Emakume zapatista bezala ez dugu ondo ikusten emakumeek bere gorputza diruaren truke saltzea.

Egiten dutenean, galdetzaile atzerritarrari bezain nekeza zaie gazteleraz egitea. Tzeltalez edo tojolabalez erantzungo dute batzuek, eta bertako beste batek itzulita emango zaio prentsari erantzuna. Argazki kameren flashak oinaztarrien bristadarekin nahasten dira. EZLNko eta komunitateko emakumeen gorputz txikiek itzal bakarra osatzen dute orain oholtza zabalean. Raul ere esnai da, eta begi tristez behatzen dizu. Berehala harrapatu du.

– Barkatu, errespeto guztiarekin, zera da jakin nahi duguna baina, nola ikusten duzuen emakume bati beste emakume bat gustatzea.

Erantzuna ez da berehala helduko. Isiltasunak betetzen du etena.

– Emakume zapatista bezala, zu emakumea bazara, zera, normala da beste emakume zapatista bat gustatzea. Zapatismoa borroka oso bat da, eta gizonak zein emakumeak hartzen ditu bere baitan. Egoera hau gainditzeko ahalegintzen den emakume bat gustatzea da normalena.

Kazetariak etsi egin du, ez du hirugarrengoz egingo galdera bera. Azkenean ohartu da ez dela hizkuntza arazoa.

– Ez ditek ezer ulertzen!

Raulek txikiak ditu begiak etsipen keinua egiten duenean.

## –2–

Laura ere iratzarrita dabil. Itogina du oinen parean eta bustirik lozakua. Begizulo handiak ditu

azal beltzaren azpian. Ez duela batere lorik egin dio.

– Eta Monique?

– Hor nonbait.

– Oholtza gainean?

– Ez dut uste.

Orduan hasi zait Laura erakusten, Chiapasera lehenengoz hurbiltzen den orori bezala, zapatisten lehen iraultza ez zela 1994ko Urteberri egunekoa izan, hilabete batzuk lehenago, 1993ko martxoaren 8an ekin ziotela EZLN orduan ezezaguneko emakumeek beste San Cristobal are gaitzago bat hartzeari. Ez zen bajarik egon eta ondo kostata, baina irabazi egin zuten.

– Batzorde Klandestino Iraultzaile Indigena (CCRI) batu zelarik, Susana izeneko miliziar batek irakurri zituen aurrez emakume taldeetan landu eta paperera eramatea lortu zituzten legeak:

*«Guk aukeratzen ez dugun batekin ezkontzera ez gaitzatela behartu. Geuk nahi ditugun eta zain ditzakegun seme-alabak baino ez ditugu izan nahi. Inork ez du emakume bat joko, bortxa-*

*keta saioak eta bortxaketak gogor zigortuko dira».*

Euriak gogotik segitzen du, eta kazetaria ez den gutxi dabil oholtza inguruetan. Lokatza harro dator, erauntsiarekin batera bakerik eskaini gabe. Saguzarrak sareetan bezalaxe duzu jendea, hamaken amarauntasunean bildua, munduaren amaierari beha. Inoiz inork pentsatu baino ederragoa duzu hau. Malgua eta gaua zulatzen duten argiz betea.

Lauraren ahotsak ozengailuetatik datorkidanak baino sendoago lotzen nau, eta jarraitu ezinda uzten diot hari.

– Asanbleako jendea urduritzen hasia zen. Baina Susana honek jarraitu egin zuen: «*Komunitatean karguak izateko eskubidea izan nahi dugu. Gure hitza errespetatzea nahi dugu. Ikasteko eskubidea nahi dugu, baita txofer izateko ere...».* Bistan da, emakumeek zekartena ez zen gizonezko zapatisten gustukoa.

Egun horretatik aurrera, gauza asko aldatu da komunitate zapatistetan. Gero eta gutxiago dira gurasoek aukeratutakoekin ezkontzen direnak, eta mendian, armekin dabiltzan emaku-

meen eragina gero eta handiagoa da herrietan bizi direnen gainean.

– Komunitateetan, nahiko normala zen ezkondu gabe larrutan harrapatutako neska-mutilak zigortzea. Ohikoa izan da saski-baloi kantxan, poste banatan lotzea, edo eskolak konpotzera behartzea, zegoena, komunitatearentzat onuragarria den zigor-lanen bat beti ere...

Komunitateetako giro horretatik ihesi joan dituzu emakume gazte asko Armada Zapatistarekin sasira. Han, Emakumeen Legeak indarrean daude, eta bete egiten dira. Komunitate zapatistetan astiroagoa doa dena. Egun, ehuneko hogeita hamarra baino gehiago dituzu emakumeak EZLNn. Hirutik bat.

– Mendian direnak, pilulak-eta erabiltzen dituzte beren harremanetan. Kondoiak gutxiago. Kondoiak fusilen ahoak estaltzeko dira, lokatza eta euria sar ez dakien.

Raulek ez bezala, asko mugitzen ditu Laurak eskuak. Baina ahotsa goratu gabe ari da.

– Pitinka-pitinka, giroa aldatzen ari dela esan genezake. Baina badakizu non geratzen den les-

bianismoa? Oraintxe hasi dira animaliak ez izaten!

Idealizazioaren ordaina dugu. Hau ez duzu paradisua. Infernua delako asaldatu dute mundua. Hemen, jendea leku guztietan bezalakoa duzu: mozkortu egiten da, bortxatu egiten du, hil egiten du. Goizetan jaiki eta akiturik jaikitzen dira. Hurrengo egunean mundua jan behar dute. Ero haizea dago eta tristura dago. Poza dago eta samina dago. Zerua besteko infernua. Izan nahi ez den dena dago. Horregatik kostatu zen hainbeste emakumeen legeak aurrera ateratzea. Horregatik ez zuten gizon zapatistek beren emazteak bileretara joan zitezen nahi. Horregatik akordioak euren hizkuntzetara ez itzultzeko eskariak. Beste ezein bazterretan bezalaxe. Bentzutu nahi duten mundua bezain zikinak. Kontrol soziala kolektiboa duela, horra aldea.

## –3–

Tximistargiaren bristada ikusi eta berehala lehertu da trumoia, gain gainean oraingoan. Ta-

rratatzen hasita daude bandera erraldoiak zinkezko teilatuaren gainean.

– Raul, hiru egun?

– Baina hau ez duk Cesar. Hau beste zikloi bat duk!

Argazki makinen flashak lehertzen dira agertokian. Norbaitek txalo egiten du. Zaparradaren pean, behorren lauroinkek sinesgaitz bihurtzen dute gaua. Tacho eta miliziar bat dira, oholtzaraino hurbildu eta uhalak askatzeke hantxe geratzen direnak, euripean, belauntzi bateko oihalak bezain harro puztu diren banderei beha.

– Gainera, gauza bat, Iñigo.

Orduan Laurak etnia batetik bestera dauden aldeen berri ematen dit. Denak zapatistak izanik ere, arropaz ozta-ozta desberdintzen hasi naizen haien artean bi, hiru, hamaika dira munduak.

– Komandante bi ibili ziren komunitatez komunitate, emakumeekin bildu eta dena azaltzen, Ramona eta Susana. Ramonak zailtasun handiagoak izan zituen, tzotzilen herriak egokitu baitzitzaizkion. Tzotzilekin harremanak zailagoak dira, itxiagoak dituzu.

Baduzu juzku hori egina ikusi duzunarekin. Tzotzilen mundua zarratuagoa dela tzeltalen aldean. Hauena ere itxia duzu tojolabalenaren ondoan.

– Behatzako eran igartzen duk.

Laurarekin solasean ari naizenetik, harathonat dabilkidan irudia da Ramona komandantearena. 1994ko Katedraleko Elkarrizketetan EZLNren ordezkarietako bat izan zen. Ramona Gurutze Gorriko auto batean heltzen. Ramonaren huipil zuria, piztia eder, landare ederragoen irudi gorri zoragarriekin. Ramonaren aurpegi estalia, eta Marcos ondoan duen emakumea munduari aurkezten:

«*Zergatik da beharrezkoa inor edo norbera hiltzea zuek, eta zuen bitartez mundu guztiak Ramonak dioena, emakume indigenek bizi egin nahi dutela, ikasi egin nahi dutela, janariak nahi dituztela, errespetoa nahi dutela, justizia, duintasuna nahi dutela entzuteko?*».

Ramonak tzotzilez egiten du. Gizonezko ahots batek itzuliko zuen gaztelerara.

Kazetariek ehun eta hogei zentimetro baino ez dituela gogoraraziko dute harrezkero. Oso datu inportantea inondik ere informazio aldetik.

– Eskerrak bera ere tzotzila duzun...

– Bai. Baina bada alderik. Tzotzilen artean emakumeak ezin dio gizonari hitzik egin.

– Eta?

– Ramonak hitz egin egin ziela.

Ramona, Trini, Ana Maria. Komandanteak bi lehenak, nagusia bigarrena, EZLNko emakumeen artean izenik ezagunenak dituzu hauek. Trini oholtza gainera igoa da. Hamabi urte zituen bere familiarekin Guadalupe Tepeyacera lur bila etorri zenean. Artean ez zen auzo-lurrik, lehenetakoak izan ziren heltzen. Amona da egun eta San Andres Larrainzarreko Elkarrizketetan –Sacamch'en de los Pobres, zapatisten toponimia berrian– esku hartu izan du. Baina dagoeneko ez da ezer entzuten. Ozengailuak hondatu egin direla esango nuke.

Hamakatik altxatu eta lozakua biltzen hasi da Laura. Hori du onena ez badu gehiago busti nahi.

– Eta Ramona, ez da hemen?

– Ramona oso gaixorik duzu.

EZLNk lehen Aguascalientesa Biltzar Nazional Demokratikoaren eskuetan jarri zenean desagertu zen mundu publikotik. 94ko abuztuaren hasiera zen. Katedraleko Elkarrizketez geroztik, itzela da Ramona komandantearen inguruan sortu den elkartasun sarea. 1995ean ez da EZLNren agerpenetan izango, baina jendeari eta prentsari helaraziko zaizkion bideo bitan beragatik kezkatu diren denei eskerrak eman eta katedralean bezain garbi mintzo da:

*«Gure mugimendua indigena da. Urte asko dira hasi zela, munduari Chiapasko nekazariak gose garela, gaixorik gaudela esateko. Gaixorik nago. Hemendik gutxira hilko naiz ausaz. Ume, andre eta gizon asko ere gaixorik dago. Gaixotasun asko ditugu, baina medikuak, botikak, ospitaleak ez daude gure esku...».*

Ramona ez da egunotan La Realidaden. Oso makalik da. Baina Chiapasko ezergabeak mundura agertu zirenetik, emakume bihurtutako Zapata bat duzu Ramona, XXI. mendeko duintasun indigenaren aurpegi. Ez dakizula sentitzen duzuna adierazten ohartzen zara. Sentipen oinarrizkoak dira hartzen zaituztenak, pentsatzen duzu.

Hitza kutsatu gabe balego bezala. Eta izutu egiten zara. Harriak bezalako kolpeak berba bakoitzean. Iraultzaren indarra duten ezpainak.

Zaila zaizu Ramonaren ahotsa entzun, berbekin bekoz beko jarri eta begiak ez betetzea. Mintzoa bera duzu, kapusaiaren tartetik lotzen zaituzten begiak, munduko begirik ederrenak errukirik gabe biluztu eta lokatzaren kontra lur arrotz batean eraisten zaituztenak.

– Begi batzuk historiaren kontra!

Eta horrela da Trinirekin, horrela Morelian utzi dugun Emelina komandantearekin. Mendeetan eta mendeetan oihaneko hezetasunean, Gainetako lainotan artataloak egiteko goizeko hiruretan jaikitzen ari diren emakume guztien ordezkari hauekin. Neurriz kanpoko ekaitza, neurriz kanpoko banderak, neurriz kanpoko bizitzak. Aurrez galduta duzun gerra da. Eta ez duzu armarik.

– Ni beste nonbaitera noa.

## –4–

– Izan zara Chamulan?

Moreliara egin baino lehen joan zinen. Ordu erdi pasa egin zenuen elizan, aulkirik gabeko eliza isil, ilunean. Koloretako xingolak sabaian eta gurutze handi bi dituzu gogoan sarreran, hormen kontra etzanda. Pinu hostoz estalitako zoruak gozo hartzen zure urratsak. Aldarerik ez. Apaizik ez. Ertzetara pilatuak, eta beren kristalezko ontzietan, inoiz ikusi dituzun santurik hippyenak, dendaren batean merke erosi eta kolore biziz margotu eta bertako jendea bezalaxe jantziak.

– Eta ikusi dituzu?

– Ikusi, zer? –diot, aurrera egiteko beldurrez.

Orduan hasiko zaizu eliza barruan harrapatu zintuen zaparrada hura guztia argitzen. Familia osoak hemen, bakarrik besteak han, tabako erretzen, santuen aurrean belauniko, arrautzak eta Coca-Cola edo Pepsi botilak belaunburuen aurrean.

– Chamulan Pepsiak du arrakasta.

Sartu eta batera lotzen zaituen estanpa: hordiak elizan. Balantzaka, santu anden azpian etzanda, ulergaitza zaizun letania baten bilduak denak.

– Eta zertarako dira?

– *Posh*-a gozoago sar dadin.

Eta orain datorkizu berriro ere umearen eskua plastikozko edalontzia duela botila batetik ttotta dirudiena zerbitzen otoizlariei.

– Aspaldikoa da indigenak mozkorrerako duen zaletasuna. Konkistatzaile espainolei errepresiorik bortitzena bezain baliagarria gertatu zitzaien alkoholarena. Gurutzea eta ezpata bezain pisua, Iñigo. Indio hordiak, gerrarik ez.

Chamulako plaza handia da azoka egunetan. Postu asko dago, baina erakutsi beharrekoa ez duzu mahaietan, behearen gainean baizik. Herriko agintariei eta gobernadore bati paraturiko monumentu gotorrak mutur banatan, PRIren lokala da Udaletxeari plaza-plazan itzal egiten dion etxe bakarra.

– Istorio bat kontatuko dizut, baina isilik gordetzekotan.

– Ezingo dut baina.

Chamula ekartzen duzu gogora. Hordiak elizatik ateratzen hasita zeuden. Postu artean sartu eta xira zikinaren gainean etzan zen bat.

– Herri hauetan, dirurik ez eta udal idazkaria duzu soldata jasotzen duen bakarra. Baina soldata hau auzoek ordaintzen ez dutenez, bestelako bideak topa ohi dituzte poltsikoak gizentzeko. Horretan zegoen Tzicaba-ko idazkaria Sanpedroak, herriko jaiak heldu zirenean. Idazkariak bonbila *posh* franko erosi zuen. Baina indigenek txakur txikirik ez, eta besteak nahi baino gutxiago edan zuten.

– Molokot ederra beraz.

– Alderantziz, molokot usainak biztu zuen hura. Inor konturatzerako, santua falta zen aldare nagusitik. Indigenak, pentsa dezakezu, erotu egin ziren. Santuak abandonatu egin zituen! Orduan agertzen da idazkaria eta diotse: «San Pedro joan egin da. Bachajon-go bidean ikusi dutela esan didate».

– Esaidazu ez dela egia.

– Eta indioak hara. Idazkariak ez zioen gezurrik. Han zegoen San Pedro ibiltaria, bide ertzeko larrean, biderako anua eskuan zuela. Arrantzarako sarean, idazkariak bozgora irakurriko zuen paper muturra zeraman: «Festa alaia egin ez di-

dazuelako noa –zioen oharrak–, hobeto hartuko nauten beste herriren baten bila».

– Ez zaidazu amaiera kontatu, Laura.

– Bonbila guztietakoa amaitu arte ez zen han bakerik izan. San Cristobalen bertan, orain dela gutxira arte zegoen milionario bakarra ttottaren monopolioa zuen enpresari bat zen, Pedrero izeneko bat.

Egia da Pepsiarena. Esan dizunetik elkarren gainean pilatutako kaxa hutsak baino ez dituzu gogoan plazaren inguruan dauden taberna txiki guztien atarian.

– Santuak kristauen berberak dira, baina chamulatarren bihotza ez duzu kristaua. Horregatik ez diote egiten kasurik apaizari meza ematera etortzen denean. Horregatik tzeltaleraz jakin ezean ulertuko ez duzun letania, Tibetekoa dirudien *mantra* ulergaitza: «Jaundone Manuel, Jaundone Salbatore, Jaundone Mateo, zuk, txoriei ere jaten ematen diozun horrek, emaiezu jaten ere zure seme-alabei, indio koitadu hauei».

Zerbait ulertu nion. Patroia dute herriaren batasuna, batera eta bestera zebiltzan indigena haien guztien elkargunea. Santuarentzat dira lo-

rerik freskoenak, suziri zaratatsuenak, azukre kainari ateratako *posh*-ik onena, erreberentziak, letaniak, pozak eta negarrak. Horregatik duzu berdintsu elizburuan kristalezko ontzi barnean dagoen Kristo Hila-ri Jaundone Manuel, Jaundone Salbatore edo Jaundone Mateo deitzea. Ez dio ardura, lana du artatsua hark: umeak eta helduak etxean, larre-zelaietan edo bidean direla ondo zaintzea.

– San Andres egunean, Santa Marta eta Santa Magdalena bizkarrean hartu eta Larrainzar-en dagoen San Andres elizarainoko bidea egiten dute. Bisitan doaz. Baina santu hauek gizon eta emakumeen izaera ere badute. Gu bezain ahulak dira. Eta badakizu zein den andan daramatzaten gizonen kezka bakarra?

Irrintzi egin dute Tachoren-eta zaldiek oihan beltzera bidean jarri direnean.

– Ez mozkortzea, horrexen beldur baitira, atxurtuz gero, deskuido txiki batean, San Andresek biak izorratuko ote dituen. Santa biak haurdun geratuko balira, berandu gabe, chamulatarren eta andrestarren arteko gerra biztua legoke.

Zeuk ere edan zenuen. Pentsatu baino gozoago sartu zitzaizun Cruz Ton-eko gizonek egin *posh*-a. Baduzu irudi gehiago buruan. Plaza ertzean, hau inguratzen duten harrizko aulki batean, herriko maiordomo eta gainontzeko kargu publikoak daude, huipil zuriz batzuk eta beltzez besteak, larruzko huaratxaz –sandaliaz– denak, xingolakiko kapeluak buruan eta zilarburudun aginte makila eskuan.

## –5–

Aldegin beharreko larriak lotu zintuen. Halaxe kontatu diezu Laurari eta begiak bilduta baina erne dagoen Rauli. Berehala ohartu da Chamulan artegatu zaituena ez dela santu bortxatzailearen gaineko istorioa, herriko agintarien aurrean belauniko erruki eskeko jarreran ikusi dituzun emakume biak baizik.

– Igande goizak herriko kontuak konpontzeko izaten dira inguru haietan. Berdin ikusiko zenuen Zinacantanen. Eta badakizu onena: inork ez du *maiordomo, kabenal, pasio* edo *alferez* izan nahi.

Eskertxarreko lana da eta kargu publikoetan daudelarik dirua galdu baino ez dute egiten.

Horiek dira orduan, pentsatzen duzu. Herri agintari haiek dira Chamulako elizako erritoaren aitzakian nola zapatismora hala protestantismora makurtutako chamulatarrak herrian behera, San Cristobalgo errebaletara, Moxviquil-era eta, bidaltzen ari direnak.

– Chamula esatea gobernuaren esperimentua esatea da. Indigenak indigenen kontra.

Eta alkohola ohitura zaharren oinarri.

– Ulertzen duzu orain zapatistek alkoholari ezarri debekua? Emakumeak nazkatuta zeuden hartzen.

Irudiak bere sotilean du indarra: Ramonaren begiak historiari aurre egiten.

## Aurelio Arteta

Gerra irudiak margotu ditu Miarritzen. Preso egon da Frantziako eremuetan. Mexikora heltzen denean, zeruaren gordinak eta etxeen aurpegi biziek mozkortzen dute Aurelio Arteta. Baina berak pertsonak pintatzen ditu, ez paisaiak. Lagun giroan, itomenik gabe margotu nahi duela adierazten dio bera bezalaxe ihesian heldu den In-

dalecio Prieto-ri. *Dostatzeko, atsegin hartzeko*, esango du. Eta Euskal Herri alaia gogorarazten dioten koadroak ezartzen ditu mihise zurietan. Biziak, koloretsuak. Atzean geratu dira naufrago dardartiak, umeen negarrak, ihesi doazen untziak. Gerra. Heriotza.

Igande arratsalde mexikar batean egingo dira kolore guztiak bat, Coyoacan-era zeraman tranbiak beste bat –heriotzarena, azkena– jo zuenean.

# BIHOTZ NEKATUAK

## –1–

Aulki urdinetan eserita dauden bi mila lagunek Kubako ordezkaritzari eman txalo zaparradak adarrerako harrotu du Pepe:

– Independienteak zarete zuek ere!

Hala da, Lacandonan Gizateriaren Alde eta Neokolonialismoaren Aurka bildutako berrogeita bi delegazioetatik, Kurdistangoak eta Euskal Herrikoak baino ez dira estaturik izan ez eta hala ere izaera ofiziala duten bakarrak.

– Espainia eta Frantzia besteko gradua duzue munduaren aurrean.

– Hoa Habana ferratzera!

«*Gaur La Realidad-en iratzartzen den amets hau gure amets baino ez zenean, itzelezko porrota izango zela pentsatu genuen. Herrialde batzuetako hamarka lagun baino ez genituela batuko. Erratuak geunden. Beti bezala, erratuak geunden. Hamarka ez, milaka lagun izan dira*

*bost kontinenteetatik XX. mendeko errealitatean elkar aurkitzera etorri direnak.*

*«Mendi hauen baitan, mendi zapatista hauen baitan sortu zen hitzak babestu, zaindu eta munduari bira osoa eman ziezaion berriro bota zuten belarriak aurkitu zituen. Gure iraganaz, gure orainaz, gure etorkizunaz bost kontinenteetara egin deialdiaren eromen eroak bere eromenean bakarrik ez zegoela jakin zuen, eta bat-batean, mundu guztiko eromenak izan ziren lanean hasi zirenak, errealitatean atseden har dezan ametsa honaino ekartzen, lokatzetan garbitzen, euripean hazten...»*

Marcos geratu egin da. Igarri egiten da, luzea da Lacandonako Bigarren Aldarrikapenerako prestatu duen testua. Arnasa nekatua entzuten da ozengailuetatik. Pepe ere ohartu da.

– Asma dik. Chek bezalaxe!

Hartara ezkero, irribarre lotsagabea marraztu dizu asmaduna oro har jende interesgarria dela esatea bururatu zaizunean. Karreteen poltsikoan daraman ventolin-a erakusten dit maltzur. Hala duzu bera ere!

– Heuk asmatua duk! Sup-ak pipatu egiten dik! Eta oihaneko hezetasuna!

*«Zelan amesten da alaitasuna Afrikan? Zer gauza zoragarri dabiltza amets europarrean? Zenbat egunsenti ditu ametsak Asian? Zein da Ameriketako ametsak dantzatzen duen musika? Nola hitz egiten du Ozeanian amets egiten duen bihotzak?».*

Terminologia berria ere finkatu du Marcosek. *Itxaropenaren Nazioartekotza* dio zuk *Baztertuena, puteatuena* zenionaren ordez.

*«Mintza bedi Europa eta konta dezala bere burua errealitatean berraurkitzeko Atlantikoa eta historia zeharkatu zituen behakoaren zubia.*

*«Mintza bedi Asia eta azal dezala errealitatean taupaka egoteko bere bihotzak eman duen jauzi ikaragarri hori.*

*«Mintza bedi Afrika eta konta dezala errealitatean islatzeko bere irudi urduriak egin behar izan duen ibilbide luzea.*

*«Mintza bedi Ozeania eta azal dezala errealitatean pausatzeko bere oroimenaren hegalka multiplikatua.*

*«Mintza bedi Amerika eta oroit dadila errealitatean berritzeko bere itxaropenaren sentimendu arranditua».*

Neruda baino gehiago duzu, Aime Cesaireren ahots negroa da Marcosen bozak gogora ekartzen dizuna. Manifestu eder bihurturiko literatura oihanaren erdian irakurtzeko. Ez alferrik emango diote Pablo Neruda literatur saria arratsaldeko ekitaldian argentinarrek.

Eguzkiak eguerdiaren indarrez jotzen du, eta ez duzu paliakatea buruan biltzea beste erremediorik.

– Plaza de Mayo-ko amona ematen duk!

Ez du hala etorrita bota Pepek. Sup-ak Argentinatik beren-bereki etorritako Plaza de Mayoko ama bi eta Rosario Ibarra igoarazi ditu oholtzara. Emakume ederra duzu Rosario Ibarra, eta Marcosen ama EZLNren agerpen guztietan semea Poliziak hil zionetik. Harrezkero, desagertuen amek osatu Eureka taldean ibilia duzu. Monterreykoa da, baina hasieratik egon da EZLNren sinpatizanteen sarean. Lehenbiziko Aguascalientesen, Ibarraren eskuetan utzi zuen Marcosek

Mexikoko bandera. Chiapasen ez duzu hori baino keinu handiagorik.

*«Merkatari-guneak globalizatzea espekulazioa eta krimenari mugak ezabatu eta gizakientzat biderkatzea da. Diruaren harat-honakoari dagokionez kanpo mugak ezabatzera behartzen dira herrialdeak. Baina barnekoak etengabean hazten dira.*

*«Neoliberalismoak ez ditu herrialdeak herri bakar bihurtzen, herrialde asko baizik».*

Txartela eskuan duela jende artetik pasatzen eta prentsakoen artean sartzen ikusten duzu Pepe. Badakizu Rosario Ibarraren argazkirik ederrena izango duela bere Nikon-aren barruan. Ilusioa da, aspertuta dago kapusaidunei argazki ateratzen. Joko gutxi ematen diotela dio. Trukagarriak ere badirela esango luke. Hildako biziak bezain berdinak dituzu zapatistak kanpaina uniformean.

Eguzkipean, jendeak ez dizu Marcosen haria eteten. Cebedeo komandanteak Morelian bezalaxe, Sup-ak ez dizu ahotsik goratuko. Ondo ikasia duzu, eta jendeak eskertzen du erretolikatik ihes egitera dabilen mintzo laua. Ahotsa da egia-

rekin batera dabilena. Marcosek ondo daki: indigenei ikasitako mintzaera honetan erraz da gezurtia harrapatzen.

«*Bada Boterearen zorro handian zenbaki huts izatea onartzen duenik. Bada esklabu izatea onartzen duenik. Zinismoz dabil beste esklabu batzuen esklabu izatearen mailadi horizontalean. Botereak ematen dizkion apurren truke bada saltzen denik, egoera onartzen duenik, etsitzen duenik. Munduaren ezein bazterretan badago esklabu izanda zoriontsu direla dioten esklabuak. Munduaren ezein bazterretan badira gizaki izateari utzi eta beren lekua duintasunen azokan betetzen dituzten gizon eta emakumeak.*

«*Baina bada onartzen ez duena, deserosoa izatea erabakitzen duena...*»

## –2–

Lauraren eskua da sorbaldatik gozo lotzen nauena. Oharra ematera baino ez da etorri aulki beteen artetik.

– Raulek bihotzekoa izan du gauean, eta akiturik dago. Joan beharra dugu.

La Realidadetik San Cristobalera doan lehen autobusean doaz. Zortzi orduko bidea da. Biharko egon nahi dute Veracruzen.

– Ez dit deus esan!

Tristeak dira Lauraren begiak. Raul horrelakoa duk! esaten biltzen dizkizu. Ez da gertatzen zaion lehen aldia. Horrelaxe hil zitzaion aita. Horrelaxe anaia bat duela gutxi. Hobetoxeago dago botikak hartuta, baina ezin du La Realidaden jarraitu. Oihanak bihotza itotzen dio.

– Bihotz handiegia du.

Irudi zaparrada larria da: Raul bart gaueko emakumeen elkarrizketa entzuten, Raul hitzaldia irakurtzen, Raul ea gure euskaltasunak zapatismoa ulertzen duen galdetzen...

– Idatziko diguzu?

Laurak entzuteko moduan, biraoa lehertu zaizu baietzarekin batera. Isiltasunean, Marcosek *Aski da gerrarekin* dioela entzuten duzu, eta jendeak lehen bider eteten du hitzaldia.

– *Zapata vive!*

– *La lucha sigue!*

– *Zapata vive, vive!*

– *La lucha sigue, sigue!*

– *Si Zapata viviera, con nosotros estuviera!*

Lauraren musuak agudo itzaltzen zaizkizu masailetan. Lepoa luzatzen duzun arren ez dago Raulen arrastorik. Botikinean behar du oraindino. Eta sentipen arrotza da zutaz jabetzen dena: gehiago ikusiko ez duzun jendea da orain min ematen dizuna.

– Zatoz Veracruzera astia baduzu!

Baietz, baietz diotsat buruaz. Begiez besarkatzen dut. Ohartzerako, Laura ez da jende artean bistatik itzaltzen zaizun geriza mehea baino. Jendeak txalo batean amaituko du Marcosen hitzaldia.

Moises komandantea da orain itxiera ekitaldiari amaiera ematen diona. *14,13 hegoekialdeko ordua. Hemen, Mexiko hegoekialdeko mendietan*, dio. Garrantzitsua da geografia, erreferentzia propioa izatea. Halaxe harrapatuko du Peperen kamerak Moises, begiak paper gainera makurtuta komandantea.

– Komandanterik serioena da.

Hala duzu Tachoren ondoan. Tachori «Gabino Barrera» kanta dezala eskatuko zaio. Jo dezala edozer bizkarrean AK bat bezala gurutzatua eraman ohi duen gitarrarekin. Ona da kantuan, baina himno zapatista da orain abesten duguna. Ez duzu oraindik ikasi, eta paperean idatzitakotik ekiten diozu berriro ere. Musika du erraza, «Carabina 30-30» korridoarena. Himnoegia ordea letra, bestelako testuen aldean. Eta ohitzen zara gazteleraz kantatzera. Badiagu agurrerako irudirik Raul: Marcos eta gainontzeko komandanteek era militarrean abesten ditek, eskua zabal eta atzamarrak bekokian.

– Oraindik ez duk ikasi?

Baina nire paperetik irakurtzen du Pepek berak ere himnoa, ezkerreko eskua ukabil hertsi zerurantz.

*O morir por la libertad*

– Zuen herrian etorri aurretik azterketa pasatzen zenutela pentsatzen nian! –diotsozu.

Hegazkin militar batek ebasten dio erantzuna. Ez da oso goitik pasatu. Agertokian inor ez zaizu mugitu. Tacho bakarrik hartaratu da oholtza ertzera lonak estaltzen dion abioiak bira

eman eta berriro nola hurbiltzen den hobeto ikusteko. Hegazkin txikiak beheragotik egiten du orain. Mendi arteko bailara estuan oihan zarratuak gorrigunea erakusten duen zabala filmatzen imajinatzen duzu, bandera mexikar ikaragarri bi oholtza gainean eta irakurtzeko moduko pankarta bakarra teilatu gorrian: *No human being is illegal* eta Miss Liberty-ren burua trakets margotua.

Zapatistek badakite San Andres Larrainzarreko Elkarrizketen osteko konpromezuaren ondoren Armada federala ez dela Lacandonan erasoan sartuko. Kontrol inkurtsio asko egingo da komunitateetan, baina EZLNkoak ez dituzu egundo ere herrian izango. Sasian bizi dira bake garaian ere.

– Argazki bat geratzen zaidak.

Jendeak *Ustezko zapatistak askatu!* oihukatzen du orain. Hamasei dituzu oraindik kartzeletan. FZLNren arduradun nagusia den Javier Elorriagak Gonzalo Sanchez Navarrete adin txikiko atxilotuaren berri eman du:

– «*Tortura egon zen, baina justifikatuta zegoen*» aitortu izan du Gobernuko eledunak. Mundu

guztiko kartzelazainak, entzun: hautsi da izuaren eremua. Ez gara zuen beldur!

Imintzioka ari zaio Superbarriori hurbil dadin. Sorbaldatik eusten dit. Orduan baino ez naiz ohartzen maskara eta guzti atera duela kredentzialeko argazkia.

– Bioi aterako dizuet azkena.

Ez nuen potrorik izan Rauli bihotzak huts egin ziola esateko. Ezin izan nuen Marcos eta komandantziakoei maitasun oharrez beteriko papertxoak, sinatuta itzultzeko ziren argazkiak luzatzen zizkieten haien guztien artetik igaro eta Raul eta Lauraren atzetik egiteko. Beti izan nauk koldar alu bat, Pepe.

Ohar labur baten bidez, Oaxacatik Mexiko DFra desmilitarizazioaren alde egin den martxa onik heldu dela iragartzen du Tachok.

Berak ez daki, baina astebete lehenago, Guelaguetzara hurbildutako jende artean ume bat da ur-saltzailearen postura gerturatu, elastiko muturretik tira egin eta paper xarea uzten didana esku izerdituan.

*We Are Demanding Justice Peace and Democracy.*

# Fray Juan de Zumarraga

Abizen ezin ederragoa du, Garcia Icazbalzeta, eta berak egingo dio Fray Juan de Zumarragari inoiz egin zaion panegirikorik handiena: Ameriketan ezagutu zen lehen moldiztegia eraman zuena ez zen indigenen torturatzaile izan. Ez zen Zumarraga izan nahuen artxiboak errearazi zituena. Areago, Icazbalzetarentzat, indigenak enkomenderoen gehiegikerietatik babesten eman zituen urteak Mexikoko lehen artzapezpiku izango zenak.

Eta hala ere, Netzahualcoyolt-en biloba erretzen margotuko du Riverak. Hau izan zen Nueva España-ko Inkisizioaren lehen biktima. Hara baino lehen, ibilia zen antzerako zereginetan bere herrian. Nafarroan, Carlos V.ak komisionatuta ekin zion akelarreak zigortzeari. Ezin egokiagoa zen kargurako: umetatik ezagutzen zuen salatuen hizkuntza.

# JOVEL
## (SAN CRISTOBAL BAINO GEHIAGO MENTURAZ)

## –1–

– Iñigo!

Lanak izan nituen ezagutzen. Jordi zen, Oaxacan egin nuen lagun katalana. Ez zen zaila asmatzen nondik zetorren. Paliakate gorria zeraman lepoan eta janari, garraio eta identifikazio txartel urdina zintzilik oraindik.

– Zer egiten duk hemen?

– Ikusten duk, turismoa.

– Etorri haiz! Ez zaidak esan ez haizela Lacandonan egon!

Pozik zegoen. Neska blonda bat hurbildu zitzaion atzetik. Berarekin zetorren, ez zegoen zalantzarik.

– Iñigo, Inge. Inge, Iñigo. Euskal Herriko lagun bat –esan zuen.

Masail beroak zituen. Austriarra zen eta gaztelera eskolak hartzen zituen unibertsitatean. *Castilla*, esan zuen, eta hortz ederrak bistan utzi zizkion irribarrea erakutsi zuen.

– Honaino heldu eta zapatistena ez joan! Ederra galdu duk. Zoragarria izan duk. Marcos, Tacho, Ramona... denekin egon gaituk.

– Pozten nauk.

Ez dakit zer gehiago esan zidan. Hurrengo urteko topaketak Europan izango zirela eta Kataluniak aukera handiak zituela aukeratua izateko, halako zerbait.

– Bestela Euskal Herrian.

Neskak hortzak erakutsi zituen berriro. Jordiren paliakate berdina zeraman. Askoz gazteagoa zela pentsatu nuen.

– San Cristobalen geratuko al haiz?

– Ez, banoak.

Oaxacan baino presa handiagoa zuen. Egongo ginela esanez agurtu ginen, hemen ez bazen Euskal Herrian, bazuela gogoa hara itzultzeko, Donostiara, eta deituko zidala, bazuela-eta nire telefonoa. Ingek *adios* esan zuen. Jordik eskua

zabaldu zuen agurtzeko. Kalean, austriarrak edo ziruditen koadrila bat zuten zain.

## –2–

Hamabost peso utzi nituen mahai gainean. Urrundu zitezen itxaron nuen Madero karrikan behera egiteko. Espaloiz aldatu gabe jarraitu nuen, eta Armen Plazara heldu orduko sartu nintzen arkupetan. Kioskoko kafetegian mahaiak hutsik zeuden. Egunkari saltzen zegoen umearekin ari ziren solasean zerbitzariak. Katedraleko hormaren kontra, militar bi jaitsi ziren jeep berri batetik. Ez zegoen aurreko eguneko berorik. Ateri zen, baina zorua bustia zegoen. Euria egin zuen arkupetan.

– Zoratu egin zaizu ala?

Banamex-en ondoko elektragailu dendatik datoz oihuak. Denda atarian, bi gizon alkandora eta gorbataz nagusia dirudienari beha. Hau azkar sartu da ondoko dendan. Anbarrak, postalak eta zilarrezko belarritako eta eraztunez gain dibisen aldaleku ere baduzu denda, egurrezko

ate handiak zabal. Traje ilunez jantzitako gizonak, ondoko dendatik oihuka hurbildu zaionari entzungor, ura non bota erakusten ari zaio garbitzaileari. Ura kostata heltzen da orain gizonak atzamarrez erakusten dion zokora. Baldea agortua duzu.

– Ez duzu ikusten nire dendan sartzen dela!

– Badakizu ez dudala nahita egin.

– Nork lehortu behar du orain nire denda?

– Hemen dauzkazu hauek.

*Hauek* emakume indigenak dira, eskulanez beteriko oihal handiak lauza gain bustitik libratu nahian. Hauen isiltasunak estonatzen zaitu.

– Esan dizuet goizean ere. Utikan hemendik!

Aldarri batean, bezeroak uxatzen dizkiotela zioen. Atea oztopatzen ziotela, eta aldegiteko, poliziari deituko ziola bestela-eta. Elektragailu dendako gizona gorri hotsean itzulia zen bere lokalera. Ura, espaloian behera, plazarantz isuri zen. Orduan bezain busti ikusi nuen arratsaldean, afaldu ostean berriro pasatu nintzenean bertatik.

Udal Jauregia aurrean, Chamulako lurren okre horiz eta Cuxtitali-ko gorriz margotu kate-

drala eskuinean, azken bi urte eta erdi hauetako gertaerak dira nahigabe baina presaka gogoetak berritzen dizkizunak. 1994ko Urteberri egunean, mila soldadu zapatistak –Gainetako tzotzilak eta Oihaneko tzeltalak gehienak– hartu zuten hiria. EEBBak, Kanada eta Mexikoren arteko TLC indarrean jarri zen goiza zen. Itun horren bitartez, munduan den merkatu blokerik handienean sartu zen Mexiko: 360 milioi pertsona, 6,5 trilioi dolar.

Goizeko seietarako Armen Plazan zeuden, lizarrez, pinuz eta palmondoz inguraturiko kioskoaren bueltan. Barrikadak altxatzeko erabili zituzten Udal Jauregiko altzariak. Ocosingo, Chanal, Altamirano eta Las Margaritas-en aldean, lasaia izan zen San Cristobal –*Jovel*, Zelaia tzeltalez– hartzea. Ana Maria nagusiak, mila miliziar zituela bere menpe, urrats lasaiz igoko zituen Lehendakaritzako eskailerak: «*Bandera berreskuratu dugu, 10-23 itxaroten*» transmitituko zuen. Urteberri egun eguerdirako, mundu guztiak zuen indigena matxinatu haien berri. Denen buru egiten zuenak –zuhail bakarra, sudur handia, hitz-jario errazekoa, deskribatuko dute berarekin hitz egin

zuten kazetariek– turisten eta erreportarien galderei erantzuten zien. Turistak urduri daude, ez dakite hiritik irten ahal izango duten. Sudurluzeak ulertzen ditu.

– Barkatu, baina hau iraultza bat da.

Hilaren 2ko goizaldean gorde ziren. Erretiradan, Rancho Nuevo-ko kuartelari erasotuko zioten. Cereso-n, kartzelako ateak zabalduko zituzten. Emakumeak ziren asaltatzaileak.

Errege bezperarako, 121 ziren hildakoak Gurutze Gorriak esatera: 67 gerrilari, 24 polizia, 6 militar, 8 zibil eta ezagutu gabeko 16. Hauezaz gain, Armada federalak kontatu ez ziren zibil gehiago hilko zuen.

Urtarrileko hamabi egun iraun zuen Chiapasko gerrak. Rigoberta Menchu-rekin ahalegindu ostean, bi aldeek onartu zuten Samuel Ruiz, San Cristobalgo gotzain dominikoaren bitartekaritza. Otsail erdialdean, Absalon Castellanos gobernadore ohia askatzen du EZLNk Guadalupe Tepeyacen. Berrogeita bost egun egin zituen bahituta. Handik gutxira, telebistaz helduko ziren irudiek mundua hunkituko zuten. Indigenak, buruak kapusaiez estalita, Gurutze Gorriko autoetatik

jaitsi eta jendea agurtuz sartzen ziren gobernukoak zain zituzten katedralean. Beste era batekoa, baina Moncada koloretsua duzu San Cristobalgo katedral gorria, XXI. mendeko Bastilla eder bat.

– Bi peso, jauna.

Neskatoaren esku txikiaren gainean, inoizko soldadurik sotilenak dirudite trapuz egindako zapatista txikiek.

– Zein dira bada?

– Marcos eta Ramona.

Marcosek ez darama egunkariek dioten bezala, AK-47 bat, egurrezko fusil hagitzez beldurgarriagoa baizik. Kapusaipean, esango nuke begietatik ezagutu egin daitekeela nor den.

– Ziur Marcos dela?

– Marcos eta Ramona.

Marta deitzen da eta Chamulakoa da, familiako guztiak herritik bota zituztenetik San Cristobal iparraldean, Nueva Esperanza-n bizi bada ere. Hamar urte dituela dio, baina nik ez dizkiot sei baino gehiago ematen.

# –3–

Ilargia laino artean agertu arte paseatu nuen espaloi altuetan. Zazpi eta erdiak inguru izango zirela deliberatu nuen. Astia nuen. Utrilla zeharkatu eta Ejercito Nacional karrikatik igo nuen Dr. Navarro eta Comitan-era. Eliza aurretik pasatu nintzenean jendea zegoen artean. *Viva Zapata! Borrokak aurrera darrai. FZLN* zioten pintadek. Bandak pasodoble bat jotzen zuen. Baina inor ez zebilen dantzan. Gazteek kiosko gainera igota jarraitzen zuten musikoen ekina. Zaharrenak, pontxe beroa hartzen zeuden plaza inguratzen zuten txosnetan.

Goizegi heldu nintzen. Azkenik, Na Bolom-en nengoen, Jaguarraren Etxea-n. Gidan irakurrita nekien Diego Riverak egonaldi luzeak pasatu izan zituela bertan, eta horrek harritu ninduen. Ez dakit Diego handiarentzat, baina garbi antzean nuen ez zela niretzako lekua. Norbaitek organoa jotzen zuen afari ordua heldu bitartean. Eta orduan.

Hirurogeita hamar urtetan-edo bueltan zebilen emakume estatubatuarra patioko ertz ba-

tean beren seme-alabekin zeuden andre-gizonengana hurbildu zen. Lacandoiak ziren, eta patioaren bueltan zeuden argazki zahar haietantxe bezala zeuden jantzita: mahuka motzeko tunika zuria baino ez. Ilea luzea, eta flekiloa zuzen moztuta bekokian. Emaztea azal zuriagokoa zen, eta eri itxurakoa. Bost ziren umeak, lau berenak eta hauen lagun zen tzeltal bat.

Argazkilariak biltzeko esan zien, eta agindu bezala batu zituen gizonak, amaren inguruan denak. Baina foto hartan bazegoen elementu arrotzik. Argazkilariak, ume tzeltala eskutik heldu eta taldetik atera zuen. Lacandoiek amorrurik gabe eutsi zioten irribarreari. Orduan egin zuen klik.

Chiapasko etniarik txikiena duzu lacandoiena –*hax winik*, «benetako gizonak» izena ematen diote euren buruari–. Laurehun lagunetik behera dituzu egun eta oso dira besteen ezberdinak. Ez janzkera soilik, antolaketa soziala da bestelakoa, mitoak dira bestelakoak, erlijioa da bestelakoa, hizkuntza da bestelakoa. Badarik ere, agudo aldatzen ari da dena azken urteotan. Beste herriekin harremanetan direnetik, beren mito zaharrak

(*Popol Vuh*-n agertzen diren berak) baztertu eta Zazpigarren Eguneko Adbentista bihurtu dira gehientsuenak. Orain, etxe hau, Na Bolom dute aterpe San Cristobalera heltzen direnek. Lacandoiak ondoen aztertu zituen Frans Blom zientzilari suitzarrarena izan zen aterpe-museoaren xedea. Hura hilda, haren alargun den Gertrude Duby Blom-en esku dago XIX. mendeko etxe zoragarria.

Kanpantxila txiki batek afaritarako deitu zuen. Gutxi ginen eta ez nuen erraz ihes egitea. Patioko familia, bost iparramerikar eta oraindik sustrairik gabe nituen beste bikote bat monastegi batekoa zirudien mahai luzean. Argi ahul hura, isiltasun bortitz hura.

– Ni banoak.

Ez zidan ulertu, sustraigabeak. Ingelesak ziren, eta galtzeko denak nituen mahai hartan. Patioko atea zabaldu nuelarik ohartu nintzen giltzatua zegoela kanpokoa. Zakur batek zaunka egin zuen bere katetik. Gatibu nengoen. Mahaian jarri nintzen berriro. Beha nuen aurreko neska beltzarana.

– Nongoa zara?

– Euskalduna.

– Nongoa?

– Espainia, Frantzia? Bada, erdian.

– Belgika?

– Bai, ondoan.

Ulertu zuen moduko zeinu bat egin zuen ezpainekin. Bertha deitzen zen. Berak ere ez zuen bizileku erraza. Sacramento eta Cincinnati arteko hiri batekoa zen, Santa Fe-koa. Ospitale batean egiten zuen lan eta, hara hurbiltzen diren asko mexikarrak dituelako etorria zela esan zidan. Eri haien bizilekua zein zen jakin nahi zuen.

– Hobeto ezagutzeko.

– Ondo dago hori.

– Eta zuk, zer egiten duzu hemen?

– Turismoa.

Luzeegia nuen euskal idazle eta margolarien istorio guztia kontatzea. Nola ez dakidan non amaituko dudan, baina zapatismoaz galdetu izan balit baietz, zapatista naizela esango nion. Ez dela ulertzen erraza baina maitasunak egiten zaituela bateko edo besteko. Are gehiago, behatzeko Marcosi ondo, hori dugulako euskaldunik

ezagunena Mexikon. Ikusi dun zer sudur daukan? Euskalduna dun. Baina ez zuen hortik segi.

– Eta noiz joango zara EEBBetara lanera?

Ez haut ulertzen Bertha. Nire mapak herriak falta ditin, poltsikoan eraman beharreko lurralde asko. Honako bidea zian orain, lotu egin nain, eta ez zakinat nirera itzulita ere libre izango naizen. Iraultza hau ederregia dun behin helduta inor libre uzteko, ulertzen? Eta garbi esango dinat: ez ditinat ulertzen.

– Noiz joango zaren. Ez duzu pentsatuko beti han geratzea ez?

Eskerrak ez duten ardorik atera mahaira. Txikanoak dituzu Merckx guztiak Bertharentzat. Irribarrez so egin nion. Nik ere ez dakit non dagoen Santa Fe. Baina ez zidan ulertu, edo ondoegi konprenitu zuen, ez dakit. Ez zidan afari guztian gehiago hitz egingo. Nire zakarkeriak salbatu ninduen.

– Euskalduna esan duzu? Euskaldun bat baino gehiago pasatu da hemendik.

Roberto zuen izena. Na Bolom-en egiten du lan artxiboetan Pueblatik etorri zenetik. Lacandoiei buruzko argazki, material, kantu eta aba-

rrak bildu eta eskaintzen ditu. Berak azalduta dakit aurrean dudan familiak zortzi orduko bidea duela herrira.

– Eta orain asko hobetu duk egoera. Armadak Amerika guztiko errepiderik onenak egin ditik oihanean.

Esan bezala duzu. Zapatistak zapuzteko, errepide berri asko egin da Lacandonan. Medikuarenera etorri dira eta lau egun egingo dituzte San Cristobalen. Emakumea eta umeak eri daude.

– Epileptikoak dituk. Baina normala duk eritasunak izatea. Orain arte euren artean bakarrik nahastu dituk eta laurehun baino ez dituk. Azkenaldian hasita zaudek tzeltalekin ezkontzen.

Aldea ere handia da. Emakume gutxiago jaiotzen da. Asko dira albinoak. Alde honetatik, aterpe moduan, Na Bolom-ek lan handia du egiteko oraindik. Museoari dagokionez berriz, jasoa dago ia dena. Aurrera beha jarri omen dira orain, irakaskuntza elebiduna...

Lehen platereko barazki egosiak amaitu orduko bi ume lacandoi dira ontziak jaso eta berriak zerbitzatzen dituztenak.

Ez diot deus galdetuko besteaz, gobernuak zelan erabiltzen dituen lacandoiak kontrainsurgentzia gerran.

Lacandona Komunitatearen Ituna aldarrikatu zelarik, hauetako 66 familiarentzat izan ziren eman ziren 600.000 hektarea. Tzeltalen edo tzotzilen aldean askozaz gutxiago izanik ere, euren esku jarri zen Kontseilu Indigenaren lehendakaritza. Krediduak eta kamioiak eman zitzaizkien. Besteak, 40, 60 eta 70eko hamarkadetan *Ahlan K'Inal*-erantz, Beheko Lurren bila abiatu ziren 150.000 tzeltal, tzotzil, tojolabal, txol eta zoke haien guztien seme-alabak, Gainetan geratu zirenekin batera, XXI. mendeko lehen Iraultzara –mundua asaldatuko zuten indigenen iraultzara– bultzatu zituen Salinasen gobernuak. Hori ez besterik baitira Lacandonako zapatistak. Lurrik gabe geratu diren kolonoen seme-alabak. Ametsetik erauzitako etorkinak.

Lacandoiena eta zapatistena, biak indigenak izanik ere, elkar ulertzen ez duten mundu bi dira hemen aurkitzen dituzunak.

– Hator nahi duanean. Zabalik dituk ateak.

Turisten fotoetarako indigenak. Guelaguetza ikaragarria oihanaren bihotzean, antropologo atzenduen dostagarri. Tunikak kapusaien aitzi. Mundu fosila etorkizunaren kontra, Diego. Zer egiten huen mahai honetan? Esaidak, hauek al dira Siqueiros-i hain iraingarriak egiten zitzaizkion indigena zoriontsuak? Baina igarri dit.

– Niri ez zaidak politika interesatzen. Nik antropologia maite diat.

## Rivera eta Siqueiros

– Riveraren indioak ez dira benetakoak! Indio guri-guriak, ezin gizenagoak margotu ditu. Hitz bakarrean esateko, zoriontsuak! –gaztigatzen du Bellas Artes-ko hizlari tribunatik David Alfonso Siqueiros-ek.

– Esaizak berriro!

Diego Rivera da *kritika zuzentzeko* beti aldean daraman errebolberra eskuan oholtzara igo dena. Mexikok dituen bi muralgile onenen arteko eztabaida hiru egunez luzatzen da. Elkarri esatekoak zituztenak esanda, Riverak eta Siqueirosek pistolekin konponduko dute auzia. Ia batera egingo dute tiro... baina antzoki sabaian zeuden aingeru igeltsuzkoen kontra. Bolbora errearen usaina zabaldu eta kerubin zatiak jende gainera erortzen hasi orduko hustuko du entzulegoak aretoa.

# HONDORA

## –1–

Katedral atarian, EZLNren pankarta handia dago jarria burdinazko errejetan. Zapatismoari buruzko materiala saltzen dizuten postua duzu. Egun txarra duzu gaurkoa. Erakusteko baino ez dituzte argazkiak: Marcos pipan erretzen, Marcos zaldi gainean, Marcosen begiak kapusai atzean gordean. Biharko izango dituzte kopiak. Batere gabe geratu dira, horrenbestekoa izan da gaurko eskaera. Gazteak dira saltzaile ari diren neska-mutilak –ez gara Chiapaskoak, gu bertokoak gara, De Efekoak–, eta harritzen zara talde armatu batek bere materiala poliziaren aurrean pankarta eta guzti lasai saltzeko aukera izana. Ez zaude Europan.

Barnean, iluntasunak hartzen zaitu. Meza ari da katedralean, eta organo-joleak ezagun egiten zaizun doinuaz ematen dizu ongietorria. Espainiako himnoa da, mezetara bildutakoak beste

letra batez kantatzen duten arren non ezkutatu ez duena.

– Hondoratzen ari gara.

Zumarraga durangarra artzapezpiku hartu zuen katedrala Tenochtitlan zaharreko aintziretan hondoratuz doala ari zitzaion azaltzen mexikarra arrotzari. Lurrikarei gailendu zaion katedral gorria ur ikustezinen atzaparretan duzu orain. Marmorezko zoruaren okerdura begien bistakoa da. Pixkana-pixkanaka, dena doa nahua zaharren aintziraren hondora. Hondora doa aldare nagusia. Hondora doaz pulpituak eta organo zaharra. Hondora erretaula eta artelanen ederra. Gurutzeekin batera, konkistak ekarri zuen oro doa hondora. Are euskaldunon margolaririk onena izan zen Baltasar Etxabe oikiarraren koadroak ere.

Hondorapenarekin pentsatzen ez duena da mexikarra. Katedralean eta oro har Zocalo hutsaren inguruan amaitzen zaizkizu egun ere protestaldi guztiak. Lehendakaritza Jauregia aurrez aurre dute bitxitegien arkupeetan lozakuetan etzanda daudenak. Medikuak dira, eta gobernuak ospitalea utzia duela diote. Tresna egokirik

gabe egiten dira ebaketak. Denbora daramate bat ere pesorik ikusi gabe. Egungo Mexikoko ezein sektoretan duzun arazoa da pribatizazioena. Hogeita sei egun daramatzate gose greban.

– Zelan deitzen da zure aberria?

Chiapaskoen aldean bestelakoak dira turisten sosen atzetik Zocalo erdian dantzan ikusiko dituzun indigena nahuak. Maiak barik, azteken ondorengoak dituzu hauek, eta ikusgarriagoak hauen dantza biribilak ikustera arrimatutako ororen begietara.

– Mexiko –erantzun du neskatxak, gaztela jota ederrez.

Kastor lumatua daraman dantzariak atzamarrez seinalatzen du neska oihuka ekiten dion bitartean.

– Ikusten duzue? Geure aberriari ere izena aldatu diote!

Osterantzeko dantzariek zoru gainean zabaldu duten mantaren inguruan bildu dira, elkarren arropak hobekiago atontzen. Buztinezko irudiak, perkusio tresnak eta liburuak dituzte salgai. Materialarekin eta zorroa pasatutakoan bildutakoarekin biziko da familia guztia.

– Mexiko! Mexiko deitzen da!

Buru egiten duenaren mihia kastorraren erdian irudi egina daraman sugea legez irristatu da.

– Mexiko! Mexiko! Mexiko! –eta jotaz ahoskatzen du orain, neskak esan bezala imitatuz– inposaketa da. Espainolen inposaketa!

Koprodukzio amerikar batetik ateratako aktoreak dirudite dantzariek beren atsedenaldian. Gazteleraz ari dituzu elkarren artean, eta Chiapaskoak ez bezala, pipatzen ikusten dituzu.

Eta berdinak ez direla jakinik ere, hotelean TV Azteca-n ikusi programa datorkizu gogora. Bazen arratsaldeko magazinean barregarri gerta nahi zuen pertsonaia bat, hanka okerreko, imintzio exageratuko, trapuzko tximua sorbaldan zuela txisteak-eta kontatzen zituena. Gaztelerazen erabilera okerrean zuen bolbora guztia. Beltzei buruzko txisteak kontatzen zituen. Estudioko jendearen algarek bere lanean ondo ari zela ematen zioten aditzera. Eta orduan eta harroago. La India Eldemira deitzen zen.

Ez da erraza indigenaren langintza Mexiko neoliberalean. Eta zalantza ere sartzen zaizu

iraultza zapatista bakarra nahikoa izango den La India Eldemira jendearen gogotik betirako erauzteko.

– Mexiko! Esan, Mexiko!

## –2–

Lehendakaritza Jauregi atzean labainka pasatu diren hegazkinei beha ari dira neska-mutilak. Astiro doaz, eta geldirik daudela ematen dute orain, aireportuan lur hartzeko baimenaren zain. Mendiak elurtuta ageri dira atzean.

– Popocatepetl urrunegi duzu hemendik ikusteko!

Eta neska-mutilek hegazkinez sumendien gainetik igaro direnekoaz oroitzen direla irudikatzen duzu. Bi aho ikaragarri zeruari zabalik sumendienak.

– Gera zaitezte!

Eta Raul *ikusten duk, gera hadi* esaten. Hamakan ostargiak zaldiei sarrera eman zienekoa lotzen zaizu gogora. Ez denbora gehiago, bizitza osoa behar duzu zaldun estali, ez garaitzeko

iraultza zoragarria antolatu duten indigena haiek zertan dabiltzan ulertzeko. Jo ezazue mugan bestaldera. Elkar zaitezte Guatemalako senideekin eta antola ezazue Federazio Maia bat Mexiko bazter utzita! Alferrik baina. Izan ere, zer nauk hemen bada Raul, begiz filmatu bai, baina nire *Viva Mexico!*-ren fotogramak lotu ezinean dabilen Sergei Eisenstein atzendu bat, tirorik entzun gabe ikusia kontatu gogo duen John Reed trabatu bat inoiz geure egingo ez dugun lurralde miresgarri honetan barrena...

Ez diat ahaztua, ez didak kontatu Veracruzko Urberuagarena.

– Gera zaitezte!

Geratu gintuan baina. Artetaren koadroetako gizonetako bat bezala, itsas-blokeo frankista guztiak hausten azti zen Lezo Urreztietak erosi nahi izan zian lurralde bat hemen, Mexikon, euskaldunontzat. Ozeano Barean zegok gure irla, Isla de las Cabras deitzen duk, gozoagoa, eguzkitsuagoa Saint Pierre et Miquelon beti karroinduaren aldean. Hitz egin zian Cardenas aitarekin ere, Lazarorekin. Euskaraz baino egingo ez zen Euskal Herri bat Mexikon, Raul!

– Telefonorik, jauna?

Mahai gehiago zegoen barruan, dotore apainduak afaritarako. Gutxi erabilia nuen Ladatel telefono txarteltxoa. Herdez eta Good Year-en publizitatea zeraman formula bateko autoa zuen irudian.

– Raulekin mesedez?

– Nor da?

Emakume ahotsa zen, baina ez zen Laura. Agindua nion Mexiko utzi aurretik deituko niola.

– Lagun bat. Chiapasko topaketetan ezagutu dugu elkar...

Luzeegia iruditu zitzaidan unea egin zuen isilik. Ez nuen zeozertan asmatu.

– Raul hilda dago, jauna. Bihotzekoa izan zuen handik bueltan.

Telefonoak artean 14 pesoko kreditua nuela adierazten zuen.

## Euzkadi Futbol Selezioa

Gerra da herrian, eta umezurtzei bidaltzen dizkiete futbolean jokatuta irabazten dituzten sosak. Lehen partidua Parisen izan zela eta hiru eta huts irabazi zietela Parisko Racing-ekoei, hori dute gogoan. Pozak guti iraungo zuen

ordea. Hurrengo egunean alemaniarrek Gernika bonbardeatu zuten.

Eta Paristik Pragara egiten du gogoak, Katowice eta Varsoviara. Sobiet Batasunean 90.000 ikusle batu zituzten, eta negarrez hartu zituen kamerak Santurtzitik untzietan ateratako umeekin elkartu zirenean. Baina errepublikaren alde dagoen mundua handia da. Ameriketan ere nahi dituzte, eta onak dituzte oinak. Horregatik beratzen dira oraino Mexikoko liga ofizialean jokatzeko gonbitea jaso eta hau irabazi zutela gogoratzen duten bakoitzean.

## Euzko Deya

*Centro Vasco. Restaurant, Cantina. Todos los días cambio de menú. Madero 6. «Euzkadi aragitegia». Atela'tar Toma, Aranda 3. «Fundicion Garate». Prop. Jesus Garate Aldazabal. Bronces industriales. Especialistas en piezas sobre modelos, Calle de la Luz 106...* Urruntasunean berregiten den Euzkadi bat da *Euzko Deya*-k 1943tik aurrera bere irakurleei Morelos etorbidetik eskaintzen diena. Beso zabalik hartu dituen Mexikori egiten zaizkion laudorioak euskal erresistentzian parte hartzeko deiekin nahasten dira. Los Xey. Pepita Enbil. Cardenas. *Handik* tantaka baino ez dira heltzen berriak. Baina zerbait aldatzen ari dela ematen dute aditzera. Saninazio egunez, esku ezezagun batzuek *Gora Euzkadi Azkatuta* idatzi dute Donostiako Chofreko barreretan.

# ITZULIKO HAIZ TENAMPA-RA

## –1–

– Banekian etorriko hintzela.

Ilun dago ostatua oraindik, argiak biztu gabe. Jende gutxi dago mahaietan, eta mariatxiak heldu gabe dituzu oraindik Tenampa-ra, munduko mariatxi guztien eliza gorenera. Berarekin eseri naiz.

– Esaidak, non ibili haiz?

Mariatxiengandik ihesi ibili naizela elkarrengandik bereizi ginenetik, hara zer esan diodan.

– Hegoaldeko bideetan. Marinbak mariatxiei plazak jaten dizkieten lekuetan.

– Etzak adarrik jo! Chiapasen ibili haiz!

Begiak gorri ditu Marianok. Eguerditik darama hemen, eta ezagun du. Tekila bana eskatu du ni ohartzerako. Ordea ez duzu haserre.

– Chiapasen! Eta ez hidan esan hara hindoala. Lagunak ditiat han!

– Kapusaidunak izango dituk eta.

Bizkarra zuzendu dit eman didan kolpeaz. Barrez lehertu da orain. Hasieran pentsatu baino atxur handiagoa du.

– Irabazten ariko dituk bada?

Baietz diotsot, seguru egoteko. Ezagun du ez duela egunkaririk irakurri egunotan. San Andres Larrainzarko Elkarrizketak akordiorik gabe amaituko dira. Marco Antonio Bernal, gobernu ordezkariak zapatistek aurkeztu dokumentuarekin ez zegoela akordio batera heltzerik zioen. Tacho komandanteak berriz, ez dutela iraultza egin kondarrak jasotzeko. Demokrazia kontzeptuaz ez datoz bat.

– Noiz duk hegazkina?

– Etzi.

– Itxointzak. Badiat gauza bat hiretzat.

Baldar zabaltzen du bitan tolestutako papera. Fotokopia higatua da, katalogo batekoa-edo. Boligrafoz mugatu duen orrialde atalean hiru koadro dira barruan, zuribeltzean erreproduzituak hirurak.

– Ez huen espero, e?

Diego Riverak Lekeition margotuak dira, 1907koak hirurak.

*54. «Paisaje de Lequeitio». Inscrip. Diego Rivera. Lequeitio, 1907. Oleo/tela, 110x89 cm. Col. Castello de Campos.*

*55. «Iglesia de Lequeitio (Piedra vieja y flores nuevas)». Oleo/tela, 110x90 cm. Col. INBA-Museo Casa Diego Rivera, Guanajuato.*

*56. «Casona de Vizcaya», Oleo/tela, 87x108 cm. Col. Archibaldo Burús*.

– Hilabete egin zian zuenean. Ezagutzen dituk tokiak?

Eskuak Kanpillo-rako aldatsetik pintatu koadroa seinalatzen ari zitzaidala ohartu nintzen atxikarra falta zuela. Aspaldikoa behar zuen izan zauriak. Ondo orbaindua zuen.

– Bai, bai. Berdin zaudek gaur egun ere.

Itsasokoak Kabaua aldea zirudien, baina ezin seguru esan, txarrak ziren erreprodukzioak. Etxeak Azpiri karrikaburukoak ziren, zuhaitz pieza bakarreko gakoak balkoipeari eusten. Zergatik ez digu inork esan Euskal Herrian Riverak hilabete egin zuela Lekeition Madrilgo Chicharro

margolariarenera joan zen hartan? Katalogoa benetakoa zen, ez han ez Marianoren berbaroan ez zegoen gezur hatsik.

– Egunero eraman diat aldean. Banekian itzuliko hintzela.

Mariano ezagutu zenuen egunera doakizu gogoa. Hilabete pasa, orain gauden mahai berean. Han egon ohi zen egunero.

– Maite diat gringoekin hitz egitea. Munduaren berri ematen zidatek.

Gringoak dituzu euskaldunak ere. Eta *gabachoak* iparramerikarrak, hala nahi baduzu. *Gaboak*. Mariatxiak deituak zituen, ea «Cartas Marcadas» kantatzen lagunduko nion galdetu zidanean. Eta ni ere ukituta egon. Ez duzu DFkoa, baina urteak daramatza Euzkadi Radial enpresan, autoetako gurpilak egin eta egin. Pemex-ko birfindegietan ibilia da Veracruz eta Tabascon, bide eginean Irapuato-tik Leon-erakoan.

– Indigenek *huaratxak* egiten ditiztek gure kubiertekin.

Ikusiak nituen. San Cristobalen, hamabost pesotan saltzen dizkizute Euzkadi eder batzuk Utrillako azokan. Orduko hartan kontatu nion

euskal idazle eta margolariaren atzetik nenbilela, polizia engainatzeko besterik ez zela esan gabe. Hortik Riveraren fotokopia higatu hura tekila likez zikindutako mahaiaren gainean. Estimatzen ninduen.

– Aldrebes habil bila baina!

Hala da. Alderantziz egin nuen bidea. Bazen etxera heldu eta batera egin beharreko ikerketarik. Lekeition hilabete egin bazuen, non egon zen? Beitia hotelean? Zubieta jauregian gonbidatu? Kontuak egin nituen, baina orain nori galdetu gomutatzen diren ehun eta hogei kiloko pintore mexikar batez? Berandu nenbilen. Hilak nituen kabailetearen bueltan irri eta zirri pilatu ohi ziren lekeitiar ume haiek guztiak.

## –2–

Argiak isiotu zituzten. Mariatxiak hasiak zeuden kantuan, tabernaren beste muturrean baina. Tekilaz tekila, gu ere hasita geunden orain dela hilabeteko bidea berregiten. Oroimenen abiadan husten zitzaizkizun kopatxoak. Ondo eusten

nion. Oraindik gauza nintzen Carlos Reyna-ren kartel handia leitzeko: «*Lau, bost edo hogei kopako hartzen dituzu eta, kantuak maitasunak dakarzkizu gogora*».

– Oraindik ondo hago irakurtzeko gauza bahaiz.

Esku zabaldu baten adinakoak ziren letrak, antzerki karteldegietako marrazkien antzerako aurpegiaren ondoan.

– Hemendik Guanajuatora, zenbat? Lau ordu?

– Bost, lehen mailako kamioian joanda.

Ez nuen erraza izango Diego Riveraren museoraino eramango ninduen autobus bat hartzea goizean. Askozaz aurretik hartu beharra dago tiketa bidaia luzeetarako. Joan beharra zegoen inondik ere, okerreko bidean ibilia nintzen bila. Guanajuatoko jaiotetxean nuen Riverak muralei ekin aurretik Lekeition egin koadroetatik ikusgai zegoen bakarra.

Marianok aurpegi txikia altxatu zuen, gihartsua eta almendra begi ederduna mustatxaren gainean.

– Eta zer gehiago dakar egunkariak?

– Guerreron, Gobernua prest dagoela EPRrekin negoziatzeko armak entregatzen badituzte.

– Gehiago.

Gutxi ziren gogoan nerabiltzan albisteak. San Cristobaldik heldu nintzenetik beti egunkari bera irakurtzen ari zarelako sentimendu hori. Bestaldetik ere, *Excelsior* bezain ezkor agertzen zen *La Jornada* Larrainzarreko Elkarrizketen aurrean.

– Colosio-ren hilketa leporatzen zioten Othon Cortes askatu dute. Zedillok Colosio afera ikertuko duela dio. Manifestazioak gobernuaren nazionalizazio asmoen kontra. 183 agente egotzi dituzte ekain-uztailean Poliziatik DFn ustelkeria kasuetan nahastuta agertzeagatik...

– Emaidak puru txiki horietako bat.

Geratzen zitzaidan azkena zen.

– Kantatu egingo diagu.

– Ez, Mariano. Badakizu zein eztarri petral dudan. Barregarri geratu nintzen aurrekoan ere.

Egia da, astundua, irinetan pasatuta bezala duzu mihia.

– Ez duk bada pentsatuko jendea hiri beha dagoenik? Tira, zein nahi duk?

Mariatxien buru zirudienak Jose Alfredo Jimenez-en zerbait proposatuko dio, baina badakielako ez duela gehiegi maite. Amorrarazteagatik izan da.

– Jimenezen kantuak baino ez dituk entzuteneta hona hatorren bakoitzean!

– Nik ez diat sekula Jimenezen deus kantatu!

– Agustin Lara-ren zerbait? Pancho Villaren zaintza pertsonalekoa genuen Lara gaztea! –diotsot, mariatxiaren eta Marianoren artean sartze aldera. Ez nuen esateko ama euskalduna zuela.

Begiak biztu zaizkio, baina Marianok ez du Maria Felix-ekin zerikusirik duen ezer ekarri nahi gogora.

– Mexikoko neskarik ederrenarekin ezkondu zelako diok bekaitza, e Zaharra?

– Ez duk egia!

– Cuco Sanchez?

– «Fallaste corazón» –esan du azkenean, rossliari gogor tira eginez.

Munduko besorik sendoena da Marianorena nire lepoaren inguruan. Hau nire laguna da. Nire lagunak Mexikoko margolariak zuek baino hobeto ezagutzen ditik esaten balego bezala. Bero

nintzen, eta sabaiko haizegailua haizerik ez emateko zebilen itzulika.

*Y tú que te creías el rey de todo el mundo*
*y tú que nunca fuiste capaz de perdonar*
*y cruel y despiadado de todo te reías*
*hoy imploras cariño aunque sea por piedad*

Ondoko mahaietako jendearen begiak iltze dira nire kokotean, baina lotsagalduta nenbilen ordurako. Haizea ematen zidaten Marianoren begiek *ándale güero*-ka.

*A dónde está tu orgullo a dónde está el coraje*
*porque hoy que estás vencido mendigas caridad*
*ya ves que no es lo mismo amar que ser amado*
*porque estás acabado qué lástima me das*

– Iñigo, ez hadi joan.

– Oker ibili naiz bila!

– Gera hadi Domu Santu egunera arte behintzat. Nire herrira joango gaituk!

Gero eta estuago lotzen nauen suge handi bat da orain Marianoren beso motza. Rossli txikia ilentia lau atzamar beltzen artean.

– Ezagutu behar dituk etxekoak!

– Guanajuatora noa. Ikusi beharra dut koadroa!

– Nahikoa asti baduk!

– Ez duzu ezer ulertzen.

– Neuk lagunduko haut!

*Maldito corazón me alegro que ahora sufras*
*que llores y te humilles ante este gran dolor*
*la vida es la ruleta en que apostamos todos*
*y a tí te había tocado no más la de ganar*

– Ez nuen etorri behar, Mariano.

– Hi ihesi habil.

Begi errukiorrez behatu ninduen. Bera bezain hordi nengoen.

Non galdu zenuen atxikarra, Mariano?

– Chiapasera joango gaituk, Iñigo. Zapatistekin!

*Pero hoy la buena suerte la espalda te ha volteado*
*fallaste corazón no vuelvas a apostar*

– Neu joango nauk hara bestela. Rivera joan huen!

Ez duzu ikusten? Zure atxikarra da, Mariano!

Kantariari ehun pesokoa jakako poltsikoan sartu eta beste bi jo ziezazkiotela esanda irten nuen kanpora. Aire itogarriak hartu ninduen. Elastikoa fraka barrutik atera eta urrats handiz gurutzatu nuen Garibaldi plaza, bezero bila hur-

biltzen zitzaizkidan mariatxien deiei entzungor. Trafikoa hazia zetorren Serdan eta Lazaro Cardenastik gora. Inoren begiekin estropozo egin gabe sartu nintzen metro zuloan.